

SONY.

Erabiltzailearen eskuliburua

**Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua**



Xperia 10 Plus

I3213/I3223/I4213/I4293

Edukia

Azkar hastea	6
Erabiltzailearen eskuliburu honi buruz	6
Deskribapen orokorra.....	7
Muntatzea: SIM bakarra	8
Muntatzea: bi SIM.....	9
Pantaila babestea	10
Gailua lehenengo aldiz piztea	10
Zergatik behar dut Googleren kontu bat?	10
Telefono zaharretik edukia transferitzea	11
Gailuaren segurtasuna	13
Gailuaren babes-bermea	13
Pantaila-blokeoa	13
Hatz-marken administratzailea.....	14
SIM txartela babestea	15
Bi SIMeko gailuen erabilera.....	16
Gailuaren IMEI zenbakiak bilatzea	16
Galdutako gailua bilatu, blokeatu edo ezabatzea.....	17
Kokapen-zerbitzuak erabiltzea	17
Oinarrizko ezaugarriak ikastea	19
Ukipen-pantaila erabiltzea.....	19
Alboko sentsorearen erabilera	21
Pantaila piztu edo itzaltzea.....	24
Atzeko argiztapen adimenduna	24
Pantaila nagusia	24
Aplikazioen pantaila.....	25
Aplikazioetan nabigatzea.....	27
Widgetak	29
Lasterbideak eta karpetak.....	30
Atzealdea.....	31
Pantaila-argazki bat egitea	31
Jakinarazpenak	31
Egoera-barrako ikonoak.....	34
Bateria eta mantentze-lanak	36
Gailua kargatzea.....	36
Energia eta bateria administratzea	38
Gailua eguneratzea	40
Berrabiaraztea, berrezartzea eta konpontzea	41
Memoriaren errendimendua hobetzea	43

Segurtasun-kopia eta datuen sinkronizazioa	45
Segurtasun-kopia eta Google kontu batekin sinkronizatzea.....	45
Ordenagailu bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea.....	46
Memoria-txartel bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea.....	46
Microsoft Exchange ActiveSync-ekin sinkronizatzea	47
Aplikazioak deskargatzea.....	48
Aplikazioak Google Play-n deskargatzea	48
Aplikazioak beste iturri batzuetatik deskargatzea	48
Internet eta sareak.....	49
Interneterako eta MMSrako doikuntzak.....	49
Wifa.....	50
Datu mugikorren konexioaren erabilera partekatua	52
Datuen erabilera kontrolatzea	53
Datu-trafikorako SIM txartel bat aukeratzea.....	54
Sare mugikorrak hautatzea	55
Oinarrizko doikuntzak.....	56
Doikuntzetara sartzea	56
Bolumena, bibrazioa eta soinua	56
Gailua isilaraztea ez molestatzeko moduarekin.....	57
Pantailaren doikuntzak.....	58
Pantaila ainguratzea.....	59
Aplikazioaren doikuntzak.....	60
Aplikazioak berrezartzea.....	61
Hizkuntza-doikuntzak	62
Eguna eta ordua	63
Soinuaren irteera hobetzea.....	63
Zenbait erabiltzaile-kontu	64
Testua idaztea.....	65
Pantailako teklatuak	65
Testua editatzea	66
Deitzea	67
Deiak egitea.....	67
Deiak jasotzea	68
Deiak birbidaltzea.....	70
Zenbakiak blokeatzea	70
Kontaktuak.....	72
Kontaktuak gehitzea eta editatzea	72
Kontaktuak multzokatzea	73
Kontaktuak transferitzea	73

Kontaktuen segurtasun-kopia	74
Mezularitza eta txata	76
Mezuak irakurri eta bidaltzea	76
Mezularitzako doikuntzak	77
Posta elektronikoa konfiguratzeko	78
Musika eta FM irratia	79
Ordenagailu batetik gailura musika transferitzea	79
Musika entzutea	79
Irratia entzutea	81
Kamera	83
Kameraren deskribapena	83
Esposizioa, kolorea eta argi-baldintzak	86
Fokuratze zuzenaren doikuntzak	89
Pertsonak, autoargazkiak eta irribarreak	90
Autoargazki erretratuak	91
Objektuak mugitzen	91
Bokeh efektua	92
Argazkiak ateratzeko zenbait modu erabiltzea	92
Bereizmena eta memoria	95
Kameraren diagnostikoa	95
Kameraren doikuntza osagarriak	95
Argazkiak eta bideoak bilduman	98
Argazkiak eta bideoak ikustea	98
Bildumaren pantaila nagusiaren menua	98
Konektagarritasuna	100
Gailuko pantaila telebistan bistaratzea, haririk erabili gabe	100
Telefonoa USB gailu batera konektatzea	100
NFC (Near Field Communication)	102
Haririk gabeko bluetooth teknologia	104
Denbora aurrezten laguntzen duten aplikazio eta ezaugarri adimendunak	107
Gailua diru-zorro gisa erabiltzea	107
Erlojua eta egutegia	108
Egutegia	108
Erlojua	108
Erabilerraztasuna	111
Pantaila handitzea	111
Letra-tamaina	111
Bistaratzeko tamaina	111
Kolorea zuzentzea	111

TalkBack	112
Audio monoa.....	112
Etengailu bidezko sarbidea.....	112
Laguntza-aplikazioa	114
Laguntza-aplikazioari buruz	114
Lege-informazioa	115
Orokorra	115
Bermea, SAR eta erabilera-jarraibideak.....	115

Azkar hastea

Erabiltzailearen eskuliburu honi buruz

Xperia 10 Plus erabiltzailearen eskuliburua da honakoa, Android™ 9.0 softwarearen bertsiorako. Zure gailuaren software-bertsioa zein den ziur ez bazaude, **Ajustes** menuan egiazta dezakezu.

Oharra

Sistema eta aplikazioak eguneratzean, gerta daiteke gailuaren ezaugarriak erabiltzailearen eskuliburu honetan deskribatutako moduan ez bistaratzea. Gerta daiteke, halaber, eguneratze bat egin, eta Androiden bertsioan eraginik ez izatea. Softwarearen eguneraketei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, jo *Gailua eguneratzea* atalera (40. orrialdea).

Zure gailuaren softwarearen bertsioa eta modeloaren zenbakia egiaztatzea


- Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Información del teléfono**. Software-bertsioa **Número de compilación** aukeran dago. Modeloaren zenbakia, berriz, **Modelo** atalean agertzen da.

Zerbitzuen mugak eta ezaugarriak


Gerta daiteke erabiltzailearen eskuliburu honetan azaltzen diren zenbait zerbitzu eta ezaugarri erabilgarri ez egotea herrialde edo eskualde batzuetan, eta gerta daiteke bateragarriak ez izatea sare batzuekin edo sare-operadore batzuekin. GSM larrialdietarako nazioarteko zenbakia herrialde, eskualde, sare eta zerbitzu-hornitzaile guztietan erabil daiteke, baldin eta mugikorra telefonia mugikorreko sare batera konektatuta badago. Jarri harremanetan zure sare- edo zerbitzu-operadorearekin, jakiteko, batetik, ezaugarri edo zerbitzu espezifikoak erabilgarri dauden ala ez, eta, bestetik, noiz ezartzen diren kuota gehigarriak funtzio horietara sartzeagatik edo horiek erabiltzeagatik.

Eskuliburu honetan deskribatutako ezaugarri eta aplikazio jakin batzuk erabiltzeko, litekeena da Interneteko sarbidea behar izatea. Zure mugikorretik Internetera konektatuz gero, datu-trafikoari dagozkion tarifak aplika daitezke. Informazio gehiago izateko, jarri harremanetan haririk gabeko zure zerbitzuen hornitzailearekin.

Deskribapen orokorra



- 1 Entzungailuen hargunea
- 2 Karga-/jakinarazpen-argia
- 3 Bigarren mikrofonoa
- 4 Belarrirako bozgorailua
- 5 Hurbiltasun-/Argi-sentsorea
- 6 Aurreko kamera
- 7 Pizteko tekla
- 8 Hatz-marken sentsorea
- 9 Bolumen-/zoom-tekla
- 10 Bozgorailua
- 11 Kargagailua/USB ataka
- 12 Mikrofono nagusia



- 13 GPS/Wifi/Bluetooth® antena
- 14 Dibertsitate-antena
- 15 Flasharen LEDa
- 16 Kamera duala
- 17 NFC™ detekzio-eremua
- 18 Memoria-txartelaren/NanoSIM txartelaren zirrikitua
- 19 Antena nagusia

Muntatzea: SIM bakarra

Zure gailua nanoSIM txartelekin soilik da bateragarria. SIM bakarra duten gailuetan, SIM txartel bat eta memoria-txartel bat erabil ditzakezu.


NanoSIM txartelak eta memoria-txartelak arteka bana dute. Ziurtatu ez dituzula nahastu.

Zure gailua SIM bakarrekoa edo bi SIMekoa den egiaztatzeko, jo *Gailuaren IMEI zenbakiak bilatzea* atalera (16. orrialdea).

Oharra

Daturik ez galtzeko, itzali gailua edo desmuntatu memoria-txartela, gailutik nanoSIM txartela edo memoria-txartela ateratzeko egokigailua atera aurretik.

NanoSIM txartela eta memoria-txartela sartzea



Oharra

Ez moztu SIM txartela, gailua hondatu egin baitaiteke.

- 1 Atera SIM txartelaren erretilua.
- 2 Sartu memoria-txartela dagokion zirrikatuan, orientazio egokian.
- 3 Sartu SIM txartela dagokion erretiluan.
- 4 Bultza kontu handiz SIM txartelaren erretilua, artekan ondo sartuta geratu arte.

Muntatzea: bi SIM

Zure gailua nanoSIM txarteekin soilik da bateragarria. Bi SIM dituzten gailuetan, nanoSIM txartel bat edo bi eta memoria-txartel bat erabil ditzakezu.


Bi SIMeko gailuak ez daude eskura merkatu guztietan, ez eta operadore guztien bitartez ere.

Zure gailua SIM bakarrekoa edo bi SIMekoa den egiaztatzeko, jo *Gailuaren IMEI zenbakiak bilatzea* atalera (16. orrialdea).

Oharra

Daturik ez galtzeko, itzali gailua edo desmuntatu memoria-txartela, gailutik nanoSIM txartela (edo txartelak) edo memoria-txartela ateratzeko egokigailua atera aurretik.

NanoSIM txartelak eta memoria-txartela sartzea



Oharra

Ez moztu SIM txartela, gailua hondatu egin baitaiteke.

- 1 Atera SIM txartelaren erretilua.
- 2 Sartu memoria-txartela dagokion zirrikatuan, orientazio egokian.

- 3 Jarri SIM txartel nagusia (SIM1) SIM txartelaren erretiluan.
- 4 Jarri bigarren SIM txartela (SIM2) SIM txartelaren erretiluan.
- 5 Bultza kontu handiz SIM txartelaren erretilua, artekan ondo sartuta geratu arte.

Pantaila babestea

Oharra

Gailua erabili aurretik, kendu plastiko babesle guztiak, funtzio guztiak ongi erabili ahal izateko.

Pantaila-estalki eta -babesek zure gailua kalteetatik babesten lagunduko dizute. Xperia gailurako bereziki diseinatutako pantaila-babesak bakarrik erabiltzea gomendatzen dizugu. Beste marka batzuetako pantaila-babesak erabiliz, gerta daiteke sentsoreak, objektiboak, bozgorailuak edo mikrofonoak estaltzea, eta, ondorioz, gailuak ondo ez funtzionatzea. Halaber, gailuaren bermea baliogabetu dezakete.

Gailua lehenengo aldiz piztea

Gailua lehen aldiz piztu aurretik, bateria gutxienez 30 minutuz kargatzea gomendatzen da. Kargatzen den bitartean ere erabil dezakezu telefonoa. Kargari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo *Gailua kargatzea* atalera (36. orrialdea).

Gailua pizten den lehenengo aldian, konfigurazio-morrori bat irekitzen da oinarritzko doikuntzak konfiguratzeko, gailua pertsonalizatzeko eta zure kontuetan saioa hasten laguntzeko (adibidez, Google™ kontu batean).

Telefonoa piztea

- 1 Luze sakatu pizteko tekla, gailuak dar-dar egin arte.
- 2 Sartu SIM txartelaren PINa, eskatzen dizunean, eta sakatu ✓ (onartzeko ikonoa)
- 3 Itxaron une bat, gailua abiarazten den arte.

Irakokizuna

Zure sare-operadoreak emango dizu zure SIM txartelaren PINa. Hala ere, aldatu egin dezakezu, **Ajustes** menuan. SIM txartelaren PIN kodea oker sartzen baduzu eta zuzendu nahi baduzu, sakatu ✕ (atzera egiteko ikonoa).

Gailua itzaltzea

- 1 Luze sakatu pizteko tekla, aukeren menua ireki arte.
- 2 Sakatu **Apagar**.

Oharra

Baliteke gailuak segundo batzuk behar izatea itzaltzeko.

Zergatik behar dut Googleren kontu bat?

Sonyren gailuak Googlek garatutako Android plataforman funtzionatzen du. Gailua erostean, Googleren zenbait aplikazio eta zerbitzu eskaintzen ditu (horien artean, Gmail™, Google Maps™, YouTube™ eta Google Play aplikazioa). Zerbitzu horiei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, Google kontu bat behar duzu. Adibidez, Google kontu baten bitartez, hau egin dezakezu:

- Google Play-ren aplikazioak deskargatu eta instalatu.
- Posta elektronikoa, kontaktuak eta egutegia sinkronizatu, Gmail erabiliz.

- Segurtasun-kopiak egin, zure datuak berreskuratu eta gailu zaharretik berrira transferitu.
- Lagunekin txateatu Google Duo™ aplikazioaren bidez.
- Nabigazio-historia eta gogokoak sinkronizatu, Google Chrome™ web-nabigatzailea erabiliz.
- Erabiltzaile baimendu gisa identifikatu Xperia Companion-ekin software-konponketa bat egin ondoren.
- Galdutako edo lapurtutako gailu bat urrunetik bilatu, blokeatu edo ezabatu **Encontrar mi dispositivo** zerbitzua erabiliz.

Android eta Google-i buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu <http://support.google.com>.

Telefonoan Googleko kontu bat konfiguratzeari buruz

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Cuentas > Añadir cuenta > Google**.
- 2 Segi pantailan ageri diren jarraibideei Google kontu bat sortzeko, edo, jadanik kontu bat baduzu, hasi saioa.

Telefono zaharretik edukia transferitzea

Modu bat baino gehiago dago datuak gailu zaharretik berrira transferitzeko.

- Googleko kontu batekin datuak sinkronizatzea
- Datuak ordenagailu batera kopiatu eta handik transferitzea
- Datuak SD txartel batera kopiatu eta handik transferitzea

Googleko kontu batekin datuak sinkronizatzea

Google kontu batekin sinkronizatuz transferitu ditzakezu datuak. Lehenik eta behin, egin zure datuen segurtasun-kopia zure telefono zaharreko Google zerbitzarian, zure Google kontuaren bidez. Ondoren, konfiguratu Google kontu bera zure gailu berrian. Modu bat baino gehiago dago, zer edukiren segurtasun-kopia egin nahi duzun eta zer eduki sinkronizatu nahi duzun kontuan hartuta:

- Gmail-a, egutegia, kontaktuak: hasi saioa gailu zaharrean erabiltzen zenuen Google kontu berarekin. Ondoren, Gmail-a, egutegia eta kontaktuak automatikoki sinkronizatuko dira zure Google kontuarekin.
- Irudia (argazkia), bideoa: gailu zaharreko datuen segurtasun-kopia egin Google zerbitzarian, Google Argazkiak erabiliz. Ondoren, sinkronizatu gailu berria zure Google kontuarekin.
- Aplikazioak, doikuntzak, dei-historia: egin segurtasun-kopia bat automatikoki zure gailu zaharrean Google Drive erabiliz. Ondoren, sinkronizatu gailu berria zure Google kontuarekin.
- Musika eta beste dokumentu-fitxategi batzuk: egin eskuz gailu zaharreko multimedia-fitxategien segurtasun-kopia bat Google Drive erabiliz. Ondoren, sinkronizatu gailu berria zure Google kontuarekin.

Informazio gehiago lortzeko, jo *Segurtasun-kopia eta Google kontu batekin sinkronizatzea* atalera (45. orrialdea).

Datuen transferentzia egitea ordenagailu batekin

Zure gailuan datu-bolumen handiak metatu behar badituzu, ordenagailu bat erabiliz transferitu ditzakezu zure datuak. Informazio gehiago lortzeko, jo *Ordenagailu bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea* atalera (46. orrialdea).

Datuak SD txartel batekin transferitzea

Multimedia artxiboak eta kontaktuak transferitzeko, SD txartel bat erabil dezakezu. Informazio gehiago lortzeko, jo *Memoria-txartel bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea* atalera (46. orrialdea).

Gailuaren segurtasuna

Gailuaren babes-bermea

Gailuak segurtasun-aukerak ditu. Oso gomendagarria da aukera horiek erabiltzea, gailua galdu edo lapurtuz gero.

Oharra

Zure gailua babesteko segurtasun-aukera bat erabiltzen baduzu, funtsezkoa da konfiguratzean emandako datuez gogoratzea.

Pantaila-blokeoa

Ezarri pantaila-blokeo seguru bat zure gailuan PIN bat, pasahitz bat, eredu bat edo hatz-marka bat erabiliz, zure gailua baimenik gabe erabiltzea galarazteko. Pantaila-blokeoa ezarri ondoren, ezingo da pantaila desblokeatu ez edukia ezabatu **Borrar todos los datos** aukeraren bidez, baldin eta pantaila blokeatzeko informazioa ematen ez bada.

Nire gailua bilatzea

Galdutako gailu bat lokalizatu, blokeatu edo desblokeatzeko edo bere edukia urrundik ezabatzeko, erabili **Encontrar mi dispositivo** zerbitzua. Zure Google kontuan saioa hasten duzunean, modu lehenetsian aktibatzen da **Encontrar mi dispositivo** aukera.

SIM txartela blokeatzea

Blokeatu zure SIM txartelak PIN batekin, zure harpidetza erabilera okerren aurka babesteko. Telefonoa berrabiarazten den guztietan eskatzen da PINa.

IMEI zenbakia

Gorde IMEI zenbakiren kopia bat. Gailua lapurtuz gero, sareko hornitzaile batzuek zenbaki hori erabil dezakete gailua zure herrialde edo eskualdeko sarera sar dadin galarazteko.

Segurtasun-kopia

Egin zure gailuko edukiaren segurtasun-kopia bat, hondatu, galdu edo lapurtzen dizutenerako.

- Google kontu batekin segurtasun-kopia bat egiteko, jo *Segurtasun-kopia eta Google kontu batekin sinkronizatzea* atalera (45. orrialdea).
- Ordenagailu batekin segurtasun-kopia bat egiteko, jo *Ordenagailu bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea* atalera (46. orrialdea).
- Ordenagailu batekin segurtasun-kopia bat egiteko, jo *Memoria-txartel bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea* atalera (46. orrialdea).

Pantaila-blokeoa

Pantaila blokeatuta dagoenean, desblokeatu egin beharko duzu hatza pasaz edo zure eredu pertsonalaren bidez, PINa edo pasahitza idatziz edo hatz-markaren bidez. Hasieran, telefonoa konfiguratuta dago hatza pantailatik babesik gabe pasatzeko, baina pantaila blokeatzeko modu seguruago bat erabiltzea gomendatzen da, gailua babesteko.

Hona hemen blokeo-mota bakoitzaren segurtasun-maila, babesaren goranzko ordenan:

- **Hatza pasatzea:** babesik gabea, baina azkar sartu ahal izango duzu pantaila nagusira.
- **Eredua:** hatzarekin eredu erraz bat marrazten da gailua desblokeatzeko.
- **PINa:** gutxienez lau digituko zenbakizko PIN bat sartu behar da gailua desblokeatzeko.
- **Pasahitza:** gailua desblokeatzeko pasahitz alfanumeriko bat ezarri dezakezu.
- **Hatz-marka:** erregistratutako hatza sentsorean jarri behar da gailua desblokeatzeko.


Irakokizuna

Smart Lock funtzioaren bidez, egoera jakin batzuetan automatikoki desblokeatzeko konfiguratu dezakezu zure gailua (adibidez, bluetooth gailu batera konektatzen duzunean edo gainean daramazunean). Informazio gehiagorako, joan <http://www.support.google.com/> helbidera eta bilatu «Smart Lock».

Pantaila-blokeoa sortzea edo aldatzea

Oharra

Oso garrantzitsua da pantaila blokeatzeko hautatu duzun aukeraz gogoratzea eredu, PIN edo pasahitz bat erabiltzen duzunean. Informazio hori ahazten baduzu, gerta daiteke datu garrantzitsu batzuk ezin berreskuratu ahal izatea (adibidez kontaktuak eta mezuak).

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Bloqueo de pantalla**.
- 2 Eskatuz gero, berretsi egungo pantaila-blokeoa. Hautatu aukera bat, eta segi pantailako jarraibideei. Pantaila-blokeo segurua bat erabiliz gero, aukera hauek ezar ditzakezu: pizteko teklak pantaila blokeatzea, pantaila-blokeoa aktibatzeke unea konfiguratzeko edo pantaila blokeatzeko mezu bat sortzea  ukituz (doikuntzen ikonoa).

Irakokizuna

Microsoft® Exchange ActiveSync® (EAS) kontu bat erabiltzen baduzu, litekeena da EASen segurtasun-doikuntzek pantaila blokeatzeko moduak mugatzea, eta soilik PINa edo pasahitza erabiltzen uztea. Jarri harremanetan sareko administratzailearekin ezarritako sareko segurtasun-politikak egiaztatzeke.

Hatz-marken administratzailea

Erregistratu zure hatz-marka gailua desblokeatzeko edo erosketak kautotzeko segurtasun-metodo gehigarri gisa erabiltzeko. 5 hatz-markara arte erregistra ditzakezu zure gailuan.

Pantaila blokeatzeko hatz-marka erabiltzen baduzu, desblokeatzeko metodo osagarri gisa erabili ahal izango duzu eredu, PIN edo pasahitz bidezko pantaila-blokeoa. Hatz-marka erregistratu aurretik, ziurtatu sentsorea garbi dagoela eta ez duela ageriko hezetasunik.


Hatz-markak lehen aldiz erregistratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Administrador de huellas dactilares**.
- 2 Sakatu **Siguiente**. Eskatuz gero, berretsi eredu, PINa edo pasahitza, edo aukeratu pantaila blokeatzeko metodo osagarria, eta segi pantailan ageri diren jarraibideei konfiguratzeko.
- 3 Sakatu **Siguiente**, eta jarraitu pantailan agertuko diren jarraibideei hatz-marken erregistroa osatzeko.

Hatz-marka gehigarriak erregistratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Administrador de huellas dactilares**.
- 2 Berretsi eredua, PINa edo pasahitza.
- 3 Sakatu **Añadir huella digital** eta, ondoren, segi pantailan agertzen diren jarraibideei.

Erregistratutako hatz-marka bat ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Administrador de huellas dactilares**.
- 2 Berretsi eredua, PINa edo pasahitza.
- 3 Sakatu  (ezabatzeko ikonoa) hatz-marka digitala ezabatzeko.

Erregistratutako hatz-marka bat berrizendatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Administrador de huellas dactilares**.
- 2 Aukeratu zerrendatik erregistratutako hatz-marka bat, eta, ondoren, sartu izen bat, eta sakatu **Aceptar**.

SIM txartela babestea

Zure gailuan erabiltzen duzun SIM txartel bakoitza PIN baten bidez blokeatu eta desblokeatu dezakezu. SIM txartel bat blokeatuta dagoenean, txartelarekin lotutako harpidetza babestuta dago erabilera desegokien aurrean. Horrek esan nahi du, gailua abiarazten duzun bakoitzean, PIN bat sartu beharko duzula.

PIN okerra gehiegitan idazten baduzu, SIM txartela blokeatu egingo da. Ondoren, zure PUKa sartu beharko duzu (desblokeatzeko pasahitz pertsonala), eta, ondoren, beste PIN bat. Sare-operadoreak emango dizkizu PIN eta PUK kodeak.

SIM txartelaren blokeoa konfiguratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Bloqueo de tarjeta SIM**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Funtzioa gaitzeko, hautatu **Bloquear tarjeta SIM** etengailua.
- 4 Sartu SIM txartelaren PINa, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**. SIM txartelaren blokeoa aktibatuta dago, eta, gailua berrabiarazten duzun bakoitzean, PINa sartu beharko duzu.

SIM txartelaren PIN kodea aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Bloqueo de tarjeta SIM**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Sakatu **Cambiar PIN de la tarjeta SIM**.
- 4 Sartu SIM txartelaren aurreko PINa, eta sakatu **Aceptar**.
- 5 Sartu SIM txartelaren PIN berria, eta sakatu **Aceptar**.
- 6 Sartu berriro SIM txartelaren PIN berria, eta sakatu **Aceptar**.

Blokeatutako SIM txartel bat PUK kodearen bidez desblokeatzea

- 1 Sartu PUK kodea, eta sakatu ✓ (onartzeko ikonoa).
- 2 Sartu beste PIN kode berri bat, eta sakatu ✓ (onartzeko ikonoa). Sartu berriro PIN kode berria, eta sakatu ✓ (onartzeko ikonoa).

Oharra

PUK kode okerra gehiegitan sartzen baduzu, sare-operadorearekin jarri beharko duzu harremanetan beste SIM txartel bat lortzeko.

Bi SIMeko gailuen erabilera

Bi SIMeko gailu bat erabiltzen baduzu, SIM txartel bat edo bi sartuta funtziona dezake. Sarrerako deiak bi SIM txartelekin jaso ditzakezu, eta irteerako deiak zer zenbakitatik egitea nahi duzun aukeratu dezakezu. SIM txartel bat baino gehiago erabili ahal izateko, gaitu egin behar dituzu, eta datu-trafikoa kudeatuko duen SIM txartela hautatu behar duzu.

Halaber, SIM1 txartelean jasotzen dituzun deiak SIM2 txartelera birbidali ditzakezu SIM1 txartela erabilgarri ez dagoenean, eta alderantziz. Funtzio horri Bi SIMetarako sarbidea deitzen zaio, eta eskuz gaitu behar da. Jo *Deiak birbidaltzea* atalera (70. orrialdea).

Bi SIM txartel erabiltzeko aukera gaitu edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Ajustes avanzados > Doble SIM**.
- 2 SIM txartelak gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **SIM1** eta **SIM2** etengailuak.

SIM txartel bat berrizendatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Ajustes avanzados > Doble SIM**.
- 2 Hautatu SIM txartel bat, eta sartu beste izen bat.
- 3 Sakatu **Aceptar**.



Datu-trafikoa kudeatzen duen SIM txartela hautatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Ajustes avanzados > Doble SIM > Datos móviles**.
- 2 Hautatu datu-trafikorako erabili nahi duzun SIM txartela.


Gailuaren IMEI zenbakiak bilatzea

Zure gailuak identifikazio-zenbaki eskusibo bat edo bi ditu. Zenbaki horiei IMEI edo produktuaren IDa deitzen zaie. Horien kopia bat gorde behar duzu; izan ere, litekeena da behar izatea gailua lapurtuz gero edo laguntza-zerbitzuarekin harremanetan jartzeko.

IMEI zenbakiak markaketa-teklatuarekin ikustea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (markaketa-teklatuaren ikonoa).
- 3 Sartu ***#06#** markaketa-teklatuan. IMEI zenbakiak automatikoki agertzen dira.

IMEI zenbakiak etiketan ikustea



- 1 Atera SIM txartelaren erretilua.
- 2 Atera memoria-txartela zirrikitutik.
- 3 Arrastatu txartela kanporantz azazkalarekin. IMEI zenbakiak hor agertzen dira.

Galdutako gailua bilatu, blokeatu edo ezabatzea

Googlek segurtasunerako eta kokapenerako web-zerbitzu bat eskaintzen du, **Encontrar mi dispositivo** izenekoa. Zure Google kontuan saioa hasten duzunean, modu lehenetsian aktibatzen da **Encontrar mi dispositivo** aukera. Gailua galduz gero, **Encontrar mi dispositivo** zerbitzua erabil dezakezu:

- Zure gailua aurkitu eta mapan kokatzeko.
- Gailua blokeatu eta blokeo-pantailan mezu bat agertzeko.
- Desblokeatu eta lehengoratzeko, edukia ezabatuz.
- Txirrina aktibatzeko, soinua desaktibatuta egon arren.

Zure gailuak piztuta egon behar du, Interneteko konexioa izan behar du eta kokapen-zerbitzua aktibatuta eduki behar du. Baliteke **Encontrar mi dispositivo** zerbitzua ez egotea eskuragarri herrialde edo eskualde guztietan.

Encontrar mi dispositivo zerbitzuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, joan <https://support.google.com/> helbidera, eta bilatu «Encontrar mi dispositivo».

Zure gailua aurki daitekeen egiaztatzea

- Joa <https://www.google.com/android/fnd> helbidera, eta hasi saioa zure Google kontuaren bidez.

Kokapen-zerbitzuak erabiltzea

Kokapen-zerbitzuen bitartez, aplikazioek (adibidez, Mapak) eta kamerak zure sare mugikorren edo wifiaren informazioa eta posizionamendu globalaren sistema (GPS) erabil ditzakete gutxi gorabeherako kokapena zehazteko. GPS sateliteentzako ikuspen-lerro argi baten barruan ez badago, gailuak wifiaren bidez zehaztu dezake bere kokapena. Eta sare baten barrutian ez badago, gailuak sare mugikorra erabiliz zehaztu dezake bere kokapena.


Gailua non dagoen jakiteko erabili nahi baduzu, kokapen-zerbitzuak gaitu behar dituzu.

Kokapen-zerbitzuak gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Ubicación**.
- 2 Sakatu etengailua kokapen-zerbitzuak gaitu edo desgaitzeko.

GPSaren doitasuna hobetzea


Gailuan GPS funtzioa lehen aldiz erabiltzen duzunean, sistemak zenbait minutu iraun dezake zure kokapena aurkitzen. Bilaketa errazago egin ahal izateko, zerua garbi egotea komeni da. Gelditu, eta ez estali GPS antena. GPS seinaleek lainoak eta plastikoa zeharka ditzakete, baina objektu solido gehienak ez (adibidez, eraikinak eta mendiak). Minutu gutxi igarotakoan zure kokapena lokalizatzea lortu ez baduzu, joan beste toki batera.



Oinarrizko ezaugarriak ikastea


Ukimen-pantaila erabiltzea

Ukitzea




- Ireki edo aukeratu elementu bat.
- Jarri edo kendu kontrol-lauki edo aukera bat.
- Idatzi testua pantailako teklatura erabilia.

Luze sakatu




- Mugitu elementu bat.
- Aktibatu hautaketa-modua, adibidez, zerrenda bateko zenbait elementu aukeratzeko.

Hatzak banandu edo elkartu zoom-a egiteko



- Banandu edo elkartu hatzak web-orri, argazki eta mapen gainean eta argazkiak ateratzen edo bideoak grabatzen ari zarenean.


Hatzak irristatu eta mugitu



- Mugitu gorantz eta beherantz, edo ezkerreko eta eskuineko aldeko.
- Pasatu hatza ezkerreko edo eskuineko aldeko, adibidez pantaila nagusiko panelak ikusteko.

Alboko sentsorearen erabilera


Alboko sentsorearen barra baliatuta, esku batez erabil daiteke gailua. Alboko sentsorearen menua agertzeko, uku bi aldiz alboko sentsorearen barra pantailaren ertzean, edo itzuli aurreko pantailara hatza pantailan irristatuz. Ziurtatu hatza alboko sentsorearen barraren barruan uku edo irristatzen duzula.



Oharra

Egoera jakin batzuetan, alboko sentsorea ez da erabilgarri egoten (adibidez, Ultra STAMINA modua aktibatuta dagoenean edo pantaila-ikuspegi etzanean).

Alboko sentsorearen menua agertzea



- Alboko sentsorearen menua aktibatzeko, sakatu bi aldiz alboko sentsorearen barra.

Iradokizuna

Alboko sentsorearen menutik ateratzeko, sakatu bi aldiz alboko sentsorearen barra edo sakatu pantailaren eremu huts bat.

Aurreko pantailara itzultzea, alboko sentsorea erabilia.



- Aurreko pantailara itzultzeko, pasa hatza gorantz edo beherantz alboko-sentsorearen barratik.

Alboko sentsorea aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Pantalla > Ajustes avanzados**.
- 2 Sakatu alboko sentsorea.
- 3 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu etengailua.

Alboko sentsorearen doikuntzak

Alboko sentsorearen menua

Hautatu alboko sentsorearen menuaren diseinua, eta menu hori blokeo-pantailan agertzea nahi duzun ala ez.

Alboko sentsoaren barraren sentsibilitatea

Doitu alboko sentsorearen barra nola erabili nahi duzun.

Alboko sentsorearen barraren konfigurazioa

Sakatu gaitutako sentsorea alboko sentsorea pantailaren alde batean edo bietan erabiliko den aukeratzeko. Funtzioa aldi baterako desgaitzeko, sakatu **Deshabilitar Sensor lateral temporal** etengailua. Erabili kontrol lerragarria alboko sentsorearen barraren luzera, gardentasuna eta kokapena doitzeko.

Itzuli

Aukeratu aurreko pantailara itzultzeko alboko sentsorearen barra erabili nahi duzun.

Keinuak onartzen dituzten aplikazioak hautatzea

Zehaztu zer aplikazio erabili nahi dituzun alboko sentsorearekin.

Pantaila piztu edo itzaltzea

Gailua piztuta badago eta denbora zehatz batez ez-aktibo egoten bada, pantailaren argia moteldu eta itzali egiten da, bateria aurrezteko. Itzali aurretik pantaila aktibo egoten den denbora alda dezakezu.

Pantaila itzalita dagoenean, gailua blokeatuta edo desblokeatuta egon daiteke, pantailaren blokeo-doikuntzaren arabera. Jo *Pantaila-blokeoa* atalera (13. orrialdea).

Pantaila piztea edo itzaltzea

- Labur sakatu pizteko tekla.

Pantaila itzali aurretik zenbat denbora igaro behar den zehaztea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Pantalla > Suspendir después de**.
- 2 Hautatu aukera bat.

Atzeko argiztapen adimentsua

Atzeko argiztapen adimentsuaren bitartez, pantaila piztuta mantentzen da gailua eskuan daukagun bitartean. Gailua uztean, itzali egiten da pantaila, etenaldietarako konfigurazioaren arabera.


Atzeko argiztapen adimentsuaren funtzioa gaitu edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Pantalla > Ajustes avanzados > Retroiluminación inteligente**.
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu etengailua.

Pantaila nagusia

Pantaila nagusia abiapuntua da zure gailua erabiltzeko. Ordenagailu bateko mahaigainaren antzekoa da. Pantaila nagusian dagoen panel-kopurua barra baten bidez irudikatzen da behealdean. Barraren posizioak une horretan agertzen den panela adierazten du.

Pantaila nagusira joatea

- Sakatu  (hasteko botoia).

Pantaila nagusia aztertzea




Pantaila nagusia bira dadin baimentzea

- 1 Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat aukeren menua ireki arte.
- 2 Sakatu **Ajustes de la pantalla de inicio**.
- 3 Sakatu **Permitir rotación de la pantalla de inicio** etengailua.

Aplikazioen pantaila

Aplikazioen pantaila pantaila nagusitik irekitzen da. Pantaila horretan daude zure gailuan aurreinstalaturako aplikazioak eta deskargaturako aplikazioak.



Aplikazioen pantailako aplikazio guztiak ikustea

- Pasatu hatza gorantz pantaila nagusian, eta, ondoren, mugitu gorantz edo beherantz aplikazioen pantailan, aplikazio guztiak ikusi ahal izateko.

Aplikazio bat irekitzea aplikazioen pantailatik

- Aplikazioen pantaila irekita dagoela, pasatu hatza gorantz aplikazioa bilatzeko, eta, ondoren, ukitu aplikazioa.

Aplikazioen pantailan aplikazio bat bilatzea

- 1 Aplikazioen pantaila irekita dagoela, sakatu **Buscar aplicaciones**.
- 2 Idatzi bilatu nahi duzun aplikazioaren izena.

Aplikazioen pantailako aplikazioak ordenatzea

- 1 Aplikazioen pantaila irekita dagoela, sakatu \equiv (menuaren ikonoa).
- 2 Sakatu **Ordenar aplicaciones** eta, ondoren, hautatu aukera bat.

Pantaila nagusian aplikazio baterako lasterbidea gehitzea

- 1 Aplikazioen pantailan, luze sakatu aplikazio baten ikonoa gailuak dar-dar egin arte, eta, ondoren, irristatu ikonoa gorantz. Pantaila nagusia irekiko da.
- 2 Irriatu ikonoa pantaila nagusian nahi duzun lekura arte, eta, ondoren, askatu.


Aplikazioen pantailan aplikazio bat mugitzea

- 1 Aplikazioen pantailan, sakatu \equiv (menuaren ikonoa).
- 2 Ziurtatu **Ordenar aplicaciones** aukeran **Orden propio** aukeratuta dagoela.
- 3 Luze sakatu aplikazioa, telefonoak dar-dar egin arte. Ondoren, irristatu kokaleku berrira.

Aplikazioetan nabigatzea

Aplikazio batetik bestera mugitzeko, nabigazio-botoiak eta azkena erabilitako aplikazioen leihoa erabil ditzakezu. Nabigazio-botoiak atzera egiteko botoia eta hasteko botoia dira. Halaber, bi aplikazio aldi berean ireki ditzakezu pantailan, pantaila zatituaren modua erabiliz, baldin eta aplikazioak leiho bat baino gehiagoko funtzioa onartzen badu.

Aplikazioetan nabigatzeari buruzko deskribapen orokorra




- 1 Itxi dena: azkena erabilitako aplikazio guztiak ixteko.
- 2 Azkena erabilitako aplikazioen leihoa: azkena erabilitako aplikazio bat irekitzeko.
- 3 Hasteko botoia: aplikazio batetik ateratzeko, eta pantaila nagusira itzultzeko.
- 4 Atzera egiteko botoia: aurreko pantailara itzultzeko, aplikazio baten barruan edo aplikazioa ixteko.



Azkena erabilitako aplikazioen leihoa irekitzea

- Pasatu hatza gorantz  (hasteko botoia) gainean.

Azkena erabilitako aplikazio guztiak ixtea

- 1 Pasatu hatza gorantz  (hasteko botoia) gainean.
- 2 Pasatu hatza leihoaren eskuineko ertzeraino, eta, ondoren, sakatu **Borrar todo**.

Aplikazio baten menua irekitzea

- Erabiltzen ari zaren aplikazioan, sakatu  (menuaren ikonoa) edo  (aukeren ikonoa).


Oharra

Aplikazio guztiek ez dute menu bat.

Pantaila zatituaren modua

Pantaila zatituaren bidez, bi aplikazio ikus daitezke aldi berean (adibidez, posta elektronikoaren sarrerako ontzia eta web-nabigatzaile bat).

Pantaila zatituaren deskribapen orokorra




- 1 aplikazioa
- 2 Pantaila zatituaren ertza: leihoen tamaina aldatzeko irristatzeko.
- 3 2 aplikazioa
- 4 Hasteko botoia: pantaila nagusira itzultzeko.
- 5 Atzera egiteko botoia: aurreko pantailara itzultzeko.

Oharra

Aplikazio guztiek ez dute onartzen pantaila zatituaren modua.

Pantaila zatitua erabiltzea



- 1 Ziurtatu pantaila zatituan erabili nahi dituzun bi aplikazioak irekita daudela eta atzeko planoan exekututzen ari direla.
- 2 Azkena erabilitako aplikazioen leihoa irekitzeko, pasatu hatza gorantz  (hasteko botoia) botoian.
- 3 Pantaila zatituan erabili nahi duzun aplikazioa bilatzeko, pasatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz.
- 4 Sakatu aplikazioen leihoaren goialdean dagoen aplikazioaren ikonoa, eta, ondoren, sakatu **Dividir pantalla**.
- 5 Aukeratu erabil nahi duzun bigarren aplikazioa. Pantaila zatituko leihoen tamaina aldatu nahi baduzu, irristatu pantaila zatituaren erdiko ertza.

- 6 Pantaila zatituaren modutik irteteko, irristatu pantaila zatituaren ertza pantailaren goialderaino.




Esku bakarreko modua

Gaitu **Modo a una mano** pantailaren tamaina doitzeko eta, hala, esku batez errazago idatzi ahal izateko.

Esku bakarraren modua gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Pantalla > Ajustes avanzados > Modo a una mano**.
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Modo a una mano** etengailua.
- 3 Pantaila txikitzeko, sakatu  (hasteko botoia) bi aldiz.
- 4 **Modo a una mano** modutik irteteko, sakatu  (hasteko botoia) bi aldiz edo sakatu pantailako eremu huts bat.

Pantailaren posizioa doitzea

- 1 Pantaila ezkerrerantz edo eskuinerantz mugitzeko, sakatu  (dataren ikonoa ezkerrerantz) edo  (dataren ikonoa eskuinerantz), dagokionaren arabera.
- 2 Pantaila gorantz edo beherantz mugitzeko, irristatu pantaila birdimentsionatuaren ertzean dauden banda horizontalak.
- 3 Pantailaren tamaina aldatzeko, irristatu pantaila birdimentsionatuaren ertzean dagoen  (Pantailaren tamaina aldatzeko ikonoa) ikonoa.

Iradokizuna

Pantaila osoko modura itzultzeko, sakatu pantailako eremu huts bat.

Widgetak

Zuzenean pantaila nagusian erabil ditzakezun aplikazio txiki batzuk dira widgetak. Lasterbide gisa ere funtzionatzen dute. Adibidez, egutegiaren widgetaren bidez, zuzenean ikus dezakezu zure programazioa pantaila nagusian. Widgeta ukitzean, erabat irekitzen da **Tiempo** aplikazioa. Google Playn deskarga ditzakezu widget gehiago.

Pantaila nagusira widgetak eranstea

- 1 Luze sakatu zure pantaila nagusiko eremu huts bat gailuak dar-dar egin arte, eta, ondoren, sakatu **Widgets**.
- 2 Luze sakatu gehitu nahi duzun widgeta, eta, ondoren, irristatu nahi duzun kokalekura.

Widget baten tamaina aldatzea

- 1 Luze sakatu widget bat, gailuak dar-dar egin arte. Ondoren, askatu.
- 2 Irriatu puntuak widgeta txikitu edo handitzeko.
- 3 Tamaina berria berresteko, sakatu pantaila nagusiko edozein eremu.

Widget bat mugitzea

- Luze sakatu widgeta, telefonoak dar-dar egin arte. Ondoren, irristatu kokaleku berrira.


Widget bat kentzea

- Luze sakatu widgeta, telefonoak dar-dar egin arte. Ondoren, irristatu **Quitar** aukerara.

Lasterbideak eta karpetak

Erabili lasterbideak eta karpetak zure aplikazioak administratu eta pantaila nagusia txukun mantentzeko.

Lasterbideen eta karpeten deskribapen orokorra



- 1 Aplikazio batean sartzeko lasterbide bat erabiliz.
- 2 Aplikazioak dituen karpeta batean sartzeko.

Pantaila nagusian elementu bat aldatzea

- Luze sakatu elementua gailuak dar-dar egin arte. Ondoren, irristatu kokaleku berrira. Elementua eskuineko ertzerantz irristatzean, beste panel bat gaineratzen da pantaila nagusian.

Pantaila nagusiko elementu bat ezabatzea

- Luze sakatu elementua gailuak dar-dar egin arte, eta, ondoren, irristatu elementua **Quitar** aukerara. Elementurik ez duten panelak automatikoki ezabatuko dira.

Pantaila nagusian karpeta bat sortzea

- Luze sakatu aplikazio baten ikonoa edo lasterbide bat gailuak dar-dar egin arte, eta irristatu eta askatu ikonoa aplikazioko edo mahaigaineko beste ikono batean.

Pantaila nagusiko karpeta batean elementuak gehitzea

- Luze sakatu elementua gailuak dar-dar egin arte, eta, ondoren, irristatu elementua karpetara.

Pantaila nagusiko karpeta baten izena aldatzea

- 1 Sakatu karpeta ireki ahal izateko.
- 2 Sakatu karpetaren izenaren barra, testua idazteko eremu bat agertzeko.
- 3 Idatzi karpetaren izen berria.

Atzealdeak

Gailuak atzealde lehenetsi bat du, baina erabiltzaileak pantaila nagusia eta pantaila-blokeoa egokitu ditzake bere estiloaren arabera, kolore eta eredu desberdinetako atzealdeak erabiliz.

Atzealde bat erabil daiteke pantaila nagusiko eta pantaila blokeatzeko beste elementurik aldatu gabe. Atzealde aktiboen bidez, ikusizko efektuak gaineratzen dira ukimen-pantailarekin dituzun interakzioetan, eta pantaila dinamikoki aldatzen da.

Atzealdea aldatzea

- 1 Luze sakatu zure pantaila nagusiko eremu huts bat gailuak dar-dar egin arte.
- 2 Sakatu **Fondos**.
- 3 Hautatu atzealdea, eta sakatu **Establecer fondo**.
- 4 Hautatu aukera bat.

Irakokizuna

Argazki bat ere erabil dezakezu atzealde gisa. Eskainitako aukeren artean atzealde bat aukeratu beharrean, sakatu **Mis fotos**, eta aukeratu argazki bat.

Pantaila-argazki bat egitea

Pantaila-argazkiaren bidez, gailuko edozein pantailatako irudi finkoak atzeman ditzakezu. Pantaila-argazkiak automatikoki gordetzen dira **Álbum** aplikazioan.

Pantaila-argazkia egitea

- 1 Luze sakatu pizteko tekla aukeren menua ireki arte.
- 2 Sakatu **Captura de pantalla**.

Irakokizuna

Halaber, pantaila-argazki bat egin dezakezu pizteko tekla eta bolumena jaisteko tekla aldi berean sakatuz.

Zure pantaila-argazkiak ikustea


- 1 Sakatu bi aldiz egoera-barra jakinarazpen-panela agertzeko.
- 2 Sakatu pantaila-argazkia

Jakinarazpenak

Jakinarazpen-panelak ekintzen berri ematen dizu, esate baterako: mezu berriak edo egutegiko jakinarazpenak dituzula, eta jarduerak abian daudela (adibidez, fitxategien deskargak). Jakinarazpenak toki hauetan bistaratuko dira:

- Egoera-barra
- Jakinarazpen-panela
- Blokeo-pantaila
- Aplikazioaren ikonoa

Jakinarazpen-panela irekitzea edo ixtea



- 1 Jakinarazpen-panela irekitzeko, irristatu beheantz egoera-barra edo, besterik gabe, ukitu bi aldiz.
- 2 Jakinarazpen-panela ixteko, irristatu edo pasatu hatza gorantz panelean.

Iradokizuna

Jakinarazpen-panela ireki ondoren, doikuntza azkarren panelera sar zaitezke, berriz ere, egoera-abarra beheantz irristatuz.

Jakinarazpen-paneleko jakinarazpen bati kasu egitea

- Sakatu jakinarazpena.

Jakinarazpen-paneleko jakinarazpen bat baztertzea

- Pasatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz jakinarazpenean.

Oharra

Jakinarazpen batzuk ezin dira baztertu.

Iradokizuna

Jakinarazpen bat atzeratzeko, irristatu jakinarazpena mantso albo batera, eta sakatu ⌚ (atzeratzeko ikonoa). Jakinarazpenak 15 minutu, 30 minutu, 1 ordu edo 2 ordu atzera daitezke.

Jakinarazpen bat jakinarazpen-panelean zabaltzea

- Sakatu ▼ (aukera gehiagoren ikonoa) zabaltzeko eta jakinarazpenari buruzko informazio gehiago ikusteko, aplikazioa ireki gabe.

Jakinarazpen-paneleko jakinarazpen guztiak ezabatzea

- Sakatu **Borrar todo**.

Irakokizuna

Jakinarazpenen zerrenda luzea bada, joan beherantz **Borrar todo** botoia agertu arte.

Blokeo-pantailako jakinarazpen bati kasu egitea

- Sakatu bi aldiz jakinarazpena.

Blokeo-pantailako jakinarazpen bat baztertzea

- Pasatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz jakinarazpenean.

Blokeo-pantailan jakinarazpen bat zabaltzea

- Irristatu beherantz jakinarazpena.

Jakinarazpenak blokeo-pantailan bistartzeko aukerak

Jakinarazpenik ez erakustea

Blokeo-pantailan ez duzu jakinarazpenik jasoko.

Jakinarazpenen eduki guztia bistaratzea

Jakinarazpen guztiak jasoko dituzu blokeo-pantailan. Doikuntza hori aktibatuta dagoenean, kontuan izan eduki guztia (jasotako posta elektronikoko eta txateko mezuen edukia barne) ikusgai egongo dela blokeo-pantailan, baldin eta aplikazio horiek **Ocultar contenido sensible** gisa izendatzen ez badira **Configurar notificaciones** doikuntza-menuan.

Eduki konfidentziala ezkutatzea

Doikuntza hori erabili ahal izateko, PIN bat, pasahitz bat edo eredu bat konfiguratu behar duzu pantaila-blokeo gisa. Jasotako mezu elektronikoko edo txat bati buruzko jakinarazpen konfidentzial bat jasotzen duzunean, edukia ez da agertuko blokeo-pantailan.

Blokeo-pantailan zer jakinarazpen agertuko diren aukeratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones > Configurar notificaciones**.
- 2 Sakatu **Mostrar notificaciones**.
- 3 Hautatu aukera bat.

Irakokizuna

Jakinarazpenak blokeo-pantailan eduki ditzakezu, hatza pasatu arte, horiek baztertzeko. Funtzio hori gaitzeko, sakatu **Mantener notificaciones** etengailua **Configurar notificaciones** atalean.

Aplikazio baterako jakinarazpen-maila zehaztea

Aplikazio baten jakinarazpenak nola jaso nahi dituzun zehaztu dezakezu.

Aplikazio baterako jakinarazpen-maila zehaztea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aukeratu nahi duzun aplikazioa, eta sakatu **Notificaciones**.
- 3 Sakatu etengailuak jakinarazpen-doikuntzak nahi dituzun eran konfiguratzeko.

Jakinarazpen-argia

Jakinarazpen-argiak bateriaren egoeraren eta beste gertaera batzuen berri ematen dizu. Adibidez, argi zuri keinukariak adierazten du mezu berri bat edo dei galdu bat duzula. Jakinarazpen-argia modu lehenetsian dago gaituta, baina eskuz desgaitu dezakezu.



Oharra

Jakinarazpen-argia desgaituta dagoenean, bateriaren egoerari buruzko ohar bat dagoenean bakarrik pizten da (adibidez, bateriaren maila % 15etik beherakoa denean).

Jakinarazpen-argia gaitu edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones > Configurar notificaciones**.
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Usar LED para mostrar notificaciones** etengailua.

Egoera-barrako ikonoak

Egoera-ikonoak

	Seinalearen intentsitatea. Sare mugikorren modua bistaritzen da baita datu mugikorrek bidali eta deskargatzen direnean ere.
	Seinalerik gabe.
	Ibiltaritza
	Wifi bidezko konexio bat dago gaituta, eta datuak transmititzen ari da.
	Wifi bidezko konexio bat dago gaituta, baina ez du Interneteko konexiorik. Atari kautu baten sarera edo babestutako wifi-sare batera konektatzen saiatzen zarenean ere agertuko da ikono hori. Saioa ondo abiarazi ondoren, gurutzea desagertu egiten da. Google blokeatuta baldin badago zure eremuan, baliteke gurutzea bistaritzea nahiz eta gailua sare batera konektatuta egon eta wifi bidezko Interneteko konexioa egon.
	Bateriaren egoera Gutxi gorabehera zenbat bateria geratzen zaizun ere bistaritzen da ehunekotan.
	Bateria kargatzen ari da Gutxi gorabehera zenbat bateria geratzen zaizun ere bistaritzen da ehunekotan.
	Hegazkin modua aktibatuta dago
	Mikrofonoa isilik dago.
	Bozgorailua aktibatuta dago.
	Ez molestatzeko modua aktibatuta dago.
	Modu isila
	Bibrazio modua
	Alarma konfiguraturata.
	GPSa aktibatuta
	Sinkronizazioa martxan dago.
	Arazoa saioa hastean edo sinkronizatzean

Oharra

Zure zerbitzu-hornitzailearen, sarearen edo eskualdearen arabera, litekeena da zerrenda honetako ikono batzuei dagokien funtzioa edo zerbitzua ez egotea erabilgarri.

Jakinarazpen-ikonoak

	Testu- edo multimedia-mezu berria
	Deitzen ari da.
	Dei galdua.
	Deia zain uztea.
	SIM bakarreko gailua: deiak desbideratzeko modua aktibatuta.
	Bi SIMeko gailua: deiak desbideratzeko modua aktibatuta.
	Ahots-postontzian mezu berria
	Mezu elektronikoa berria
	Datuak deskargatzen
	Datuak kargatzen
	Datu mugikorrek desgaituta
	Gailuaren oinarritzko konfigurazioa
	Sistemaren eguneraketak erabilgarri
	Sistemaren eguneraketak deskargatzen
	Sistemaren eguneraketa deskargatuak instalatzen.
	STAMINA modua aktibatuta.
	Ultra STAMINA modua aktibatuta
	Bateriaren zainketa aktibatuta.
	Egindako pantaila-argazkia.
	Bideo-txata lagunekin, Duo aplikazioaren bidez.
	Abestia erreproduzitzen.
	Gailua ordenagailu batera konektatuta dago, USB kable baten bidez.
	Barne-biltegiaren % 75 beteta dago: ukitu aukera hori datuak memoria-txartelera transferitzeko.
	Alboko sentsoarearen deskribapen bat dago.
	Abisua.
	<ul style="list-style-type: none">Ikusten ez diren jakinarazpen gehiago.

Oharra

Ez daude zerrendan gailuan agertzen diren ikono guztiak. Zerrenda honek erreferentzia gisa balio du, eta baliteke aldaketak egitea aurrez abisatu gabe.

Aplikazioek jakinarazpenak bidal ditzaten galaraztea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Hautatu nahi duzun aplikazioa, eta, ondoren, sakatu **Notificaciones**. Sakatu **Mostrar notificaciones** etengailua, aplikazio-jakinarazpenak blokeatzeko.

Bateria eta mantentze-lanak

Gailua kargatzea

Erabili beti jatorrizko Sony kargagailu bat eta zure Xperia eredurako zehaztutako USB Type-C™ kable bat. Beste kargagailu eta kable batzuk erabiliz gero, gerta daiteke denbora gehiago behar izatea gailua kargatzeko behar den denbora edo kargatu gabe utz dezakete, eta batzuek gailua bera honda dezakete. Kablea sartu baino lehen, ziurtatu USB ataka eta konektore guztiak erabat lehor daudela.

Bateria guztiz deskargatu bada, litekeena da 30 minutu arte pasatzea gailuak kargari erantzun gabe. Denbora horretan, pantaila erabat beltz egoten da, eta ez da karga-ikonoa ere agertzen. Guztiz deskargatuta badago, litekeena da bateriak 4 ordu arte behar izatea guztiz kargatzeko. Giro-tenperaturak eragina izan dezake karga-abiaduran.


Oharra

Gailuak bateria kargagarri bat du txertatuta, eta Sony-ren konponketa-zentro baimendu batean bakarrik ordezkatu daiteke. Inoiz ere ez saiatu gailua irekitzen edo desmuntatzen. Hala egiten baduzu, gailua hondatu eta bermea baliogabetu dezakezu.

Iradokizuna

Paretako hargunea duen kargagailu batekin azkarrago kargatzen da gailua ordenagailuaren bidez baino. Kargatzen ari garen bitartean ere erabili dezakegu gailua.

Gailua kargatzea



- 1 Konektatu USB kablearen ertz bat kargagailura (edo ordenagailu bateko USB atakara).
- 2 Konektatu kablearen beste ertza gailuaren USB atakara. Kargatzen hastean pizten da jakinarazpen-argia.
- 3 Gailua guztiz kargatzen denean, deskonektatu zure gailuko kablea, perpendikularki ateraz. Ziurtatu konektorea ez dela okertzen.

Oharra

Garrantzitsua da Type-C motako USB kable bat (mugikorarekin ematen dena) erabiltzea. Beste USB kable batzuek gailua kaltetu dezakete.

Iradokizuna

Bateria erabat hutsik badago, minutu batzuk igaro daitezke jakinarazpen-argia piztu eta karga-ikonoa agertu arte.

Bateriaren jakinarazpen-argiaren egoera

Berdea	Bateria kargatzen ari da; karga-maila % 90etik gorakoa da.
Laranja	Bateria kargatzen ari da; karga-maila % 15-90 artean.
Gorria	Bateria kargatzen ari da; bateriaren karga-maila % 15etik beherakoa da.

Energia eta bateria administratzea

Zure gailuak bateria kargagarri bat du. Ahalik eta gehien aprobetxatzeko, egin ezazu aplikazio eta funtzioen energia-kontsumoaren segimendua. Bateriaren iraupena areagotzeko, **Cuidado de la batería** funtzioa ere erabil dezakezu. Atzeko planoan energia aurrezteko funtzioak modu lehenetsian daude aktibatuta, bateriaren kontsumoa gehiago murrizten laguntzeko. Halaber, energia aurrezteko beste modu batzuk dituzu eskura, behar duzunean, bateriaren kontsumoa murrizten laguntzeko.

Energia aurrezteko funtzioek gailuan funtsezkoak ez diren funtzio batzuen lehenetasuna murrizten dute. Energia aurrezteak aplikazio jakin batean eraginik ez izatea nahi baduzu, salbuespen gisa ezar dezakezu **Excepciones de ahorro de energía** menuan. Horrek ez du eraginik telefono-deietan eta SMSetan.

Oharra

Sistemaren eguneraketek aldatu egin ditzakete gailuan erabilgarri dauden energia aurrezteko funtzioak.

Bateriaren kontsumoa berrikustea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Batería** geratzen den bateriaren ehuneko zenbatetsia eta haren iraupena ikusteko.
- 2 Sakatu **Ajustes avanzados** bateria-kontsumoari buruzko xehetasun gehiago kontsultatzeko.

Aplikazio bakoitzaren bateria-kontsumoa ikustea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aukeratu aplikazio bat, eta berrikusi bateria-kontsumoa **Ajustes avanzados > Batería** aukeran.


Bateriaren errendimendua hobetzeko erabilera-neurri orokorrak

Aholku hauek bateriaren errendimendua hobetzen lagunduko dizute:

- Pantailako distira murrizteko, jo *Pantailaren doikuntzak* atalera (58. orrialdea).
- Desgaitu bluetootha, wifia eta lokalizazio-zerbitzuak behar ez dituzunean.
- Itzali gailua edo erabili hegazkin modua sareko estaldurarik gabeko edo estaldura gutxiko eremu batean bazaude. Bestela, gailua sare erabilgarriak bilatzen saiatuko da behin eta berriro, eta horrek energia kontsumitzen du.
- Zure herrialdean ez zaudenean, erabili wifi-sare bat, desplazamendua erabili beharrean. Desplazamenduan zaudenean zure etxeko sarea bilatzen saiatzen da. Beraz, are eskaera handiagoa egiten zaio bateriari; izan ere, gailuak irteera-potentzia handiagoarekin transmititu behar du. Jo *Wifia* atalera (50. orrialdea).
- Aldatu zure posta elektronikoko, egutegiko eta kontaktuetako sinkronizazio-doikuntzak.
- Detektatu bateria gehien kontsumitzen duten aplikazioak, eta jarraitu aplikazio horietan bateria aurrezteko zure gailuan emandako aholkuak.
- Aplikazio baten jakinarazpen-maila aldatzeko, jo *Jakinarazpenak* atalera (31. orrialdea).
- Aplikazio baten kokapena partekatze baimena desgaitzeko, jo *Aplikazioaren doikuntzak* atalera (60. orrialdea).
- Erabiltzen ari ez zaren aplikazioak desinstalatzeko, jo *Aplikazioen pantaila* atalera (25. orrialdea).
- Musika entzuteko, erabili esku libreko Sonyren gailu bat. Esku libreko gailuek bateria gutxiago kontsumitzen dute gailuaren bozgorailuek baino.
- Berrabiarazi gailua noizean behin.

Aplikazio jakin batzuen optimizazioa baztertzea


Aplikazio jakin batzuk optimizaziotik salbuetsi ditzakezu.

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Batería**.
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa), eta aukeratu **Excepciones de ahorro de energía**. Optimizatzen ez diren aplikazioen zerrenda bat agertuko da.
- 3 Salbuespen-zerrenda horretan aplikazioak gaineratu edo kentzeko, sakatu **APLICACIONES**, eta hautatu edo desautatu zerrendatik aplikazio bat, haren salbuespen-doikuntzak editatzeko.
- 4 Optimizaziotik salbuetsita dauden aplikazioen zerrenda doikuntza horien arabera eguneratuko dira.

Iradozikizuna

Halaber, energia aurrezteko salbuespenak konfiguratu ditzakezu hemen: **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones > Avanzada > Acceso especial de aplicaciones > Función de ahorro de energía**.

STAMINA modua

STAMINA moduaren arabera, bateriaren kontsumoa murrizteko ezaugarri batzuk murriztu edo desgaituko dira. Ezaugarri horietako batzuk dira itxuraren errendimendua, pantailaren animazioa eta distira, irudi-hobekuntza, atzeko planoko aplikazioen datuen sinkronizazioa, bibrazioa (sarrerako deiak izan ezik), streaming-a eta GPSa pantaila itzalita dagoenean.  ikonoa (STAMINA moduaren ikonoa) agertuko da egoera-barran.

Iradozikizuna

Gailuak STAMINA modua aktibatzea iradokiko dizu, baldin eta aurreikusitako hurrengo karga-saioa baino lehen bateria agor badaiteke. Sakatu **Ajustes > Batería > Modo STAMINA > Notificación de STAMINA inteligente**, eta, ondoren, sakatu etengailua funtzio hori gaitu edo desgaitzeko.


STAMINA modua aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Batería**.
- 2 Sakatu **Modo STAMINA**, eta sakatu funtzioa aktibatu edo desaktibatzeko etengailua. **Modo STAMINA** aktibatuta dagoenean, aukera gehiago dituzu: adibidez, hasiera automatikoaren ehunekoa doitu dezakezu zure lehentasunen arabera.

Iradozikizuna

STAMINA moduaren bidez, aplikazio batzuk optimizaziotik baztertu ditzakezu, **Función de ahorro de energía** menuan.

Ultra STAMINA modua

Bateriak askoz gehiago irauten du, baina aplikazio erabilgarriak mugatu egiten dira, eta datu mugikorrek eta wifi-konexioa desgaitu egiten dira. Deiek eta SMSek erabilgarri jarraitzen dute. Pantaila nagusia aldatu egiten da, eta  (Ultra STAMINA moduaren ikonoa) agertzen da egoera-barran.

Ultra STAMINA modua aktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Batería**.
- 2 Sakatu **Modo Ultra STAMINA** eta, ondoren, **Activar**.
- 3 Sakatu **Aceptar**.

Oharra

Ezin dira aplikazioak salbuetsi Ultra STAMINA moduaren optimizaziotik.

Ultra STAMINA modua desaktibatzea

- 1 Irristatu egoera-barra beherantz, jakinarazpen-panelean sartzeko.

- 2 Sakatu **Modo Ultra STAMINA activo** jakinarazpena.
- 3 Sakatu **Aceptar**.

Oharra

Ultra STAMIMA modua desaktibatzean, gailua berrabiarazi egingo da.

Bateriaren zainketa

Bateriaren balio-bizitza areagotzeko, erabili bateriaren zainketaren funtzioa. Ezaugarri horren bidez, karga-ereduak detektatu, eta karga-aldi erregularraren hasiera- eta amaiera-ordua kalkulatu dira. Halaber, kargaren abiadura kontrolatzen da bateria % 100era irits dadin, justu kargagailua deskonektatu baino lehen.

Oharra

Bateriaren zainketaren funtzioak ez du kontrolatuko kargaren maiztasuna, gutxienez 4 orduko karga erregular ziklo bat detektatu arte egun batzuetako denbora-tartean.


Bateriaren zainketa gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Batería > Cuidado de la Batería**.
- 2 **Cuidado de la Batería** gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu etengailua.

Irakokizuna

Karga erregularreko zikloaren ikasketa-ereduak bateriaren zainketaren funtzioan gordetzen dira. Funtzioa desgaitu arren, gaitutakoan berreskuratu egiten dira ikasketa-ereduak.

Gailua eguneratzea

Gailuaren softwarea eguneratu egin behar da funtzionaltasuna eta hobekuntzak lortzeko, akats berrienak zuzentzeko, eta, hala, errendimendu optimoa lortzeko. Softwarearen eguneratze bat erabilgarri dagoenean,  (sistema eguneratzeko ikonoa) agertuko da egoera-barran. Eskuz ere egiazta daiteke eguneratze berririk dagoen, edo eguneratzeak programatu egin daitezke.

Softwarearen eguneratze bat instalatzeko modurik errazena gailutik haririk gabe egitea da. Hala eta guztiz ere, eguneratze batzuk ezin dira haririk gabe deskargatu. Kasu horietan, Xperia Companion softwarea erabili behar da PC batean edo Apple Mac® ordenagailu batean, gailua eguneratzeko.

Gailua eguneratu aurretik kontuan hartzekoak:

- Ziurtatu biltegitratzeko nahiko toki baduzula.
- Sistema eta aplikazioak eguneratzean, litekeena da gailuaren funtzioak erabiltzailearen eskuliburu honetan deskribatutakoetatik desberdina den modu batean bistaratzea. Gerta daiteke, halaber, eguneratze bat egin, eta Androiden bertsioan eraginik ez izatea.

Software berria dagoela egiaztatzea

- Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Ajustes avanzados > Actualización de software**.


Gailua haririk gabe eguneratzea

Erabili **Actualización de software** aplikazioa zure gailuko softwarea haririk gabe eguneratzeko. Operadorearen arabera, eguneratzeak sare mugikorraren bidez deskarga daitezke. Datu-trafikoak eragindako gastuak saihesteko, sare mugikorraren ordean wifi-sare bat erabiltzea gomendatzen da software berria deskargatzeko.


Sistemaren eguneratze bat instalatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Ajustes avanzados > Actualización de software**.
- 2 Sistemaren eguneratze bat badago, sakatu **ACTUALIZAR**.
- 3 Hala adierazitakoan, berrezarri gailua.


Sistemaren eguneratzea automatikoki deskarga dadin konfiguratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Ajustes avanzados > Actualización de software**.
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa) eta, ondoren, **Ajustes > Actualizar sistema automáticamente**.
- 3 Aukeratu nahi duzun aukera.

Aplikazioen eguneratze automatikoak gaitu edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Ajustes avanzados > Actualización de software**.
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa) eta, ondoren, **Ajustes > Actualización automática de aplicaciones**.
- 3 Aukeratu nahi duzun aukera.

Telefonia ordenagailu batekin eguneratzea

- 1 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
- 2 Ziurtatu gailuaren pantaila desblokeatuta dagoela, irristatu beheantz egoera-barra, eta, ondoren, sakatu **Sistema Android**  (USB ikonoa) ikonoarekin batera.
- 3 Sakatu **Toca para ver más opciones**, eta, ondoren, **Transferencia de archivos**.
- 4 Ireki Xperia Companion, baldin eta automatikoki irekitzen ez bada.
- 5 Egiatzatu ordenagailua Internetera konektatuta dagoela.
- 6 **Ordenagailuan**: Softwarearen eguneratze berri bat detektatzen bada, leiho gainerakor bat agertuko da. Segi pantailako jarraibideei dagozkion software eguneratzeak exekutatzeko.

Oharra

Ordenagailuan Xperia Companion softwarea instalatua ez baduzu, konektatu zure gailua ordenagailura, eta segi pantailan agertzen diren instalazio-jarraibideei. Ziurtatu gailuarekin batera etortzen den USB Type-C kablea erabiltzen duzula eta gailura eta ordenagailura ondo konektatuta dagoela.

Berrabiaraztea, berrezartzea eta konpontzea

Gailua ixtera edo itzaltzera behar dezakezu, baldin eta ez atzera ez aurrera geratzen bada edo normaltasunez berrabiarazten ez bada. Hori eginda, ez da ezabatzen inolako konfiguraziorik edo informazio pertsonalik.

Halaber, fabrikako jatorrizko konfigurazioa berrezar dezakezu gailuan. Batzuetan, beharrezkoa da hori egitea gailuak ondo funtzionatzen ez duelako, baina kontuan izan, informazio garrantzitsua gorde nahi izanez gero, aurrez informazio horren segurtasun-kopia bat egin beharko zenukeela memoria-txartel batean edo bestelako kanpoko memoria batean. Informazio gehiago lortzeko, jo *Segurtasun-kopia eta Google kontu batekin sinkronizatzea* atalera (45. orrialdea).

Gailua pizten ez bada edo gailuaren softwarea berrezarri nahi baduzu, Xperia Companion erabil dezakezu gailua konpontzeko. Xperia Companion-en erabilerari buruzko informazio gehiago lortzeko, begiratu Xperia Companion-en webgunean: <https://support.sonymobile.com/xperia-companion/>.

Gailua berrabiaraztea

Oharra

Bateriaren maila baxua bada, baliteke gailua ez berrabiaraztea. Konektatu gailua kargagailu batera, eta saiatu berriro berrabiarazten.

- 1 Luze sakatu pizteko tekla.
- 2 Sakatu **Reiniciar** agertzen den menuan. Gailua automatikoki berrabiaraziko da.

Gailua berrabiaraztera edo itzaltzera behartzea

- 1 Luze sakatu aldi berean pizteko tekla eta bolumena igotzekoa, gailuak dar-dar egin arte.
- 2 Eman pauso hauek, gailua berrabiaraztera edo itzaltzera behartu nahi baduzu.
 - Gailua berrabiaraztera behartu nahi baduzu: askatu teklak. Gailua berrabiarazi egingo da.
 - Gailua itzaltzera behartu nahi baduzu: jarraitu teklak sakatzen. Segundo batzuk igaro ondoren, gailuak hiru aldi egingo du dar-dar, eta itzali egingo da.

Fabrikako datuak leheneratzea

Oharra

Gailuak kalterik jasan ez dezan, ez eten fabrikako datuak berrezartzeko prozedura.

- 1 Egin gailuko barne-memorian gordetako datu garrantzitsuen segurtasun-kopia memoria-txartel batean edo beste mota bateko kanpoko memoria batean. SD txartel batean fitxategi zifratuak badituzu, zifratzea kendu behar duzu, berrezarri ondoren datu horietarako sarbidea izango duzula ziurtatzeko.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Avanzada > Opciones de recuperación**.
- 3 Sakatu **Borrar todos los datos > Restablecer teléfono**.
- 4 Beharrezkoa izanez gero, marraztu pantaila desblokeatzeko eredua edo sartu pantaila desblokeatzeko pasahitza edo PINa, jarraitu ahal izateko.
- 5 Berresteko, sakatu **Borrar todo**.

Irakokizuna

Gailua ez da itzultzen Android softwarearen aurreko bertsio batera fabrikako datuak berrezartzen direnean.

Gailuaren softwarea konpontzea

Gailuaren softwarea konpontzeko, Xperia Companion erabil dezakezu. Zure pasahitza, PINa edo pantaila desblokeatzeko eredua ahaztu baduzu, Xperia Companion-en gailuaren konponketa-ezaugarria erabil dezakezu segurtasun-geruza ezabatzeko. Eragiketa hori egiteko, Google kontuan saio hasteko erabiltzen dituzun datuak eman behar dituzu. Konponketa-funtzioa exekutatzean, berriz instalatzen da softwarea gailuan, eta datu pertsonal batzuk gal ditzakezu prozesuan.

Xperia-ren softwarea eguneratu ondoren, konponketa bat egin ondoren edo fabrikako datuak berrezarri ondoren gailua ez atzera ez aurrera geratzen bada, behin eta berriro berrabiarazten bada edo ez bada inolaz ere hasten, itzali gailua, eta, ondoren, piztu berriz. Arazoa konpontzen ez bada, itzali gailua, eta, ondoren, konpondu softwarea.

Irakokizuna

Google kontuaren erabiltzaile-izen edo pasahitz berri bat jasotzen baduzu, gerta daiteke saioa hasteko erabili ezin izatea.

Gailuaren softwarea konpontzea Xperia Companion bidez

Oharra

Softwarea konpondu aurretik, ziurtatu badakizkizula zure erabiltzaile-izena eta Google kontuaren pasahitza. Segurtasun-doikuntzen arabera, softwarea konpontzean, baliteke datu horiek sartu behar izatea gailua berrabiarazteko.

- 1 Egiatzatu Xperia Companion ordenagailuan instalatua duzula.
- 2 Ireki Xperia Companion softwarea, eta egin klik **Reparación del software** pantaila nagusian.
- 3 Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei softwarea berriro instalatzeko eta konponketa amaitzeko.

Memoriaren errendimendua hobetzea

Zure gailuak biltegitratze- eta memoria-aukera ugari dauzka:

- Barne-memorian deskargatutako edo transferitutako edukiak biltegitratzen dira, datu eta doikuntza pertsonalekin batera.
- Barne-memorian espazio libre gehiago izateko, memoria-txartel ateragarri bat edo Google zerbitzu bat erabil dezakezu zure datuak biltegitratzeko.

Oharra

- Memoria-txartel bereizi bat erosi dezakezu.
- Memoria dinamikoa (RAM) ezin da erabili biltegitratzeko espazio gisa. Exekuzioan dauden aplikazioak eta sistema operatiboa kudeatzeko erabiltzen da RAM memoria.

Ohiko erabileraren ondorioz, agortu egin ohi da gailuaren memoria. Gailua moteltzen hasten bada edo aplikazioak bat-batean itzaltzen badira, pauso hauek eman beharko zenituzke:

- Itxi erabiltzen ari ez zaren eta exekutatzen ari diren aplikazioak.
- Ezabatu aplikazio guztien cache memoriak.
- Desinstalatu zuk deskargatu dituzun eta erabiltzen ez dituzun aplikazio guztiak.
- Transferitu barne-memoriako argazkiak, bideoak eta musika memoria-txartelera.
- Gailuak ezin badu irakurri memoria-txartelaren edukia, gerta daiteke formateatu behar izatea. Kontuan izan, formateatzean, ezabatu egiten dela txartelaren eduki guztia.

Memoriaren egoera ikustea

- Bilatu eta sakatu **Ajustes > Almacenamiento**.

Aplikazio guztietako cache memoria ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Almacenamiento**.
- 2 Sakatu **LIBERAR ESPACIO**. Memoria-txartel bat badago sartuta, aukeratu **Almacenamiento > Almacenamiento interno compartido > LIBERAR ESPACIO**.

Iradozikuna

Cache memoria ezabatzean, ez dira galtzen ez doikuntzak ez informazio garrantzitsua.

Exekutatzen ari diren aplikazio eta zerbitzuak geratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aukeratu aplikazio edo zerbitzu bat, eta sakatu **FORZAR DETENCIÓN > Aceptar**.

Memoria-txartela formateatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Almacenamiento**.
- 2 Sakatu **Tarjeta SD > ⋮** (menuaren ikonoa), eta, ondoren, **Ajustes almacenamiento > Formateatu**; ondoren, formateatu berresteko hurrengo elkarrizketa-koadroan.

Oharra

Memoria-txartela formateatzean, eduki guztia ezabatu egiten da. Lehenik eta behin, ziurtatu gorde nahi dituzun datu guztien segurtasun-kopiak egin dituzula. Edukiaren segurtasun-kopia ordenagailu batean egin dezakezu. Informazio gehiago lortzeko, jo *Ordenagailu bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea* atalera (46. orrialdea).

Garbitzaile adimenduna

Garbitzaile adimendunak gailuaren errendimendua hobetzen du biltegiatzea eta memoria automatikoki optimizatuz, aplikazioaren erabileraren arabera.

Garbitzaile adimenduna gaitu edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Xperia Assist**.
- 2 Sakatu **Limpiador inteligente**, eta, ondoren, sakatu funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko etengailua.

Oharra

Artxiboak eskuz ere aldatu, kopiatu edo ezabatu ditzakezu, Archivos aplikazioa bilatuz eta ukituz.

Segurtasun-kopia eta datuen sinkronizazioa

Segurtasun-kopia eta Google kontu batekin sinkronizatzea

Google zerbitzarian zure datuen segurtasun-kopia bat egin dezakezu, eta Google kontu batekin sinkroniza ditzakezu. Eduki-motaren arabera, segurtasun-kopia egiteko eta sinkronizatzeko modu bat baino gehiago dago. Datuak gailu zaharretik berri batera transferitu nahi badituzu, egin gailu zaharraren segurtasun-kopia, eta sinkronizatu gailu berria zure Google kontuarekin. Bereziki gomendagarria da segurtasun-kopia egitea, baldin eta gailuaren softwarea Android bertsio berriago batera eguneratu nahi baduzu.

Googleren kontu bat konfiguratzeko

- 1 Sakatu **Ajustes > Cuentas > Añadir cuenta**, eta, ondoren, hautatu **Google**.
- 2 Kontu bat sortzeko edo kontu batean saioa hasteko, segi pantailan ageri diren jarraibideei.



Segurtasun-kopia egin eta Gmail-a, egutegia eta kontaktuak sinkronizatzea

- 1 Sakatu **Ajustes > Cuentas**.
- 2 Oraindik Google konturik ez baduzu, sakatu **Añadir cuenta**.
- 3 Funtzioa gaitzeko, sakatu **Sincronizar datos automáticamente** etengailua. Gmail-aren, egutegiaren eta kontaktuen segurtasun-kopia automatikoki egingo da.

Oharra

Gmail-eko, egutegiko eta kontaktuetako datuak automatikoki transferitu eta sinkronizatzeko, hasi saioa gailu zaharreko datuak sinkronizatzeko erabiltzen duzun Google kontuan.

Segurtasun-kopia bat egin eta argazkiak eta bideoak sinkronizatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (Google Argazkien ikonoa).
- 2 Sakatu  (aukeren ikonoa), eta, ondoren, sakatu doikuntzen menua.
- 3 Sakatu segurtasun-kopiaren eta sinkronizazioaren menua.
- 4 Funtzioa gaitzeko, sakatu etengailua. Argazkien eta bideoen segurtasun-kopia bat egingo da automatikoki.

Oharra

Argazkiak eta bideoak automatikoki sinkronizatzeko, hasi saioa gailu zaharreko datuak sinkronizatzeko erabiltzen duzun Google kontuan. Google Argazkiei buruzko informazio gehiago lortzeko, zoaz hona: <http://support.google.com>.



Aplikazioen, telefonoko doikuntzen eta dei-historiaren segurtasun-kopia egitea eta sinkronizatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Ajustes avanzados > Copia de seguridad**.
- 2 Funtzioa gaitzeko, sakatu etengailua. Zure aplikazioetako, gailuko doikuntzetako eta dei-historiako datuen segurtasun-kopia automatikoki egingo da.

Oharra

Google Drive-n doikuntza-menuetik ere gaitu dezakezu segurtasun-kopia. Zure aplikazioetako, gailuko doikuntzetako eta dei-historiako datuak automatikoki sinkronizatzeko, zure gailu zaharrean datuak sinkronizatzeko erabiltzen den Google kontuan has dezakezu saioa. Zure gailu berria lehen aldiz pizten duzunean, hasi saioa Google kontuan eta segi pantailako jarraibideei.

Segurtasun-kopia bat egin eta fitxategiak eskuz sinkronizatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (musikaren ikonoa) edo  (fitxategien ikonoa).
- 2 Luze sakatu segurtasun-kopiaren bidez kopiatu nahi dituzun fitxategiak, eta aukeratu **Compartir** agertzen diren aukeren artean.
- 3 Gorde Google Drive-n.


Oharra

Zure gailu berriko datuak sinkronizatzeko, hasi saioa gailu zaharreko datuak sinkronizatzeko erabiltzen zenuen Google kontuan.

Ordenagailu bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea

Multimedia-fitxategietan bolumen handia duzunean (adibidez, argazkiak, bideoak eta musika-fitxategiak), zure datuen segurtasun-kopia ordenagailuan egitea gomendatzen da. Zure datuak gailu zahar batetik berrira transferitzeko, bi gailuak aldi berean konekta ditzakezu ordenagailura. Zure fitxategiak transferitu eta administratzeko, erabili USB kable bidezko konexioa; bat Windows duen ordenagailu baten eta gailuaren artean.

Ordenagailu batera konektatzea, USB-kable baten bidez

- 1 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
- 2 Irristatu beherantz egoera-barra, eta, ondoren, sakatu **Sistema Android**  (USB ikonoa) irudiaren ondoan.
- 3 Sakatu **Toca para ver más opciones**. Ordenagailuak gailua detektatuko du **Transferencia de archivos** ukitzen duzunean.

Oharra

Erabili beti zure Xperia modeloari dagokion USB Type-C kable bat, eta ziurtatu erabat lehor dagoela.

Gailuko datuen segurtasun-kopia egitea ordenagailu bat erabilita

- 1 Desblokeatu gailuko pantaila, eta konektatu ordenagailu batera, USB kable baten bidez.
- 2 Ordenagailuan, aukeratu zer fitxategiren segurtasun-kopia egin nahi duzun. Ondoren, kopiatu eta itsatsi edo arrastatu eta askatu zure ordenagailuko kokaleku batean.

Fitxategiak gailu zaharretik berrira transferitzea


- 1 Desblokeatu gailuaren pantaila, eta konektatu gailu zaharra eta berria ordenagailu batera USB kable bidez.
- 2 Ordenagailuan, aukeratu zure gailu zaharretik transferitu nahi dituzun fitxategiak, eta, ondoren, kopiatu eta itsatsi edo irristatu eta askatu gailu berriko kokaleku batean.

Oharra

Zure gailu zaharreko fitxategiak gailu berrian kopiatzean, ziurtatu karpeten izenak berdinak direla bi gailuetan.

Memoria-txartel bidez segurtasun-kopia egitea eta datuak transferitzea

Segurtasun-kopia bat egitea eta fitxategiak memoria-txartel bat erabilita transferitzea

- 1 Ziurtatu memoria-txartel bat dagoela gailuan sartuta.
- 2 Bilatu eta sakatu  (fitxategien ikonoa).

- 3 Ukitu, luze sakatu eta markatu memoria-txartelera transferitu nahi dituzun fitxategiak.
- 4 Sakatu **☰** (menuaren ikonoa), eta hautatu **Copiar en...** edo **Mover a...** segurtasun-kopia bat egiteko edo datuak transferitzeko.

Microsoft Exchange ActiveSync-ekin sinkronizatzea

Zure enpresak Microsoft Exchange ActiveSync kontu bat erabiltzen badu, zure gailutik zuzenean sar zaitezke posta elektronikoko mezuetera, egutegiko hitzorduetara eta kontu horretako kontaktuetara. Kontua konfiguratu ondoren, zure informazioa bila dezakezu **Enviar correo**, **Calendario** eta **Contactos** aplikazioetan.

Iradokizuna

Microsoft® Exchange ActiveSync® (EAS) kontu bat konfiguratu baduzu, litekeena da EASen segurtasun-doikuntzek pantaila blokeatzeko moduak mugatzea, eta soilik PINa edo pasahitza erabiltzen uztea. Segurtasun-arrazoiengatik sareko administratzaileak EAS kontu guztietarako pantaila-blokeatzeko modu bat zehazten duenean gertatzen da hori. Jarri harremanetan zure enpresako edo erakundeko sareko administratzailearekin mugikorretarako aplikatzen dituzten sareko segurtasun-politikak egiaztatzeko.

Sinkronizatorako EAS kontu bat konfiguratzeko

- 1 Sakatu **Ajustes > Cuentas > Añadir cuenta > Exchange ActiveSync**.
- 2 Idatzi zure enpresako helbidea elektronikoa eta dagokion pasahitza.
- 3 Sakatu **Siguiente**. Akatsa gertatzen bada, sartu zure kontuko domeinuaren eta zerbitzuaren datuak eskuz, eta, ondoren, sakatu **Siguiente**.
- 4 Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei konfigurazioa osatzeko.
- 5 Metodo bat eta sinkronizazio-tarte bat eta gailuarekin sinkronizatu nahi dituzun datuak aukeratzeko, hautatu **Mostrar más opciones de sinc**.
- 6 Sakatu **Siguiente**, eta, ondoren, hautatu nola nahi duzun jakinaraztea mezu berri bat jaso duzula.
- 7 Sakatu **Siguiente**, sartu kontu korporatiboaren izena, eta sakatu **Finalizar configuración**.
- 8 Hala eskatuz gero, aktibatu gailuaren administratzailea, zerbitzari korporatiboari gailuan segurtasun-arau jakin batzuk ezartzen uzteko (adibidez, ahots-grabazioa desaktibatzea eta biltegitratzeko zifratzea erabiltzea).

EAS kontu bat ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Cuentas**.
- 2 Hautatu ezabatu nahi duzun EAS kontua.
- 3 Sakatu **Quitar cuenta**.
- 4 Sakatu **Quitar cuenta** berriro, berresteko.

Aplikazioak deskargatzea

Aplikazioak Google Play-n deskargatzea

Google Play da Googlek aplikazioak, jolasak, musika, pelikulak eta liburuak deskargatzeko duen onlineko denda ofiziala. Doako aplikazioak nahiz ordainpekoak ditu. Google Play-n deskargatzen hasi aurretik, ziurtatu Interneteko konexioa aktibatua duzula (ahal bada, wifi bidezkoa, datu-trafikoaren karguak mugatzeko). Informazio gehiago lortzeko, jo *Gailua eguneratzea* atalera (40. orrialdea).

Google Play-n aplikazio bat deskargatzea

- 1 Bilatu eta sakatu ► (Play Storeren ikonoa).
- 2 Bilatu deskargatu nahi duzun elementua. Horretarako, arakatu kategoriak edo erabili bilaketa-funtzioa.
- 3 Xehetasunak ikusteko, sakatu elementuak. Segi pantailako jarraibideei, instalazioa amaitzeko.

Aplikazioak beste iturri batzuetatik deskargatzea

Zure gailua Google Play ez beste jatorri batetik deskargatzeko konfiguratuta badago, beste webgune batzuetatik zuzenean deskargatu ahal izango dituzu aplikazioak, dagozkien deskarga-jarraibideei segituz.

Oharra

Jatorri ezezaguneko edo fidagarritasun gutxiko aplikazioak instalatzen badituzu, gerta daiteke zure gailua kaltetzea. Deskargatu jatorri fidagarriko aplikazioak bakarrik. Zalantzarik edo galderarik baduzu, jarri harremanetan aplikazioaren hornitzailearekin.

Beste iturri batzuetako aplikazioen deskarga gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Sakatu **Ajustes avanzados > Acceso especial de aplicaciones > Instalar aplicaciones desconocidas**.
- 3 Sakatu beste jatorri batzuetatik instalatu nahi duzun aplikazioa, eta, ondoren, sakatu **Autorizar descargas de esta fuente** etengailua, funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko.

Internet eta sareak

Interneterako eta MMSrako doikuntzak

Wifi gabe Interneten sartzeko edo multimedia-mezuak bidaltzeko, Interneterako eta MMSrako doikuntza egokiak dituen datu mugikorren konexioa behar duzu. Hona hemen aholku batzuk:

- Sare mugikor eta operadore gehienek kasuan, doikuntza horiek jadanik instalatuta daude gailuan, eta, beraz, zuzenean has zaitezke Internet erabiltzen eta multimedia-mezuak bidaltzen.
- Eskuz bila ditzakezu Interneterako eta MMSrako doikuntzen eguneratzeak. MMSrako edo Interneterako doikuntza bat oker batengatik aldatu edo ezabatzen baduzu, berrezarri MMSen eta Interneten konfigurazioa.
- Energia aurrezteko **Duración de batería preferida del modo STAMINA** doikuntza aukeratu baduzu, datu mugikorren trafiko guztia eten egiten da pantaila itzaltzen denean. Horrek konexio-arazoak sortzen baditu, salbuetsi aplikazio eta zerbitzu batzuk etetetik edo desgaitu STAMINA modua aldi baterako.

Interneterako eta MMSrako doikuntzak deskargatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Ajustes de Internet**.
- 2 Sakatu **Aceptar**. Doikuntzak ondo deskargatzen direnean, (Interneterako deskargatutako doikuntzen ikonoa) agertuko da egoera-barran, eta datu mugikorren trafikoa automatikoki aktibatuko da.

Irakokizuna

Doikuntzak zure gailuan deskargatu ezin badira, egiaztatu zure wifi-sareko edo sare mugikorren konexioen seinalearen intentsitatea. Jarri oztoporik gabeko leku ireki batean edo leiho batetik hurbil, eta saiatu berriro.

Interneterako eta MMSrako doikuntzak gehitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Red móvil**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Sakatu **Avanzado > Nombres de puntos de acceso > +** (gehitzeko ikonoa).
- 4 Sakatu **Nombre**, sartu nahi duzun izena, eta sakatu **Aceptar**.
- 5 Sakatu **APN**, sartu sarbide-puntuaren izena, eta sakatu **Aceptar**.
- 6 Sartu eskatutako gainerako informazioa. Ez badakizu zer informazio eskatzen den, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin, informazio gehiago lortzeko.
- 7 Amaitzen duenean, sakatu **⋮** (menuaren ikonoa), eta, ondoren, **Guardar**.

MMSrako eta Interneterako deskargatutako doikuntzak ikustea


- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Red móvil**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Sakatu **Avanzado > Nombres de puntos de acceso**.
- 4 Xehetasun gehiago ikusteko, sakatu erabilgarri dagoen elementuetako bat.

Interneterako eta MMSrako doikuntzak berrezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Red móvil > Avanzado > Nombres de puntos de acceso**.
- 2 Sakatu **⋮** (menuaren ikonoa). Hautatu **Restablecer ajustes**.

Wifia

Erabili wifia Interneten nabigatzeko, aplikazioak deskargatzeko edo mezu elektronikoak bidali eta jasotzeko. Wifi-sare batera behin konektatuz gero, zure gailuak gogoratu egingo du hurrengo baterako, eta hurrengoan, haren helmenean dagoenean, automatikoki konektatuko da sare horretara.

Wifi-sare erabilgarriak irekiak edo babestuak izan daitezke. Sare babestuen kasuan,  (wifia blokeo-ikonoa) agertzen da, wifi-sarearen izenaren ondoan.


Oharra

Wifi-sare batzuk ez dira agertzen sare erabilgarrien zerrendan, ez dutelako sareko izena transmititzen (SSID). Sareko izena baldin badakizu, eskuz gehitu dezakezu wifi-sare erabilgarrien zerrendara.

Wifia aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 2 Wifia gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu etengailua.


Wifi-sare batera konektatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 2 Sakatu wifia aktibatzeko etengailua. Erabilgarri dauden wifi-sare guztiak agertuko dira.
- 3 Konektatzeko, sakatu wifi-sare bat. Sare babestua bada, sartu dagokion pasahitza. Konexioa ezarri ondoren,  (wifia ikonoa) agertuko da egoerabarran.

Wifi-sare bat gehitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 2 Mugitu beherantz, eta sakatu **Añadir red**. Sartu sarearen izena.
- 4 Segurtasun-mota bat aukeratzeko, sakatu **Seguridad** eremua.
- 5 Hala eskatuz gero, sartu pasahitz bat.
- 6 Aukera aurreratuak editatzeko (adibidez, proxy-aren, IParen eta ezkutuko sarearen konfigurazioa), sakatu **Opciones avanzadas**, eta, ondoren, aldatu nahi dituzun aukerak.
- 7 Sakatu **GUARDAR**.

Wifi-seinalearen intentsitatea handitzea



Hainbat gauza egin ditzakezu wifi-seinalearen harrera hobetzeko:

- Gailua wifiaren sarbide-puntura hurbildu.
- Wifiaren sarbide-puntua urrundu ezazu tartean egon daitezkeen oztopo edo interferentzietatik.
- Zure gailuko wifi-antenaren eremua ez estali.

Wifia doitzea

Wifi-sare batera konektatuta zaudenean edo inguruan wifi-sare erabilgarriak daudenean, sare horien egoera zein den ikusi ahal izango duzu. Halaber, gailua gaitu dezakezu wifi-sare ireki bat detektatzen duenean jakinarazteko.

Wifia automatikoki aktibatzea

- 1 Ziurtatu wifia zure gailuan aktibatuta dagoela.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 3 Mugitu beherantz, eta sakatu **Preferencias de Wi-Fi**. Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Activar Wi-Fi automáticamente** etengailua.

Wifi-sareko jakinarazpenak gaitzea edo desgaitzea

- 1 Ziurtatu wifia aktibatuta dagoela zure gailuan.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 3 Mugitu beherantz, eta sakatu **Preferencias de Wi-Fi**.
- 4 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Notificaciones de redes abiertas** etengailua.

Konektatu zaren wifi-sare bati buruzko informazio xehatua ikustea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 2 Sakatu konektatuta zauden wifi-sarea. Sareari buruzko informazio xehatua agertuko da.

Sareko kommutadore automatikoa gaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 2 Sakatu **Preferencias de Wi-Fi**.

- 3 Sakatu **Ajustes avanzados > Cambio de red automático** eta sakatu **HABILITAR**.

Gordetako sare bakoitzean automatikoki konektatzeko doikuntza aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 2 Sakatu **Preferencias de Wi-Fi > Ajustes avanzados > Conexión automática**.
- 3 Sakatu wifi-sarea, gaitzeko edo desgaitzeko.

Gailuaren MAC helbidea aurkitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Wi-Fi**.
- 2 Sakatu **Preferencias de Wi-Fi > Avanzada**.

MAC helbidea zerrendan agertuko da.

Irakokizuna


Wifiaen MAC helbidea hemen ere agertzen da: **Ajustes > Sistema > Información del teléfono > Dirección MAC de la red Wi-Fi**.

Datu mugikorren konexioaren erabilera partekatua

Beste gailu batzuekin parteka dezakezu datu mugikorren konexioa. Hainbat modu daude horretarako:

- **Konexio-puntu eramangarria**: partekatu wifi bidezko datu mugikorren konexioa, aldi berean, beste 10 gailu baino gehiagorekin.
- **One-touch konexio-puntu eramangarria**: sakatu aukera hori zure konexio mugikorra wifi bidez partekatzen hasteko.
- **Konexioa USB bidez partekatzea**: partekatu datu mugikorren konexioa ordenagailu batekin, USB kable bidez.
- **Konexioa Bluetooth bidez partekatzea**: partekatu datu mugikorren konexioa beste lau gailurekin (gehienez), bluetooth bidez.

Datuen konexioa USB kable bidez partekatzea

- 1 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Zona Wi-Fi/Compartir conexión**.
- 3 Sakatu **Compartir conexión por USB** etengailua, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**, hala eskatuz gero. Konexioa ezartzean,  (USBa partekatze ikonoa) agertuko da egoera-barran.
- 4 Zure datuen konexioa partekatzeari uzteko, sakatu **Compartir conexión por USB** etengailua edo deskonektatu USB kablea.

Oharra

Ezinezkoa da aldi berean partekatzea zure gailuko datuen konexioa eta SD txartela, USB kable baten bidez.



Zure konexio mugikorra konexio-puntu eramangarriaren funtzioaren bidez partekatzea

- 1 Ziurtatu bi gailuek aktibatua dutela NFC funtzioa eta bi pantailak aktibatuta daudela.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Zona Wi-Fi/Compartir conexión**.
- 3 Sakatu **Punto de conexión portátil One-touch**.
- 4 Elkartu gailuak NFC detekzio-eremuek elkar ukitzeko moduan, eta, ondoren, sakatu **CONECTAR**.

Oharra

Internet NFC Wi-Fi-ren erabilera partekatua onartzen duten gailuekin bakarrik funtzionatzen du.


Datu mugikorren konexioa beste bluetooth gailu batekin partekatzea

- 1 Ziurtatu zure gailua eta beste bluetooth gailua lotuta daudela eta datu mugikorren trafikoa aktibatuta dagoela zure gailuan.
- 2 **Zure gailua:** Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Zona Wi-Fi/Compartir conexión**. Funtzioa gaitzeko, sakatu **Compartir conexión por Bluetooth** etengailua.
- 3 **Bluetooth gailua:** Konfiguratu gailua sare-konexioa bluetooth bidez lortzeko. Gailua ordenagailu bat bada, kontsultatu konfigurazioa osatzeko bete beharreko jarraibideak. Gailuak Android sistema eragilearekin funtzionatzen badu, sakatu lotuta dagoen gailuaren izenaren alboko doikuntzen ikonoa (**Ajustes > Conexión de dispositivos > Dispositivos conectados previamente**), eta, ondoren, sakatu **Acceso a Internet** kontrol lerragarria.
- 4 **Zure gailua: Itxaron egoera-barran**  (Internet bluetooth bidez partekatzeko ikonoa) eta  (Internet bluetooth bidez partekatzeko ikonoa) agertu arte. Ikono horiek agertu ondoren, konfigurazioa amaituta egongo da.
- 5 Funtzioa desgaitzeko, sakatu berriz ere **Compartir conexión por Bluetooth**.

Oharra

Compartir conexión por Bluetooth funtzioa desaktibatu egiten da gailua itzali edo bluetooth funtzioa desaktibatzen denean.

Zure gailua konexio-puntu eramangarri gisa erabiltzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Zona Wi-Fi/Compartir conexión**.
- 2 Sakatu **Punto de conexión portátil > Configurar área de conexión**.
- 3 Sartu sarearen izena.
- 4 Segurtasun-mota bat aukeratzeko, sakatu **Seguridad** eremua. Eskatuz gero, sartu pasahitz bat.
- 5 Sakatu **GUARDAR**.
- 6 Funtzioa gaitzeko, sakatu zerrendaren goialdeko etengailua.
- 7 Eskatuz gero, sakatu **Aceptar** berresteko.  (Interneteko erabilera partekatua ikonoa) agertzen da egoera-barran konexio-puntu eramangarria aktibo dagoenean.
- 8 Datuen konexioa wifi bidez partekatzeari uzteko, sakatu **Punto de conexión portátil** etengailua, funtzioa desgaitzeko.

Konexio-puntu eramangarria berrizendatu edo babestea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Zona Wi-Fi/Compartir conexión**.
- 2 Sakatu **Punto de conexión portátil > Configurar área de conexión**.
- 3 Sartu sarearen izena.
- 4 Segurtasun-mota bat aukeratzeko, sakatu **Seguridad** eremua. Hala eskatzen badizu, idatzi pasahitz bat.
- 5 Sakatu **GUARDAR**.

Datuen erabilera kontrolatzea

Zure gailura eta zure gailutik wifi-konexio bidez transferitutako datuen kantitatearen erregistroa mantendu dezakezu epe zehatz batez. Adibidez, aplikazio bakoitzaren bidez erabilitako datuen kopurua kontsultatu dezakezu. Datu mugikorren konexioaren bidez transferitutako datu-kopurua jakiteko, datu-erabileraren ohartarazpenak eta mugak konfiguratu ditzakezu, kargu gehigarririk ez izateko.

Datuen erabilera gutxitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Uso de datos > Ahorro de datos**.
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu etengailua.

Datu-trafikoa aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Uso de datos**.
- 2 Datu-trafikoa aktibatu edo desaktibatzeke, sakatu **Datos móviles** etengailua.

Irakokizuna

Datu-trafikoak desaktibatu arren, gailuak wifi- eta bluetooth-konexioak ezar ditzake oraindik.

Datu-erabilerarako ohartarazpen bat zehaztea

- 1 Ziurtatu datu mugikorren trafikoa aktibatuta dagoela.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Uso de datos > Límite y advertencia de datos**.
- 3 Ohartarazpen-maila doitzeko, sakatu **Establecer advertencia de datos** etengailua.
- 4 Sakatu **Advertencia de datos**, sartu nahi duzun datu-muga eta sakatu **Establecer**. Trafiko-kantitateak ezarritako maila gainditzean jasotzen da ohartarazpena.

Datu mugikorretarako muga bat ezartzea

- 1 Ziurtatu datu mugikorren trafikoa aktibatuta dagoela.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Uso de datos > Límite y advertencia de datos**.
- 3 Sakatu **Establecer límite de datos** eta, ondoren, sakatu **Aceptar**.
- 4 Datu-erabileraren muga zehazteko, sakatu **Límite de datos**, sartu nahi duzun datu-muga, eta sakatu **Establecer**.

Oharra

Datu mugikorren erabilerak ezarritako muga gainditzen duenean, automatikoki desaktibatuko da gailuko datu mugikorren trafikoa.

Aplikazioen banakako datu-kontsumoa kontrolatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Sakatu kontrolatu nahi duzun aplikazioa, eta, ondoren, sakatu **Uso de datos**.

Irakokizuna

Datuen erabilera-doikuntzak aldatzeak eragina izan dezake aplikazio bakoitzaren errendimenduan.

Zure datuen erabilera egiaztatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Uso de datos**.
- 2 Aplikazio bakoitzaren bidez transferitutako datu mugikorren kopurua kontsultatzeko, sakatu **Uso de datos de aplicac..**
- 3 Wifi-konexio bidez transferitutako datuen kopurua kontsultatzeko, sakatu **Uso de datos con Wi-Fi (Uso de datos** eremuan).

Datu-trafikorako SIM txartel bat aukeratzea

Oharra

Bi SIMeko gailuei bakarrik aplikatzen zaie funtzio hori.

Bi SIMeko gailu bat erabiltzen ari bazara, edozein unetan aukeratu dezakezu zer SIM txartelek kudeatzen dituen datuak. Gailuaren hasierako konfigurazioan egin dezakezu, eta gero ere aukeratu edo aldatu dezakezu doikuntza hori, **Ajustes** menutik.

Datu-trafikorako erabilitako SIM txartela aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Ajustes avanzados > Doble SIM > Datos móviles**.
- 2 Hautatu SIM txartel bat.

Sare mugikorrak hautatzea

Gailua sare mugikor batetik bestera pasatzen da automatikoki, zauden lekuan erabilgarri dauden sareen arabera. Zure gailua eskuz ere konfiguratu dezakezu, sare mugikorraren modu zehatz bat erabil dezan. Zure gailuak bi SIM baditu, aurrekoak SIM txartel bakoitzerako balio du.

Egoera-barran zenbait ikono bistaratzen dira, konektatuta zauden sare-motaren edo moduaren arabera. Jo *Iconos de estado* atalera (34. orrialdea), egoera-ikonoak nolakoak diren ikusteko.

Sare modu bat hautatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Red móvil**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Sakatu **Avanzado > Tipo de red preferida** eta hautatu sare modu bat.

Oharra

Zure gailuak bi SIM baditu, LTE sarea SIM txartel baterako bakarrik aukeratu daiteke.

Beste sare bat eskuz hautatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Red móvil**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Desgaitzeko, sakatu **Ajustes avanzados > Seleccionar una red automáticamente** aukera desgaitzeko, eta, ondoren, sakatu **Red**.
- 4 Hautatu sare bat.

Oharra

Sare bat eskuz aukeratzen baduzu, gailuak ez ditu beste sare batzuk bilatuko, eskuz aukeratutako sarearen helmenetik urrundu arren.

Sarearen hautaketa automatikoa aktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Red móvil**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Funtzioa gaitzeko, sakatu **Ajustes avanzados > Seleccionar una red automáticamente**.

Oinarrizko doikuntzak

Doikuntzetara sartzea

Ikus eta alda itzazu zure telefonoaren doikuntzak doikuntzen menutik. Aplikazioen pantailatik eta **Ajustes rápidos** paneletik sar zaitezke doikuntzen menuan.

Gailuko doikuntzen menua aplikazioen pantailatik irekitzea

- Bilatu eta sakatu **Ajustes**.


Gailuari buruzko informazioa ikustea

- Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Información del teléfono**.


Lasterbideen panelera joatea

- Irristatu egoera-barra beherantz bi hatzekin.


Doikuntza azkarren panelean agertzea nahi duzun doikuntzak aukeratzea

- 1 Irristatu egoera-barra beheraino bi hatzekin, eta, ondoren, sakatu  (editatzeko ikonoa).
- 2 Doikuntza bat doikuntza azkarren panelera gehitzeko, irristatu ikonoa, eta jarri pantailaren goialdean. Doikuntza bat kentzeko, irristatu ikonoa, eta jarri pantailaren behealdean.

Doikuntza azkarren panela berrantolatzea

- 1 Irristatu egoera-barra beheraino, eta, ondoren, sakatu  (editatzeko ikonoa).
- 2 Mantendu ikono bat sakatuta, eta, ondoren, mugitu nahi duzun lekura.

Linterna piztea

- 1 Irristatu egoera-barra beherantz bi hatzekin.
- 2 Sakatu  (linternaren ikonoa).

Bolumena, bibrazioa eta soinua





Bolumena eta bibrazioa aldatu egin daitezke, bolumenaren teklak erabiliz edo doikuntza bat aldatuz. Soinuak eta tonuak doikuntza baten bidez bakarrik alda daitezke.

Oharra


Aplikazioen doikuntzekin, bolumenaren, bibrazioaren eta soinuaren doikuntzak ezereztu daitezke.

Bolumena eta bibrazioa

Txirrinaren, multimedia-fitxategien, alarmaren eta deien bolumenak alda ditzakezu. Horrez gainera, zure gailua bibratzeko konfiguratu dezakezu  (bibrazioaren ikonoa).

Txirrinaren eta jakinarazpenen bolumenak  (txirrinaren bolumenaren ikonoa) jakinarazpenen bolumena aldatzen du, deien bolumenak  (dei-bolumenaren ikonoa) deiena, eta multimedia-fitxategien bolumenak  (multimedia-fitxategien bolumenaren ikonoa) musika-, bideo-, jolas- eta multimedia-fitxategiena. Adibidez, bideo bat ikusten ari zarela bolumena aldatzen baduzu, multimedia-fitxategien bolumena aldatzen ari zara. Alarmen bolumena  (alarmaren jakinarazpen-ikonoa) ikonoaren bidez adierazten da.


Bolumena aldatzea

- 1 Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz. Hori eginda, multimedia-fitxategien bolumena ere aldatuko duzu.
- 2 Txirrinen, jakinarazpenen edo alarmen bolumena aldatzeko, sakatu  (doikuntzen ikonoa). Bolumena doitzeko, erabili kontrol lerragarriak.

Irakokizuna

Bolumena azkar aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu bolumenaren ikonoa.

Bibrazioaren modua aktibatzea

- 1 Sakatu bolumen-tekla gorantz edo beherantz.
- 2 Sakatu kontrol lerragarriaren gaineko ikonoa behin edo hainbatetan,  (bibrazioaren ikonoa) bistaratu arte.

Sarrerako deien soinua eta bibrazioa batera aktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido**.
- 2 Funtzioa gaintzeko, sakatu **Vibrar también en llamadas** etengailua.

Soinuak eta tonuak

Dei-tonu bat ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Tono del teléfono**.
- 2 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 3 Sakatu zerrendako aukera bat edo sakatu **Añadir tono de llamada**, eta hautatu zure gailuan biltegitua duzun musika-fitxategi bat.
- 4 Berresteko, sakatu **Aceptar**.

Irakokizuna

Kontaktu batentzat dei-tonu jakin bat doitzeko, jo *Kontatuak gehitzea eta editatzea* atalera (72. orrialdea). Bi SIM dituzten gailuen erabiltzaileek dei-tonu desberdinak ezar ditzakete SIM txartel bakoitzerako.

Jakinarazpen-soinua ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Sonido de la notificación**.
- 2 Jakinarazpen-soinu guztiak desgaitzeko eta zure jakinarazpenek bibrazioarik ez egiteko, aukeratu zerrendako soinu bat edo aukeratu **Ninguno**.
- 3 Zure gailuan gordeta dagoen musika-fitxategi bat aukeratzeko, sakatu **Añadir tono de llamada**.
- 4 Berresteko, sakatu **Aceptar**.

Oharra

Aplikazioen doikuntzek aukera ematen dizute, jakinarazpen-soinuan **Ninguno** hautatuta egon arren, aplikazio jakin batek soinua egiteko. Jo *Jakinarazpenak* atalera (31. orrialdea).

Beste soinu eta tonu batzuk gaitu edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Ajustes avanzados**.
- 2 Sakatu soinuak eta tonuak gaitu edo desgaitzeko etengailuak.

Gailua isilaraztea ez molestatzeko moduarekin

Inolako eragozpenik nahi ez duzunean soinuak isiltzeko eta bibrazioak eta ikusizko jarraibideak mugatzeko (adibidez, gauez), aktibatu **No molestar**.

Aukeren konfigurazioa

- Jakinarazpenak.
- Salbuespenak
- Iraupena
- Automatikoki aktibatu


Ez molestatzeko modua gaitzea edo desgaitzea

- 1 Doikuntza azkarren panelean sartzeko, irristatu egoera-barra beherantz hatzekin.
- 2 Sakatu \ominus (ez molestatzeko aukeraren ikonoa).

Arau automatikoak

Arau automatikoak ezar ditzakezu une edo ekitaldi jakin batzuetan **No molestar** modua aktiba dadin.

Arau automatiko bat ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > No molestar > Activar automáticamente.**
- 2 Sakatu arau automatiko bat (adibidez, **Durmiendo**).
- 3 Ezarri ordua eta portaerak zuk nahi duzun moduan. Arauaren izena aldatzeko, sakatu  (editatzeko ikonoa).
- 4 Sakatu wifia aktibatzeke etengailua.

Irakokizuna

Arau berri bat sortzeko, sakatu **Añadir regla**, eta segi pantailako jarraibideei.

Ez molestatzeko modua aktibatuta dagoenean jakinarazpen-soinua ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > No molestar.**
- 2 Sakatu **Notificaciones.**
- 3 Hautatu aukera bat.

Ez molestatzeko moduaren salbuespenak ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > No molestar.**
- 2 Sakatu **Excepciones** aukerak.
- 3 Aukera bat edo batzuk aktibatzeke, sakatu dagozkion etengailuak.

Ez molestatzeko modua noiz desaktibatu ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > No molestar.**
- 2 Sakatu **Duración.**
- 3 Hautatu erloju bat, eta sakatu **Aceptar.** Orduak doitzeko, ukitu + edo -.

Pantailaren doikuntzak

Pantailaren portaera, distira, bistaratze-tamaina eta kalitatea alda ditzakezu. Adibidez, letra-tipo edo bistaratze-tamaina jakin bat hauta dezakezu errazago irakurtzeko, edo egoera-barrako ikonoak alda ditzakezu.

Laguntza behar baduzu, jo *Atzealdea* atalera (31. orrialdea). Itzali aurretik pantailak piztuta igaroko duen denbora aldatzeko, jo *Pantaila piztu edo itzaltzea* atalera (24. orrialdea).

Pantailako doikuntza bat aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Pantalla.**

- 2 Sakatu aldatu nahi duzun doikuntza.
- 3 Erabili kontrol lerragarriak, kontrol-laukiak edo menu gehigarriak doikuntza zehazteko.

Distira

Doitu distiraren maila kontrol lerragarriarekin. **Brillo automático** ere gaitu dezakezu, distira inguruko argiaren arabera automatikoki optimizatzen.

Zurien balantzea

Hautatu doikuntza lehenetsietako bat. **Personalizar** aukeratzen baduzu, kontrol lerragarriak erabil ditzakezu zurien balantzea doitzeko. Aurrez zehaztutako konfiguraziora itzultzeko, hautatu **Estándar**.

Pantaila itzaliarekin ustekabeko erabilera galarazteko

Zure gailua poltsikoan edo poltsan daramazula ustekabean aktibatzea saihestu dezakezu. Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Impedir uso accidental con pantalla apagada** etengailua.


Kolore-sorta eta kontrastea

Hobetu argazki eta bideoen kalitatea zure gailuan ikusten dituzun bitartean. Adibidez, modu superbizia erabil dezakezu, pantailako koloreak biziagoak izateko.

Pantaila automatikoki biratzea

Konfiguratu pantaila, gailua piztuta dagoenean automatikoki biratu dadin edo ikuspegi bertikaleko moduan mantendu dadin.

Irakokizuna

Girar automáticamente la pantalla funtzioa desgaituta egon arren, pantaila eskuz biratu daiteke nabigazio-barran  (biratzeko ikonoa) ukituz.

Gaueko argia

Gaueko argiaren funtzioak pantailaren kolorea aldatzen du, eta anbar jarri. Modu horretan, pantaila hobeto ikusten da giro ilunetan eta lo hartzeko orduan.

Pantaila blokeatzeko doikuntza bat aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Pantalla > Avanzada > Ajustes pantalla de bloqueo**.
- 2 Sakatu aldatu nahi duzun doikuntza.
- 3 Erabili etengailuak, kontrol-laukiak eta menu gehigarriak doikuntza zehazteko.

Pantaila ainguratzea

Erabili pantailaren ainguraketa zure gailua aplikazio jakin baten pantaila bakarrik bistaratzeko moduan doitzeko. Adibidez, jolas bat erreproduzitzen ari bada, eta, ustekabean, hasteko botoia ukitzen baduzu, pantailaren ainguraketaren bitartez, martxan dagoen jolas-aplikazioaren pantaila txikiagotu egiten da. Halaber, funtzio hori erabil dezakezu zure gailua beste pertsona bati uzten diozunean eta sarbidea aplikazio bakar batera mugatu nahi diozunean. Adibidez, zure gailua beste pertsona bati utz diezaiokezu argazki bat ateratzeko, eta kameraren aplikazioan ainguratu dezakezu pantaila. Hartara, pertsona horrek ezingo du erraz sartu beste aplikazio batzuetan (adibidez, posta elektronikoa).

Oharra

Pantailaren ainguraketa ez da segurtasun-ezaugarri bat, eta ez du guztiz galarazten beste erabiltzaile batzuek ainguraketa hori kentzea eta zure gailuan sartzea. Zure datuak babesteko, pantailaren ainguraketa kendu aurretik PIN bat, pasahitz bat edo pantaila blokeatzeko eredu bat eska dezan konfiguratu behar duzu zure gailua.


Pantailaren ainguraketa gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Bloqueo de pantalla y seguridad > Avanzada > Fijar pantalla**.
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu etengailua.



Irakokizuna

Pantailaren ainguraketa erabiltzeko, ez da nahitaezkoa eredu, PIN edo pasahitz bat izatea.

Pantaila bat ainguratzea

- 1 Ziurtatu pantailaren ainguraketa aktibatuta dagoela gailuan.
- 2 Ireki aplikazio bat, eta jo ainguratu nahi duzun pantailara.
- 3 Azkena erabilitako aplikazioen leihoa irekitzeko, pasatu hatza gorantz  (hasteko botoia) botoian.
- 4 Sakatu aplikazioen leihoaren goialdean dagoen aplikazioaren ikonoa, eta, ondoren, sakatu **Fijar**.
- 5 Agertzen den leihoan, sakatu **ENTENDIDO**.

Pantaila baten ainguraketa kentzea

- Ainguratutako pantailan, luze sakatu  (atzera egiteko botoia) eta  (hasteko botoia) pantailaren ainguraketa kendu arte.

Irakokizuna

Pantaila ainguratzeko funtzioa aktibatzean segurtasun-aukera bat hautatu baduzu, zure eredu, PINa edo pasahitza sartu beharko duzu gailua desblokeatzeko eta pantailaren ainguraketa kendu ahal izateko.

Aplikazioaren doikuntzak

Aplikazio batzuek baimenak eskatuko dizkizute erabiltzen hasten zarenean. Aplikazio bakoitzeko baimenak banan-banan eman edo ukatu ditzakezu, doikuntzen menuaren bidez edo baimenak berresteko elkarrizketa-koadroaren bidez. Baimenaren baldintzak aplikazioaren diseinuaren arabera izango dira.

Baimenak ematea edo ukatzea

Elkarrizketa-koadroa agertzean, baimenak eman edo ukatu nahi dituzun aukeratu dezakezu. Lehenago beste Android bertsio bat erabili baduzu, aplikazio gehienek jasoak izango dituzte behar dituzten baimenak.

Baimen bat ematea

- Baimen bat emateko, sakatu **PERMITIR**. Nahi izanez gero, **No volver a preguntar** kontrol-laukia aktiba dezakezu.

Baimen bat ukatzea

- Baimen bat ukatzeko, sakatu **DENEGAR**, elkarrizketa-koadroa agertzean.

Aplikazio batzuk erabilgarri egoten jarraitzen dute, baimenak ukatu arren.

Funtsezko baimenak

Baimen batzuk nahitaez onartu behar dira aplikazioek ondo funtziona dezaten. Kasu horietan, elkarrizketa-koadro batek emango dizu horren berri.

Aplikazioak konfiguratzeko

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aukeratu konfiguratzeko aukera bat. Adibidez, aukeratu konfiguratu nahi duzun aplikazio bat.

Baimen kritikoak ematea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones > Avanzada > Permisos de aplicaciones**.
- 2 Hautatu aukera bat, eta, ondoren, sakatu dagokion etengailua baimenak doitzeko.

Aplikazioen eguneratze automatikoak baimentzea edo ukatzea

Eguneratze automatikoen funtzioa gaituta badago, zure aplikazioak eguneratu egingo dira, inolako galderarik jaso gabe. Beraz, gerta daiteke ez ohartzea zure gailua datu-bolumen handiak deskargatzen ari dela. Datu-transferentzien kostuak saihesteko (handiak izan daitezke), desgaitu eguneratze automatikoak eta gaitu eguneratze automatikoak wifi-konexio bidez bakarrik egiteko aukera. Aplikazioak automatikoki ez eguneratzeko, eguneratze automatikoen funtzioa desgaitu behar duzu Play Store aplikazioan.

Eguneratze automatikoak Play Store aplikazio guztietan gaitu edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu ► (Play Store-ren ikonoa).
- 2 Sakatu = (aukeren ikonoa), eta, ondoren, **Ajustes > Actualización automática de aplicaciones**.
- 3 Aukeratu nahi duzun aukera.

Aplikazioen lotura

Zure gailuan web-eko esteka jakin bat kudeatzeko aplikazioa lehenets dezakezu. Horrek esan nahi du, esteka ezarrita badago, ez duzula aplikazio bat aukeratu beharko esteka bat irekitzen den bakoitzean. Edozein unetan alda dezakezu aplikazio lehenetsia.

Aplikazioen loturak doikuntzen menutik administratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Sakatu **Avanzada > Aplicaciones predeter. > Abrir enlaces**.
- 3 Hautatu aplikazio bakoitza, eta aldatu doikuntzak nahi duzun bezala.

Aplikazioak berrezartzea

Zure aplikazioa berrezarri dezakezu, edo haren datuak hustu, baldin eta aplikazioak ez badu erantzuten edo gailuan arazoak sortzen baditu.

Aplikazio-lehentasunak berrezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aplikazio guztiak ikusteko, sakatu > (aplikazio guztiak ikusteko ikonoa).
- 3 Sakatu ⋮ (menuaren ikonoa) > **Recuperar ajustes de aplicaciones > Restablecer aplicaciones**.

Iradokizuna

Aplikazio-lehentasunak berrezarrita ez dira ezabatzen aplikazio horiekin lotutako datuak.

Aplikazio bateko datuak ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aukeratu aplikazio edo zerbitzu bat, eta, ondoren, sakatu **Almacenamiento > BORRAR DATOS > Aceptar**.

Oharra

Aplikazio bateko datuak ezabatzen dituzunean, behin betiko ezabatzen dira gailutik. Aplikazio edo zerbitzu guztiek ez dute aukera ematen datuak ezabatzeko.

Aplikazio baten cache memoria ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aukeratu aplikazio edo zerbitzu bat, eta, ondoren, sakatu **Almacenamiento > BORRAR CACHE**.

Oharra

Aplikazio edo zerbitzu guztiek ez dute aukera ematen cache memoria ezabatzeko.

Aplikazio bateko doikuntza lehenetsiak ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones**.
- 2 Aukeratu aplikazio edo zerbitzu bat, eta, ondoren, sakatu **Avanzada > Abrir de forma predeterminada > BORRAR VALORES PREDETERM.**

Oharra

Aplikazio edo zerbitzu guztiek ez dute aukera ematen doikuntza lehenetsiak ezabatzeko.

Hizkuntza-doikuntzak

Zure gailuan hizkuntza lehenetsi bat aukeratu dezakezu, eta, ondoren, berriz aldatu. Horrez gainera, testua idazteko erabiltzen duzun hizkuntza alda dezakezu.

Hizkuntza aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Idiomas e introducción de texto > Idiomas**.
- 2 Hizkuntza aldatzeko, irristatu nahi duzun hizkuntza zerrendako lehenengo lekura. Nahi duzun hizkuntza ez bada zerrendan ageri, sakatu + (gehitzeko ikonoa) hizkuntza hori gehitzeko.

Oharra

Hizkuntza aukeratzean nahastu egin bazara eta menuko testuak irakurri ezin badituzu, bilatu eta sakatu ⚙️ (doikuntzen ikonoa) > ⚙️ (sistemako menuaren ikonoa). Ondoren, aukeratu 🌐 (teklatuaren ikonoa) ikonoaren ondoko testua, eta aukeratu irekitako menuko lehenengo sarrera. Ondoren, nahi duzun hizkuntza aukeratu dezakezu.

Eguna eta ordua

Gailuaren eguna eta ordua alda ditzakezu.

Data eskuz ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Fecha y hora**.
- 2 Desgaitu **Fecha y hora automáticas** funtzioa, etengailua sakatuz.
- 3 Sakatu **Establecer fecha**.
- 4 Nahi duzun data ezartzeko, pasatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz, edo erabili datak.
- 5 Sakatu **Aceptar**.

Ordua eskuz ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Fecha y hora**.
- 2 Desgaitu **Fecha y hora automáticas** funtzioa, etengailua sakatuz.
- 3 Sakatu **Establecer hora**.
- 4 Aukeratu orduaren eta minutuen balioak.
- 5 Sakatu **Aceptar**.

Ordu-eremua eskuz doitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Fecha y hora**.
- 2 Desgaitu **Zona horaria automática** funtzioa, etengailua sakatuz.
- 3 Sakatu **Elegir zona horaria**.
- 4 Hautatu aukera bat.

Soinuaren irteera hobetzea

Zure gailuko soinua hobetzeko, eskuz gaitu ditzakezu soinu-doikuntza batzuk (adibidez, ekualizadorea eta soinu inguratzaila). Abesti eta bideoen arteko bolumen-aldeak minimizatzeko, normalizatzaile dinamikoa gaitu dezakezu.

Musika-fitxategi konprimituen kalitatea eguneratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Ajustes de audio**.
- 2 Gaitu **DSEE HX** funtzioa, etengailua ukituz.

Oharra

Bereizmen handiko audioaren baliokidea den soinua erreproduzitzeko, bereizmen handiko audioa onartzen duten aurikular haridunak behar dira.

Soinua automatikoki hobetzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Ajustes de audio**.
- 2 Gaitu **ClearAudio+** funtzioa, etengailua ukituz.

Ekualizadorea erabilia soinua eskuz doitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Ajustes de audio**.
- 2 **ClearAudio+** edo **DSEE HX** funtzioak gaituta badaude, sakatu etengailua desgaitzeko.
- 3 Sakatu **Efectos de sonido > Ecuador**.
- 4 Soinua eskuz doitzeko, irristatu maiztasun-bandako botoiak. Antolaketa lehenetsi bat aukeratzeko, sakatu ∇ (aukera gehiagoren ikonoa), aukeratu antolaketa bat, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**, berresteko.

Irakokizuna

Soinu-irteerako doikuntzak eskuz aldatzeak ez du inolako eraginik ahots-komunikazioko aplikazioetan. Adibidez, ez da inolako aldaketarik eragiten ahots-deien soinu-kalitatean.

Soinu ingurutzaileren ezaugarria aktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Ajustes de audio > Efectos de sonido > Sonido envolvente (VPT)**.
- 2 Pasatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz, nahi duzun doikuntza erakusteko, eta gero sakatu ◀ (atzera egiteko botoia). Agertzen den doikuntza aplikatzen da.

Bolumen-diferentziak normalizatzaile dinamikoaren bidez minimizatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sonido > Ajustes de audio**.
- 2 Desgaitu DSEE HX funtzioa etengailua ukituz, baldin eta gaituta badago.
- 3 Gaitu **Normalizador dinámico** funtzioa, etengailua ukituz.

Zenbait erabiltzaile-kontu

Zure gailuak erabiltzaile kontu bat baino gehiago izatea onartzen du. Gailua lehen aldiz konfiguratzeko duen erabiltzailea bihurtzen da gailuaren jabe. Jabeak bakarrik kudea ditzake beste erabiltzaile batzuen kontuak.

Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Avanzada > Varios usuarios > Añadir usuario**; ondoren, jabeak bi kontu mota sor ditzake:

- Ohiko erabiltzailea: kontu-mota hori egokia da zure gailua erregulartasunez erabiltzen dutenentzat.
- Erabiltzaile gonbidatua: gaitu gonbidatuaren kontuaren aukera, zure gailua aldi batez bakarrik erabiliko duten pertsonentzat.

Oharra

Funtzio batzuk jabearentzat bakarrik daude erabilgarri (adibidez, softwarea eguneratu edo datuak transferitzea). Funtzio horiek ez dira agertzen menuan, saioa ohiko erabiltzaile edo erabiltzaile gonbidatu gisa hastean.

Erabiltzaile-kontuen artean aldaketak egitea

- 1 Irristatu egoera-barra beherantz bi hatzez, eta sakatu ⚙ (erabiltzailearen ikonoa).
- 2 Sakatu aldatzea nahi duzun erabiltzaile-kontuari dagokion ikonoa. Erabiltzaile-kontu horren blokeo-pantaila agertzen da.

Testua idaztea

Pantailako teklatuak


Gailuan, testua idazteko hornitzaile-kopuru bat dago aurrez instalatuta.

Oharra

Testua izateko lehenetsitako hornitzailea erabiltzen dituzun hizkuntza- edo eskualde-
doikuntzen arabera izan daiteke. Litekeena da testua idazteko lehenetsitako hornitzaile
batzuk ez egotea erabilgarri zure eskualdean.

SwiftKey® teklatura

Testu bat idazteko, pantailako teklatura erabil dezakezu, eta letra bakoitza banan-
banan ukitu, edo SwiftKey Flow teklatura erabil dezakezu, eta hatza letraz letra
irristatu, hitzak osatzen joateko.



- 1 Zenbakiak eta sinboloak bistaratzeko
- 2 Letra xeheak, larriak eta letra larrien blokeoa txandakatzeko
- 3 Sarbideko emojiak
- 4 Koma bat sartzeko
- 5 Zuriune bat sartzeko.
- 6 Domeinu baten izena sartzeko
- 7 Puntuazioa sartzeko
- 8 Ezabatzeke
- 9 Lerro-jauzi bat txertatzeko

Iradokizuna

- Puntu bat sartzeko, sakatu bi aldiz zuriune-barra, hitz bat sartu ondoren.
- SwiftKey teklaturari buruzko informazio gehiago jasotzeko, joan <https://swiftkey.com/> webgunera.

Pantailako teklatuaren aukerak aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Sistema > Idiomas e introducción de texto > Teclado en pantalla**.
- 2 Sakatu **Administrar teclados**, eta, ondoren, sakatu teklatura gaitzeko edo desgaitzeko teklatura.

Keinu-idazketako funtzioarekin testua sartzea

- 1 Pantailan teklatura agertzen denean, irristatu hatza letraz letra nahi duzun hitza idazteko.
- 2 Hitz bat sartu ondoren, altxatu hatza. Idatzitako letren arabera, hitz bat proposatzen da.
- 3 Nahi duzun hitza agertzen ez bada, sakatu **✕** (atzera egiteko ikonoa) beste aukera batzuk ikusteko eta nahi duzuna aukeratzeko. Orduan ere ez bada agertzen idatzi nahi duzun hitza, ezabatu hitz osoa, eta sartu berriro, edo idatzi hitza letrak banan-banan sakatuz.

Testua editatzea

Testua hautatu, ebaki, kopiatu eta itsatsi dezakezu idazten duzun bitartean. Edizio-aukeretan sartzeko, ukitu bi aldiz idatzitako testua. Hori egitean, edizio-aukerak erabili ahal izango dituzu, aplikazio-barra baten bidez.

Aplikazio-barra

Ekintza hauek egin ditzakezu hautatutako testuan:

- Ebakitzea
- Kopiatzea
- Itsastea
- Partekatzea
- Dena hautatzea

Oharra

Arbelean testua gorde baduzu bakarrik agertzen da itsasteko aukera.

Deitzea

Deiak egitea

Dei bat egiteko, eskuz marka dezakezu telefono-zenbaki bat edo markatze adimenduneko funtzioa erabil dezakezu kontaktu-zerrendan eta dei-erregistroetan zenbakiak azkar bilatzeko. Bideo-dei bat egiteko, zure gailuko Duo bideo-txat aplikazioa erabil dezakezu.

Zure gailuak bi SIM baldin baditu, SIM txartel lehenetsi bat konfiguratu dezakete deiak egiteko, edo dei bat egiten duzun bakoitzean aukeratu dezakezu zein SIM txartela erabili. Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Ajustes avanzados > Doble SIM > Llamadas para seleccionar una opción.**

Deiak egiteari buruzko deskribapen orokorra



- 1 Teklatu adimenduna eta aukerak bistartzeko
- 2 Ezabatzeko.
- 3 Markaketa-teklatura
- 4 Deitzeko botoia

Markaketa-teklatura irekitzea


- 1 Bilatu eta sakatu ☎ (telefonoaren ikonoa).
- 2 Markaketa-teklatura agertzen ez bada, sakatu ● (markaketa-teklatuaren ikonoa).

Telefono-zenbaki bat markatzea




- 1 Bilatu eta sakatu ☎ (telefonoaren ikonoa).
- 2 Deien erregistroa agertzen bada, sakatu ● (markaketa-teklatuaren ikonoa) markaketa-teklatura bistartzeko.
- 3 Idatzi telefono-zenbakia, eta sakatu ● (deitzeko botoia).
- 4 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.

Markaketa adimenduna erabiliz deiak egitea

- 1 Bilatu eta sakatu ☎ (telefonoaren ikonoa).

- 2 Deien erregistroa agertzen bada, sakatu  (markaketa-teklatuaren ikonoa) markaketa-teklatura bistaratzeko.
- 3 Deitu nahi diozun kontaktuaren letrak edo zenbakiak idazteko, erabili markaketa-teklatura. Letra edo zenbaki bakoitza sartzen duzunean, bat-etortze posibleen zerrenda agertzen da.
- 4 Sakatu deitu nahi duzun kontaktua.
- 5 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.



Nazioarteko deiak egitea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Dei-erregistroa bistaritzen da. Markaketa-teklatura bistaratzeko, sakatu  (markaketa-teklatuaren ikonoa).
- 3 Luze sakatu 0, + ikurra bistaratu arte.
- 4 Sartu herrialdearen kodea, eremu-kodea (hasierako zeroa jarri gabe) eta telefono-zenbakia. Ondoren, sakatu  (deitzeko botoia).
- 5 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.

Markaketa zuzeneko zenbaki bat gehitzea pantaila nagusira

- 1 Luze sakatu zure pantaila nagusiko eremu huts bat.
- 2 Pertsonalizazio-menuan, sakatu **Widgets**.
- 3 Mugitu aplikazio-zerrendan, eta aukeratu **Llamada directa**.
- 4 Aukeratu markaketa zuzeneko zenbaki gisa erabili nahi duzun kontaktua eta zenbakia.

Zure telefono-zenbakia irteerako deietan erakustea edo ezkutatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa) > **Ajustes**.
- 3 Zure gailuak bi SIM baditu, sakatu **Cuentas de llamadas**, eta hautatu SIM txartel bat. Zure gailuak SIM bakarria badu, sakatu **Llamadas**.
- 4 Sakatu **Ajustes adicionales** > **ID de llamada**, eta hautatu aukera bat.

Oharra

Litekeena da operadore batzuek aukera hori ez ematea.

Deiak jasotzea

Dei bat jasotzen baduzu gailua atsedean moduan edo pantaila blokeatuta dagoela, telefonoaren aplikazioa pantaila osoko formatuan irekiko da. Bi SIM dituzten gailuetan, pantailaren atzealdeko koloreak adierazten du zer SIM txartelera eginda dagoen deia. Deien doikuntzan atzealdearen kolorea alda daiteke.

Pantaila aktibo dagoela dei bat jasotzen baduzu, irekita dagoen pantailaren gaineko jakinarazpen gisa agertzen da deia. Bi SIM dituen gailu bat erabiltzen ari bazara, SIM txartelaren informazioa ere agertuko da. Jakinarazpena agertzen denean, bi aukera dituzu: deiari erantzun eta telefonoko aplikazioen pantaila ireki, ala deia baztertu eta uneko pantailan jarraitu.

Dei bati erantzutea pantaila ez-aktibo dagoela

- Deia jasotzean, pasatu hatza  (sarrerako deiaren ikonoa) ikonotik gorantz.

Dei bati erantzutea pantaila aktibo dagoela

- Dei bat jasotzean, sakatu **RESPONDER** pantailaren goialdean agertzen den jakinarazpenean.

Irakokizuna

Deiari erantzun beharrean, telefonoko aplikazioen pantaila nagusira jo dezakezu jakinarazpen-leihoak ukituz. Modu horretan, aukera gehiago izango dituzu deia kudeatzeko. Adibidez, mezu baten bidez baztertu dezakezu deia.

Dei bat bazterzea pantaila ez-aktibo dagoela

- Deia jasotzean, pasatu hatza  (sarrerako deiaren ikonoa) ikonotik beherantz.

Dei bat bazterzea pantaila aktibo dagoela

- Dei bat jasotzean, sakatu **RECHAZAR** pantailaren goialdean agertzen den jakinarazpenean.

Irakokizuna

Deia baztertu beharrean, mugikorreko aplikazioen pantaila nagusira jo dezakezu jakinarazpen-leihoak ukituz. Modu horretan, aukera gehiago izango dituzu deia kudeatzeko. Adibidez, mezu baten bidez baztertu dezakezu deia.

Sarrerako dei baten dei-tonua isiltzea


- Deia jasotzean, sakatu bolumenaren tekla.

Dei bat ez onartzea eta SMS testu-mezu bat bidaltzea


Deia testu-mezu baten bidez baztertu dezakezu. Testu-mezua automatikoki bidaliko zaio deiaren igorleari, eta **Mensajería con el contacto** elkarrizketan gordeko da.

Zure gailuan aurrez idatzita dauden mezu batzuk aukeratu ditzakezu, edo mezu berri bat sortu. Halaber, zure mezu pertsonalizatuak sor ditzakezu, aurrez idatzitakoak editatuz.


Dei bat bazterzea testu-mezu baten bidez, pantaila ez-aktibo dagoela

- 1 Dei bat jasotzen duzunean, irristatu  (mezu bidez erantzunda baztertzeko ikonoa) pantailaren erdialdera.
- 2 Aukeratu aurrez idatzitako mezu bat edo sakatu **Escribir nuevo mensaje**.



Dei bat bazterzea testu-mezu baten bidez, pantaila aktibo dagoela

- 1 Dei bat jasotzean, sakatu telefono-deia edo kontaktu-izena bistaritzen duen jakinarazpen-leihoak.
- 2 Irristatu  (mezu bidez erantzunda baztertzeko ikonoa) pantailaren erdialdera. Aukeratu aurrez idatzitako mezu bat edo sakatu **Escribir nuevo mensaje**.

Bigarren dei bat ez onartzea eta SMS testu-mezu bat bidaltzea

- 1 Dei bat jasotzean txistu batzuk entzuten badituzu, irristatu  (mezu bidez erantzunda baztertzeko ikonoa) pantailaren erdialdera.
- 2 Aukeratu aurrez idatzitako mezu bat edo sakatu **Escribir nuevo mensaje**.

Dei bat baztertzeko erabiltzen den testu-mezua editatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa) > **Ajustes**.
- 3 Zure gailuak bi SIM baditu, sakatu **Cuentas de llamadas**, eta hautatu SIM txartel bat. Zure gailuak SIM bakarra badu, sakatu **Llamadas**.
- 4 Sakatu **Rechazar llamadas con mensaje**.



- 5 Sakatu editatu nahi duzun mezua, eta, ondoren, egin nahi dituzun aldaketak.
- 6 Sakatu **Aceptar**.

Deiak birbidaltzea



Deiak beste hartzaile batera zuzendu ditzakezu (adibidez, beste telefono-zenbaki batera edo beste gailu batera).

Bi SIM dituen gailu bat erabiltzen ari bazara, SIM1 txarteleko sarrerako deiak SIM2 txartelera bideratu ditzakezu, 1 txartela erabilgarri ez badago; eta alderantziz berdin. Funtzio horri bi SIMetarako sarbidea deitzen zaio, eta eskuz gaitu behar da.

Deiak desbideratzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa) > **Ajustes**.
- 3 Zure gailuak bi SIM baditu, sakatu **Cuentas de llamadas**, eta hautatu SIM txartel bat. Zure gailuak SIM bakarra badu, sakatu **Llamadas**.
- 4 Sakatu **Desvío de llamadas** eta hautatu aukera bat.
- 5 Idatzi deiak zer zenbakitara desbideratzea nahi duzun, eta, ondoren, sakatu **Activar**.

Deiak desbideratzea desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa) > **Ajustes**.
- 3 Zure gailuak bi SIM baditu, sakatu **Cuentas de llamadas**, eta hautatu SIM txartel bat. Zure gailuak SIM bakarra badu, sakatu **Llamadas**.
- 4 Sakatu **Desvío de llamadas**.
- 5 Hautatu aukera bat, eta, ondoren, sakatu **Desactivar**.

Bi SIMetarako sarbidea funtzioa gaitzea

Oharra

Bi SIMeko gailuei bakarrik aplikatzen zaie funtzio hori.

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Redes e Internet > Ajustes avanzados > Doble SIM > Accesibilidad a Doble SIM**.
- 2 **Accesibilidad a Doble SIM** funtzioan, sakatu funtzioa gaitzeko gailua. Segi pantailako jarraibideei, prozedura amaitzeko.


Iradokizuna

Bi SIMetarako sarbidea funtzioak ez badu funtzionatzen gaitu ondoren, egiaztatu SIM txartel bakoitzaren telefono-zenbakia ondo sartu duzula. Kasu batzuetan, zenbakiak automatikoki detektatzen dira konfigurazioan. Bestela, eskuz sartzeko eskatuko zaizu.

Zenbakiak blokeatzea

Zenbaki batzuk blokea ditzakezu, horietatik deirik ez jasotzeko edo mezurik ez bidaltzeko. Aukeratu edo idatzi biltegiratutako zenbaki bat.

Biltegiratutako zenbakia blokeatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu luze blokeatu nahi duzun zenbakia.
- 3 Sakatu **Bloquear número** eta, ondoren, **BLOQUEAR**. Deiak eta testu-mezuak blokeatuta geratuko dira.

Zenbaki bat idatziz blokeatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📞 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ⋮ (menuaren ikonoa) > **Ajustes** > **Bloqueo de llamadas** > **Añadir un número**.
- 3 Sartu blokeatu nahi duzun telefono-zenbakia, eta, gero, sakatu **BLOQUEAR**. Deiak eta testu-mezuak blokeatuta geratuko dira.

Zenbaki blokeatu bat desblokeatzea




- 1 Bilatu eta sakatu 📞 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ⋮ (menuaren ikonoa) > **Ajustes** > **Bloqueo de llamadas**.
- 3 Sakatu ✕ (bertan behera uzteko ikonoa) desblokeatu nahi duzun telefono-zenbakiaren ondoan, eta, ondoren, sakatu **DESBLOQUEAR**. Zenbaki horretako deiak eta testu-mezuak desblokeatu egingo dira.

Kontaktuak


Kontaktuak gehitzea eta editatzea

Kontaktuak gehitu, editatu edo ezabatu ditzakezu zure gailuan eta kontu sinkronizatuetan. Gehitu irudiak zure kontaktuei edo ezarri dei-tonu pertsonalizatuak. Kontaktuari buruzko informazioa ere edita dezakezu.

Kontaktu bat gehitzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (kontakatu berri bat gehitzeko ikonoa).
- 3 Kontakatu bat lehen aldiz gehitu behar baduzu eta gailuan zenbait kontu sinkronizatu badituzu, hautatu bat. Aukeratutakoa izango da kontaktuak gordetzeko kontu lehenetsia. Aurrerago, kontaktua non gorde aukeratu dezakezu,  (kontakatu berria gehitzeko ikonoa) > **Se guardaré en** ukituz.
- 4 Sartu edo aukeratu kontaktuari eman nahi diozun izena.
- 5 Amaitutakoan, sakatu **GUARDAR**.



Oharra

Zure kontaktuak biltegitratzeko doikuntza lehenetsia aldatzeko, sakatu  (aukeren ikonoa), eta aukeratu kontu berria. Kontakatuak gailuan bakarrik gordetzeko, Contacto del móvil ere aukeratu dezakezu. Lehendik duzun kontaktu bat beste kontu batera mugitzeko, berriz sortu behar duzu kontaktua, eta kontu horretan gorde.

Irakokizuna

Kontaktuaren telefono-zenbakia baino lehen + zeinu bat eta herrialde-kodea gehitzen badituzu, ez duzu zenbakia editatu beharko atzerritik deiak egiten dituzunean.




Kontaktu bat editatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu editatu nahi duzun kontaktua, eta, ondoren, sakatu  (editatzeko ikonoa).
- 3 Editatu nahi duzun informazioa.
- 4 Amaitutakoan, sakatu **GUARDAR**.

Oharra

Sinkronizazio-zerbitzu batzuek ez dute aukerarik ematen kontaktuen xehetasunak editatzeko.




Kontaktuetan irudiak gehitzeko edo kentzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu editatu nahi duzun kontaktua, eta, ondoren, sakatu  (editatzeko ikonoa).
- 3 Sakatu  (kameraren ikonoa), eta hautatu aukera bat.
- 4 Irudia eguneratu ondoren, sakatu **GUARDAR**.


Irakokizuna

Kontaktu bati irudi bat gehitzeko, Álbum aplikazioa ere erabil dezakezu.

Kontaktu baten dei-donua pertsonalizatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu editatu nahi duzun kontaktua, eta, ondoren, sakatu  (menuaren ikonoa) > **Establecer tono**.
- 3 Zure gailuan gordeta dagoen musika-artxibo bat aukeratzeko, aukeratu dei-tonu bat edo sakatu  (gehitzeko ikonoa).
- 4 Sakatu **Aceptar**.

Kontaktu baten dei guztiak ahots-postontzira bidaltzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (telefonoaren ikonoa).
- 2 Hautatu nahi duzun kontaktua.

- 3 Sakatu ⋮ (menuaren ikonoa) > **Redirigir al buzón de voz.**

Kontaktuak ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📞 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu luze ezabatu nahi duzun kontaktua.
- 3 Sakatu ■ (ezabatzeko ikonoa), eta, gero, **ELIMINAR.**
- 4 Kontaktu batzuk edo guztiak ezabatzeko, markatu ezabatu nahi dituzun kontaktuen ondoko kontrol-laukiak.
- 5 Sakatu ■ (ezabatzeko ikonoa), eta, gero, **ELIMINAR.**

Harremanetarako zure informazioa editatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📞 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa) > **Mi información.**
- 3 Sakatu ✎ (editatzeko ikonoa), eta, ondoren, sartu datu berriak edo egin nahi dituzun aldaketak.
- 4 Amaitutakoan, sakatu **GUARDAR.**

Testu-mezu baten bitartez kontaktu berri bat sortzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📧 (mezuen ikonoa).
- 2 Hautatu telefono-zenbakia, eta sakatu ⋮ (menuaren ikonoa) > **Añadir contacto.**
- 3 Hautatu lehendik dagoen kontaktu bat, edo sakatu **Crear nuevo contacto.**
- 4 Editatu kontaktuaren informazioa, eta sakatu **GUARDAR.**

Kontaktuak multzokatzea

Elkarrekin lotura duten kontaktu-taldeak antolatzeko, kontaktuen etiketak sor ditzakezu. Taldeei "Familia" edo "Lagunak" deitu diezaiekezu, gainerako kontaktuetatik desberdintzeko.

Talde baten etiketa berri bat sortzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📞 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa), eta, ondoren, **Crear etiqueta.**
- 3 Aukeratu zer lekutan biltegitatu nahi dituzun zure kontaktuak.
- 4 Idatzi etiketa baten izena, eta sakatu **Aceptar.**

Talde baten etiketa ezabatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📞 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa), eta, ondoren, ezabatu nahi duzun etiketa.
- 3 Sakatu ⋮ (menua ikonoa), eta, ondoren, **Eliminar etiqueta.**

Kontaktuak transferitzea

Hainbat modu daude kontaktuak gailu berrira transferitzeko. Kontaktuak lineako kontu batetik sinkroniza daitezke edo zuzenean beste gailu batetik inportatu.

Zure gailu zaharreko kontaktuak lineako kontu batekin sinkronizatzen badituzu, zure kontaktuak gailu berrira transferitu ditzakezu kontu hori erabiliz.

Halaber, memoria-txartel batera kopiatu ditzakezu kontaktuak, bluetooth teknologia erabili edo SIM txartel batean gorde. Gailu zaharreko kontaktuak transferitzeari buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, begiratu erabiltzailearen gidaliburuan.

Kontaktuak transferitzea lineako kontu baten bidez

Zure gailu zaharreko edo zure ordenagailuko kontaktuak lineako kontu batekin (adibidez, Google Sync™ edo Microsoft Exchange ActiveSync) sinkronizatzen badituzu, zure kontaktuak gailu berrira transferitu ditzakezu kontu hori erabiliz.

Datuen autosinkronizazioa aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📵 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa), eta, ondoren, **Ajustes**.
- 3 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Cuentas**, eta, ondoren, **Sincronizar datos automáticamente** etengailua.
- 4 Sakatu **Aceptar**.

Oharra

Dagokion sinkronizazio-kontuan hasi behar duzu saioa zure kontaktuak harekin sinkronizatu ahal izateko.

Kontaktuak transferitzeko beste metodo batzuk

Modu asko daude zure gailu zaharretik berrira kontaktuak transferitzeko. Adibidez, kontaktuak memoria-txartel batera kopiatu ditzakezu edo bluetooth teknologia erabil dezakezu. Gailu zaharreko kontaktuak transferitzeari buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, begiratu erabiltzailearen gidaliburuan.

Memoria-txarteletik kontaktuak inportatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📵 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa), eta, ondoren, **Ajustes > Importar > Tarjeta SD o almacenamiento interno (archivo .vcf)**.
- 3 Aukeratu zer lekutan biltegiratu nahi dituzun zure kontaktuak.
- 4 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa), eta, ondoren, hautatu **Tarjeta SD**.
- 5 Inportatu nahi dituzun artxiboak aukeratzeko, ukitu itzazu.

Kontaktuak Bluetooth bidez inportatzea

- 1 Sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Asociar dispositivo**, eta ziurtatu gailua ikusgarri gisa dagoela ezarrita.
- 2 Zure gailura fitxategi bat iritsi dela jakinarazten dizunean, arrastatu behera egoera-barra, eta sakatu jakinarazpena, fitxategiak transferitzea onartzeko.
- 3 Sakatu **Aceptar** fitxategi-transferentzia onartzeko.
- 4 Egoera-barra beherantz arrastatzea. Transferentzia amaitzean, sakatu jakinarazpena.
- 5 Sakatu jasotako artxiboa, eta hautatu non gorde nahi dituzun zure kontaktuak.

SIM txarteletik kontaktuak inportatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📵 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa), eta, ondoren, **Ajustes > Importar**.
- 3 Zure gailuak SIM baterako espazioa bakarrik badu, sakatu **Kontaktuak SIM txarteletik inportatzea** Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat.
- 4 Aukeratu zer lekutan biltegiratu nahi dituzun zure kontaktuak.
- 5 Aukeratu inportatu nahi dituzun kontaktuak, eta, ondoren, sakatu **Importar**.

Kontaktuen segurtasun-kopia

Zure kontaktuen segurtasun-kopiak egiteko, barne-memoria, memoria-txartel bat edo SIM txartel bat erabil ditzakezu.

Kontaktu guztiak memoria-txartel batera esportatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📍 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa) > **Ajustes** > **Exportar** > **a la tarjeta SD o el almacenamiento interno (archivo .vcf)**.
- 3 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa) > **Tarjeta SD**.
- 4 Hautatu helburu-karpeta bat, eta sakatu **GUARDAR**.

Kontaktuak SIM txartelera esportatzea

Oharra

Kontaktuak SIM txartel batera esportatzean, gerta daiteke informazio guztia ez esportatzea. SIM txartelek memoria mugatua dutelako gertatzen da hori.

- 1 Bilatu eta sakatu 📍 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa) > **Ajustes** > **Exportar**.
- 3 Zure gailuak SIM baterako espazioa bakarrik badu, sakatu **Exportar a tarjeta SIM**. Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu zer SIM txarteletara esportatu nahi dituzun kontaktuak.
- 4 Sakatu **Aceptar**.
- 5 Aukeratu esportatu nahi dituzun kontaktuak, eta, ondoren, sakatu **Exportar**.
- 6 Hautatu aukera bat, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**.

Kontaktu guztiak barne-memoriara esportatzea

- 1 Bilatu eta sakatu 📍 (telefonoaren ikonoa).
- 2 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa) > **Ajustes** > **Exportar** > **a la tarjeta SD o el almacenamiento interno (archivo .vcf)**.
- 3 Sakatu ⋮ (menuaren ikonoa) > **Mostrar almacenamiento interno**.
- 4 Sakatu ≡ (aukeren ikonoa) eta, ondoren, sakatu gailuaren eredu-zenbakia. □ (barne-memoriaren ikonoa) ikonoaren ondoan dago.
- 5 Hautatu helburu-karpeta bat, edo, sakatu **GUARDAR**.

Mezularitza eta txata


Mezuak irakurri eta bidaltzea

Mezuen aplikazioan, elkarrizketa moduan bistaratzen dira zure mezuak. Beraz, bildu egiten dira pertsona bati bidalitako eta hark zuri bidalitako mezuak.

Oharra



Mezu batean bidal dezakezun karaktere-kopurua operadorearen eta erabiltzen duzun hizkuntzaren arabera da. Multimedia-mezu batek gehienez izan dezakeen tamaina – gehitutako multimedia-artxiboen tamaina barne– operadorearen arabera izango da. Jarri harremanetan sare-operadorearekin, informazio gehiago izateko.





Mezularitzaren deskribapen orokorra



- 1 Elkarrizketa-zerrendara itzultzeko
- 2 Mezuaren igorleari deitzeko
- 3 Menuko aukerak ikusteko
- 4 Bidalitako eta jasotako mezuak
- 5 Amaitutako mezu bat bidaltzeko
- 6 Atxikitako elementuak gehitzeko

Mezuak sortu eta bidaltzea


- 1 Bilatu eta sakatu  (mezuen ikonoa).
- 2 Sakatu  (mezua berriaren ikonoa).
- 3 Sartu hartzailearen izena edo telefono-zenbakia, eta, ondoren, aukeratu agertzen den proposamenetako bat. Hartzailea ez badago kontaktu gisa erregistratuta, sartu zure zenbakia eskuz.

- 4 Taldeko mezu bat bidali nahi baduzu, sakatu  (hartzailea gehitzeko ikonoa), hartzaile gehiago gehitzeko.
- 5 Zure gailuak bi SIM baditu, sakatu  (SIMa aukeratzeko ikonoa) zer SIM txartel erabili nahi duzun aukeratzeko.
- 6 Sartu mezuaren testua. Elementu atxiki bat gehitu nahi baduzu, sakatu  (gehitzeko ikonoa), eta hautatu dagokion aukera.
- 7 Mezua bidaltzeko, sakatu  (bidaltzeko ikonoa).

Irakokizuna

Bidali baino lehen mezu batetik irteten bazara, mezua zirriborro moduan gordeko da. Borrador hitzarekin etiketatzen da elkarrizketa.




Jasotako mezu bat irakurtzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (mezuen ikonoa).
- 2 Sakatu nahi duzun elkarrizketa.
- 3 Mezua oraindik ez bada deskargatu, saka ezazu.





Irakokizuna

Jasotako mezu guztiak modu lehenetsian gordetzen dira gailuko memorian.


Mezuei erantzutea

- 1 Bilatu eta sakatu  (mezuen ikonoa).
- 2 Sakatu mezua duen elkarrizketa.
- 3 Zure gailuak bi SIM baditu, sakatu  (SIMa aukeratzeko ikonoa) zer SIM txartel erabili nahi duzun aukeratzeko.
- 4 Idatzi zure erantzuna, eta sakatu  (bidaltzeko ikonoa).

Mezu bat birbidaltzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (mezuen ikonoa).
- 2 Sakatu birbidali nahi duzun mezua gordetzen duen elkarrizketa.
- 3 Zure gailuak bi SIM baditu, sakatu  (SIMa aukeratzeko ikonoa) zer SIM txartel erabili nahi duzun aukeratzeko.
- 4 Luze sakatu nahi duzun mezua, eta, ondoren, sakatu  (mezua birbidaltzeko ikonoa).
- 5 Aukeratu berriki erabilitako kontaktu bat zerrendan edo sakatu **Nuevo mensaje**, eta idatzi hartzailearen izena edo telefono-zenbakia, eta, ondoren, aukeratu agertzen diren aukeretatik bat. Hartzailea ez badago kontaktu gisa erregistratuta, sartu zure zenbakia eskuz.
- 6 Beharrezkoa bada, editatu mezua, eta sakatu  (bidaltzeko ikonoa).



Jasotako mezu baten barruko artxibo bat gordetzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (mezuen ikonoa).
- 2 Mezua oraindik ez bada deskargatu, egin klik bertan.
- 3 Luze sakatu gorde nahi duzun artxiboa, eta, ondoren, hautatu nahi duzun aukera.

Mezularitzako doikuntzak



Mezua jakinarazteko doikuntzak aldatu eta mezuen entrega-txostenak gaitu edo desgaitu ditzakezu.

Mezuak jakinarazteko doikuntzak aldatzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (mezuen ikonoa).
- 2 Sakatu  (menuaren ikonoa), eta, ondoren, **Ajustes**. Bi SIM dituen gailua baduzu, sakatu **General**.

- 4 Jakinarazpen-soinu bat ezartzeko, sakatu **Notificaciones > Ajustes avanzados > Sonido**, eta, ondoren, hautatu aukera bat edo sakatu + (gehitzeko ikonoa), eta aukeratu zure gailuan gordetzen ari zaren musika-artxiboa.
- 5 Berresteko, sakatu **Aceptar**.
- 6 Jakinarazpen-doikuntza gehigarriak konfiguratzeko, sakatu etengailuak.


Irteerako mezuen entrega-txostenak gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu  (mezuen ikonoa).
- 2 Sakatu , eta, ondoren, **Ajustes**.
- 3 Zure gailuak bi SIM baditu, hautatu SIM txartel bat. Zure gailuak SIM baterako espazioa bakarrik badu, sakatu **Avanzada**.
- 4 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Obtener informes de entrega de SMS** etengailua.

Oharra

Entrega-txostenak aktibatuta daudenean, "Entregado" testua agertzen da ondo entregatutako mezuetan.

Posta elektronikoa konfiguratzeko

Zure posta elektronikoko kontuen bidez mezuek bidali eta jasotzeko, erabili zure gailuko  (posta elektronikoa ikonoa) posta elektronikoa aplikazioa. Posta elektronikoko kontu bat edo batzuk izan ditzakezu aldi berean; horien artean, Microsoft Exchange ActiveSync-en posta korporatiboko kontuak.

Musika eta FM irratia

Ordenagailu batetik gailura musika transferitzea

Ordenagailu batetik gailura musika transferitzeko bi modu daude:

- Konektatu gailua ordenagailu batera USB Type-C kable baten bidez. Hautatu gailuan fitxategiak transferitzeko aukera, eta, ondoren, kopiatu eta itsatsi edo arrastatu eta askatu fitxategiak, ordenagailuan.
- Ordenagailuan, gorde multimedia-fitxategiak Google Driven. Ondoren, sinkronizatu gailuko datua Googleren kontuan saioa hasita.


Oharra

Baliteke Musika aplikazioa bateragarria ez izatea musika-fitxategien formatu batzuekin.

Musika entzutea

Erabili Musika aplikazioa zure gogoko musika entzuteko.

Musika-erreproduzitzailearen deskribapen orokorra




- 1 Pantaila osoko erreproduzitzailea minimizatzeko.
- 2 Gailuan gordeta dituzun abesti guztien artean bilaketa egiteko.
- 3 Erreprodukzio-zerrenda ikusteko
- 4 Menuko aukerak ikusteko.
- 5 Karatula (ikusgai baldin badago).
- 6 Abesti bat gogoko gisa jartzeko edo kentzeko.
- 7 Erreproduzitzen ari den abestian pasatu den denbora.

- 8 Abesti bat erreproduzio-zerrenda bati gehitzeko.
- 9 Aurrerapen-adierazlea: arrastatu edo sakatu lerroa aurrera edo atzera bizkor-bizkor egiteko.
- 10 Erreproduzitzen ari den abestiaren iraupena.
- 11 Erreproduzitzen ari den abestia edo erreproduzio-zerrendako abesti guztiak berriro entzuteko.
- 12 Sakatu hurrengo abestira pasatzeko; luze sakatu uneko abestia bizkor aurreratzeko.
- 13 Abesti bat erreproduzitzeko edo pausan jartzeko.
- 14 Sakatu behin edo bi aldiz uneko abestiaren hasierara edo aurreko abestira joateko; luze sakatu uneko abestia bizkor atzeratzeko.
- 15 Erreproduzio-zerrendako abestiak ausaz erreproduzitzeko.

Irakokizuna

- (aurrekoaren botoia) erabiltzea, abesti bat erreproduzitzen ari denean.
- Erreproduzioaren lehenengo 5 segundoetan, sakatu botoia, aurreko abestira joateko.
- Erreproduzitzen ari dela 5 segundo pasatu ondoren, sakatu behin botoia uneko abestiaren hasierara joateko, edo sakatu bi aldiz aurreko abestira joateko.

Musikaren pantaila nagusia




- 1 Musikaren menua irekitzeko.
- 2 Edukia bistaratzeko gora edo behera mugitzeko.
- 3 Sakatu erreproduzio-zerrendako abesti bat erreproduzitzen hasteko.
- 4 Abesti guztiak ausazko ordenan erreproduzitzeko.
- 5 Musika erreproduzitzailaren pantailara joateko.

Oharra


Litekeena da elementu batzuk erreproduzitzeko aukerarik ez izatea, copyright bidez babestuta daudelako. Ziurtatu beharrezkoak diren eskubide guztiak dituzula nahi duzun edukirako.

Musikari buruzko informazioa editatzea eta karatula deskargatzea


- 1 Musika aplikazioan abesti bat erreproduzitzen ari den bitartean, sakatu musika-erreproduzitzailaren pantailako karatula, eta, ondoren, sakatu **Editar información de música**.

- 2 Editatu nahi duzun informazioa.
- 3 Karatulak ezartzeko edo deskargatzeko, sakatu  (editatzeko ikonoa) eta hautatu aukera bat.
- 4 Amaitutakoan, sakatu **GUARDAR**.

Musika aplikazioa minimizatzea

- Abesti bat erreproduzitzen ari zarenean, sakatu  (hasteko botoia) pantaila nagusira joateko. Musika aplikazioak bigarren mailan funtzionatzen segituko du.


Musika aplikazioa irekitzea bigarren mailan erreproduzitzen ari denean

- Abesti bat bigarren mailan erreproduzitzen ari denean, irristatu beheara egoerabarra, eta sakatu Musika aplikazioaren jakinarazpena.
- Bestela, bilatu eta sakatu  (Musikaren ikonoa).

Irratia entzutea

Gailuko FM irratia gainerako irratia bezala dabil. Adibidez, FM irradi-kateak bilatu eta entzun ditzakezu, eta gogoko gisa gorde. Irrati-kateak bilatu ahal izateko, entzungailu kabledun batzuk konektatu behar dituzu gailura. Izan ere, entzungailuek antena-funtzioa betetzen dute. Entzungailuak konektatuta dituzula, soinua bozgorailuetara pasatu dezakezu, hala nahi izanez gero.


FM irratia deskribapen orokorra



- 1 Gogoko zerrenda
- 2 Irratia pizteko/itzaltzeko botoia.
- 3 Menuko aukerak ikusteko.
- 4 Sintonizatutako maiztasuna.
- 5 Kate bat gogoko gisa jartzeko edo kentzeko.
- 6 Sintonizazio-diala.

- 7 Maiztasun-banda; irristatu ezkerrera edo eskuinera, kanaletan mugitzeko.
- 8 Mugitu maiztasun-bandan gora kateak bilatzeko.
- 9 Gordetako kate gogoko bat.
- 10 Mugitu maiztasun-bandan behera kateak bilatzeko.

FM irratia entzuteko

- 1 Konektatu entzungailuak gailura.
- 2 Bilatu eta sakatu  (FM irratiaren ikonoa). Entzungai dauden kateak bistaratu egingo dira maiztasun-bandan mugitu ahala.


Oharra

FM irratia martxan jartzen duzunean, entzungai dauden kateak automatikoki bistaratuko dira. Irrati-kate batek RDS informazioa baldin badu, katea entzuten hasi eta segundo batzuk pasata bistaratuko da.


Irrati-kateetan mugitzea

- Arrastatu maiztasun-banda ezkererantz edo eskuinerantz.
- Edo sakatu bandaren bi aldeetako geziak hurrengo irradi-seinale garbira pasatzeko.


Irrati-kate bat bilatzea

- 1 Irratia irekitakoan, sakatu  (menuaren ikonoa).
- 2 Sakatu **Buscar canales**. Irratiak maiztasun-banda guztian bilatuko du, eta entzungai dauden kate guztiak markatuko ditu.

Irratiaren soinua bozgorailura pasatzea

- 1 Irratia irekitakoan, sakatu  (menuaren ikonoa)
- 2 Sakatu **Reproducir en altavoz**.

Iradokizuna

Soinua berriro entzungailu kabledunetara pasatzeko, sakatu  (menuaren ikonoa) eta **Reproducir en auriculares**.

Kamera

Kameraren deskribapena





- 1 Aurreko kameraren objektiboa
- 2 Aurreko kameraren eta kamera nagusiaren artean aldatzeko
- 3 Kameraren doikuntzak.
- 4 Kokapena gordetzeko.
- 5 Erabili bolumen-teklak zooma handitu edo txikitzeko.
- 6 Sakatu miniatura argazkiak eta bideoak ikusteko, partekatzeko edo editatzeko.
- 7 Argazkien edo bideoen artean txandakatzeko.
- 8 Erabili obturadorearen botoia argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.
- 9 Kamerara itzultzeko edo kameratik irteteko.
- 10 Kaptura modua hautatzeko.
- 11 Aurreko txandan hautatutako "kaptura" modura joateko lasterbidea.
- 12 Ukitu, zoom optikoa erabiltzeko.
- 13 Tenporizadore automatikoa
- 14 Flasharen doikuntzak.
- 15 Itxura-ratioa hautatzeko.
- 16 Kolorea eta distira.

Kamerari buruzko oinarrizko aholkuak

- Ziurtatu objektiboa garbi dagoela. Hatz-marka batek edo zikin pixka batek argazkiaren kalitatea murriztu dezakete.
- Erabili tenporizadore automatikoa prestatzeko denbora gehiago behar duzunean edo argazkiak lauso ez gelditzeko.
- Sarri egiaztatu gailuaren memoriaren egoera. Bereizmen handiko argazki eta bideoek memoria gehiago hartzen dute.

Kamera martxan jartzea

- Pasatu hatza  ikonoaren gainera (kameraren ikonoa), blokeo-pantailan.
- Sakatu  (kameraren ikonoa) aplikazioen pantailan.
- Sakatu bi aldiz pizteko tekla. Sakatu **Ajustes > Sistema > Comportamiento tecla encendido > Iniciar la cámara** etengailua, funtzio hori aktibatzeko.


Obturadorearen botoia

Obturadorearen botoia ez da berdin erabiltzen, "kaptura" moduaren eta aktibatuta dauden funtzioen arabera.


Obturadorearen botoiaren deskribapen orokorra


- Argazki bat ateratzeko.
- Bideo bat grabatzeko/Grabazio bat abiarazteko.
- ▮ Bideo bat pausarazteko.
- Bideoa baten grabazioa eteteko.
- Kontagailu automatikoa aktibatuta dago.
- 👉 Ukipen-kaptura aktibatuta dago.
- 👉 Ukipen-kaptura eta kontagailu automatikoa aktibatuta daude.

Itxura-ratioa aldatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (itxura-ratioaren ikonoa).
- 2 Hautatu doikuntza bat.

Kameraren ezarpenak konfiguratzeko

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Pasatu hatza zerrendaren gainetik, dituzun aukerak ikusteko eta doikuntza bat hautatzeko.



Oharra

Erabilgarri dauden doikuntzak irudiak hartzeko hautatutako moduaren arabera dira.

Argazkiak eta bideoak ikustea, partekatzea edo editatzea.

- 1 Kamera erabiltzen duzunean, sakatu miniatura argazkiak edo bideoak irekitzeko.
- 2 Pasatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz, argazkiak eta bideoak ikusteko.
- 3 Sakatu pantaila argazkiak edo bideoak editatzeko.

Iradokizuna

Argazkiak eta bideoak albumean gordetzen dira. Kontsultatu *Bideoak eta bideoak ikustea* 98. orrialdean, aukera gehiago ikusteko.

Argazkiak ateratzeko moduak








Modua ukituta, argazkiak ateratzeko moduak aukeratu ditzakezu.

Oharra

Erabilgarri dauden doikuntzak irudiak hartzeko hautatutako moduaren araberakoak dira.

Argazkiak ateratzeko moduen deskribapen orokorra

Hona hemen argazkiak ateratzeko modu nagusietako batzuk.

-  **Erretratu-autoargazkiak**
Kalitate handiagoko autoargazkiak ateratzeko.
-  **Bokeh**
Argazkiak lauso ateratzeko.
-  **Kamera geldoa**
Bideo bat grabatu ondoren kamera geldoaren efektua gehitzeko.
-  **AR efektua**
Karaktere eta eszena birtualekin ateratzeko argazkiak.
-  **Eskuzkoa**
Eskuz konfiguratutako doikuntzekin ateratzeko argazkiak.
-  **Sormen-efektua**
Argazkiak efektuekin eta kolore-iragazkiekin ateratzeko.
-  **Panorama**
Argazki panoramikoak eta angelu zabalekoak ateratzeko.


Argazkien eta bideoen artean txandakatzea

- Kamera erabiltzen ari zarela, irristatu hatza pantailan argazkien edo bideoen modua hautatzeko.

Argazkiak ateratzeko modua bat hautatzea

- Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modo** eta hautatu kaptura modu bat.

Kamera nagusiaren eta aurrekoaren artean txandakatzea

- Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (kamera aldatzeko ikonoa) kamera nagusiaren eta aurrekoaren artean txandakatzeko.

Iradozikizuna

Kameraren pantailan hatza beherantz irristatuta ere pasatu zaitezke kamera batetik bestera.

Zooma erabiltzea

- Elkartu edo urrundu hatzak kameraren pantailaren gainean.
- Erabili bolumen-teklak.
- Sakatu **x1** zoom optikoa erabiltzeko.

Oharra

Kamera nagusian bakarrik dago erabilgarri zoom optikoa.


Iradozikizuna

Zoom hiru aldiz edo gehiagotan erabiltzen baduzu, argazkiaren kalitateari eragin diezaioke. Hau egin dezakezu: atera argazkia zoomik gabe eta, ondoren, moztu.


Argazkia ateratzea

- Sakatu obturadorearen botoia.

Bideo bat grabatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, irristatu hatza pantailan  (grabazioaren ikonoa) hautatzeko.
- 2 Sakatu obturadorearen botoia grabazioa abiarazteko edo etete.


Argazkia ateratzea pantaila ukituta

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa), eta, ondoren, **Captura táctil > Encendido** edo **Solo cámara frontal**.
- 2 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza argazkiak egiteko modu guztietarako gordetzen da.
- 3 Sakatu pantailaren edozein tokitan, argazki bat ateratzeko.

Irakokizuna

Bideoekin ere erabili daiteke funtzio hori.


Argazki bat ateratzea bideo bat grabatzen ari zaren bitartean.

- Bideo bat grabatzen ari zaren bitartean, sakatu  (kameraren ikonoa). Obturadorearen tekla askatzen denean ateratzen da argazkia.

Kontagailu automatikoa

Kontagailu automatikoa erabiltzen baduzu, denbora gehiago edukiko duzu argazkirako prestatzeko. Aukera honek laguntzen du gailua egonkor edukitzen eta argazki lausoak saihesten.

Kamera nagusiarekin kontagailu automatikoa erabiltzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (tenporizadore automatikoaren ikonoa) eta hautatu atzerapen-denbora.
- 2 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko. Txistu-hotsek argazkia atera arteko atzerako kontaketa markatuko dute.

Esposizioa, kolorea eta argi-baldintzak


Zure argazkietan esposizio egokia lortzeko, argi-kantitate egokia behar duzu. Kamerak automatikoki detektatzen ditu giro-argiaren baldintzak, eta giro horretara egokitzen da.

Adibidez, esposizioa desberdina da argazkia zeri ateratzen diozun: aurpegiak, mugitzen ari diren objektuak edo argi gutxiko eremuak.

Argiztapen-baldintzak optimizatzea

- Bilatu argia behar dituzun norabide eta koloreekin, eszenei forma eta sakontasuna emateko. Argi-mota hori egunsentian eta ilunabarrean egon ohi da. Leihoetatik sartzen den argi naturala ere egokia da.
- Argi gutxirekin kalitate handiko argazkiak atera nahi badituzu, geldi eutsi behar diozu kamerari. Kamera gainazal solido batean jarri eta tenporizadorea erabil dezakezu.
- Argiztapen-baldintzak egokiak izan ez arren, proba egin argazkiak flasharekin eta flashik gabe ateratzen. Batzuetan, kalitate hobea lortzen da flashik gabe.

Flasha erabiltzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu pantailan bistan dagoen flasharen ikonoa, adibidez  (flash automatikoaren ikonoa).
- 2 Behar izanez gero, aldatu flasharen doikuntza.

- 3 Sakatu obturadorearen botoia argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.

Oharra

Erabilgarri dauden doikuntzak irudiak hartzeko hautatutako moduaren arabekoak dira.

Irakokizuna

Atzeko aldeak objektuak baino distira gehiago egiten duenean, erabili flash betegarria itzal ilunak ezabatzeko.

Kolorea, distira eta esposizio-balioa

Kamerak automatikoki doitzen ditu kolorea, distira eta esposizio-balioa, argi-baldintzak detektatuta eta giro-argiaren gutxi gorabeherako kolore-tenperatura kalkulatuta. Kamera digitalek kolore-tenperaturaren gutxi gorabeherako kalkulua bakarrik egin dezakete; beraz, litekeena da doikuntzak konfiguratu behar izatea zuzentzeko.

Eraikinen barruan ateratzen dituzun argazkiak horituta baldin badaude edo urdinduta geratzen badira flasha erabiltzen duzunean, doitu kolorea.

Argi gutxiko tokietan esposizio hobea lortzeko, aldatu argazkien eta bideoen distira. Argazkiak ateratzeko eskuzko modua erabiltzen ari bazara, aldatu esposizio-balioa.

Kolorea eta distira doitzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu * (kolore eta distiraren ikonoa).
- 2 Arrastatu kontrol irristagarriak kolorea eta distira doitzeko.
- 3 Sakatu obturadorearen botoia argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.
- 4 Sakatu X (bertan behera uzteko ikonoa) kolorearen doikuntza berrezartzeko eta ixteko.

Esposizioaren balioa doitzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** > [#] (Eskuzko moduaren ikonoa).
- 2 Sakatu **EV**, eta arrastatu kontrol irristagarria, esposizioaren balioa doitzeko.
- 3 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 4 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Obturadorearen abiadura

Obturazio-abiadura lotzen zaio obturadorea irekita eta kameraren sentsorea argitan dagoen denborari.

Obturazio-abiadura handia mugimendua izozteko erabiltzen da; obturazio-abiadura baxua erabiliz gero, berriz, mugitzen ari diren objektuak lauso aterako dira beren mugimendu-lerroan.

Argazki eta bideoetan, obturazio-denbora automatikoki doitzen da.

Obturazio-abiadura doitzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** > [#] (Eskuzko moduaren ikonoa).
- 2 Sakatu **SS**, eta arrastatu kontrol irristagarria, obturazio-abiadura doitzeko.
- 3 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 4 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Oharra

Doikuntza hori kamera nagusian bakarrik dago erabilgarri.

ISO


ISO-balioak kameraren argi-sentikortasuna zehazten du. ISO-balio baxuak adierazten du sentsibilitatea baxua dela, eta ISO-balio altuak, berriz, sentsibilizazioa altua dela. Sentsibilitate altuaren eraginez argazkiak lauso atera daitezke.

Hautatu ISO-balio altu bat mugitzen ari diren objektuei argazkiak egiteko edo argi gutxiko egoeretan flashik gabeko argazkiak egiteko.

Argi gehiegi baldin badago, erabili ISOaren sentsibilitate baxueneko doikuntza, argazkian ahalik eta kalitate onena lortzeko.

ISOaren sentsibilitatea automatikoki doitzen da argazkiak eta bideoak ateratzerakoan.

ISOaren sentsibilitatea doitzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** >  (Eskuzko moduaren ikonoa).
- 2 Sakatu ISO eta arrastatu kontrol irristagarria, ISOaren balioa doitzeko.
- 3 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 4 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.



Oharra

Doikuntza hori kamera nagusian bakarrik dago erabilgarri.

Atzeko argi indartsua (HDR)

Atzeko argi indartsua (HDR) automatikoki doitzen da argazkiak ateratzean. Eskuz ere doitu dezakezu atzeko argi indartsua, eskuzko moduan.



Atzeko argia indartzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** >  (Eskuzko moduaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (HDRaren ikonoa) eta hautatu **Encendido**.
- 3 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Zurien balantzea

Zurien balantzea automatikoki doitzen da argazkiak eta bideoak ateratzerakoan. Eskuzko moduan, zurien balantzea eskuz doitu dezakezu.

Zurien balantzea doitzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** >  (Eskuzko moduaren ikonoa).
- 2 Sakatu **WB** eta hautatu aurrez definitutako argi-baldintza bat, adibidez  (Zurien balantzea lainotuta adierazten duen ikonoa).
- 3 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 4 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Zurien balantzearen doikuntzak

Auto

Kolorearen oreka automatikoki doitzen du.

Lainotuta

Zerua lainotuta dagoenerako doitzen du koloreen balantzea.



Eguneko argia

Kanpoan, eguzki-argitan, kolorearen oreka doitzen du.

Fluoreszentea

Argia fluoreszentea denean kolorearen oreka doitzen du.

Fokuratze-distantzia ezartzea

- 1 Kamera nagusia erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** >  (Eskuzko moduaren ikonoa).
- 2 Sakatu  (fokuratze-doikuntzaren ikonoa).
- 3 Arrastatu kontrol irristagarria, fokuratze-distantzia doitzeko.
- 4 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 5 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Oharra

Doikuntza hori kamera nagusian bakarrik dago erabilgarri.


Pertsonak, autoargazkiak eta irribarreak

Fokuratutako aurpegiak koloretako marko bat dute inguruan. Sakatu markoak aurpegiak fokuratzeko.

Erabili irribarre-detekttagailua argazkiak automatikoki ateratzeko pertsona batek irribarre egiten duenean. Bideo bat grabatzen ari zarenean, argazki bat ateratzen da irribarre bat detektatzen den bakoitzean.




Pertsonei argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea

- Kontuan eduki kameraren orientazioa. Erabili orientazio bertikala lehen planoak ateratzeko, enkoadraketa betetzeko. Erabili orientazio horizontala taldeen lehen planoak ateratzeko edo atzeko objekturen bati argazkia ateratzeko.
- Jarri kamera gainazal solido batean eta erabili tenporizadore automatikoa  argazkiak lausotuta atera ez daitezten.

Beste aurpegi bat fokuratzea

- Argazki bat atera aurretik edo bideo bat grabatu aurretik, sakatu fokuratu nahi duzun aurpegiaren markoa.


Argazkia ateratzea norbaitek irribarre egiten duenean


- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Sakatu **Captura automática** edo **Captura automática (vídeo)** > **Captador de sonrisas**.
- 3 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da argazkiak ateratzeko hautatutako modu horretarako.
- 4 Irribarre bat detektatzen duenean, kamerak argazki bat aterako du automatikoki.

Oharra

Doikuntza hau ezin da erabili bideoaren tamainetarako 4K ezarrita dagoenean.

Autoargazkiak ateratzea



- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, hautatu argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko modua zure autoargazkia ateratzeko.
- 2 Sakatu  (Kamera aldatzeko ikonoa) aurreko kalera aktibatzeko.

- 3 Sakatu  (Tenporizadore automatikoaren ikonoa) tenporizadore automatikoa erabili nahi baduzu.
- 4 Sakatu obturadorearen botoia autoargazkiak ateratzeko.

Iradokizuna

Aktibatu azal leunaren efektua autoargazkiak ateratzean azalaren tonua leuntzeko.

Autoargazkien tenporizadorea esku-ahurrekin aktibatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (kamera aldatzeko ikonoa) aurreko kamera aktibatzeko.
- 2 Sakatu  (ezarpen ikonoa).
- 3 Sakatu **Captura automática** > **Disparador de mano** eta itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 4 Jarri esku-ahurra kameraren parean hatzak luzatuta.
- 5 Kamerak zure eskua detektatzen duenean, tenporizadorea aktibatu egiten da, eta autoargazkia ateratzen da.


Erretratu-autoargazkiak

Autoargazki erretratuaren bidez kalitate handiko argazkiak atera ditzakezu.


Autoargazki erretratuaren deskribapen orokorra

- **Bokeh**
Pertsonaren inguruan efektua lausoa aplikatzen du.
- ✦ **Azal leuna**
Azaren tonuak leuntzen ditu.
- * **Azalaren distira**
Azalaren tonei distira ematen die.
- 👁 **Begien tamaina handitzea**
Begien tamaina handitzen du.
- 😊 **Aurpegi fina**
Aurpegiak argalagoa emateko.

Erretratu-autoargazkien bidez autoargazkiak ateratzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** >  (Erretratu-autoargazkien ikonoa).
- 2 Sakatu aplikatu nahi duzun efektuari dagokion ikonoa, eta arrastatu kontrol irristagarria efektua doitzeko. Nahi izanez gero, doitu gainerako efektuak modu berean.
- 3 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Iradokizuna

Zure erretratua aurrebistaren toki berean gorde dezakezu  (ispiluaren ikonoa) > **Encendido** sakatuta.

Objektuak mugimenduan

Mugitzen ari diren objektuei argazkiak ateratzean edo bideoak grabatzea, denbora oso garrantzitsua da emaitza onak lortzeko.


Objektuei segitzeko ezaugarriak automatikoki segitzen die mugitzen ari diren objektuei.

Bideoak grabatzen dituzunean, SteadyShot™ erabil dezakezu, kameraren mugimenduak konpentsatzeko eta koadraketak egonkor segi dezan.



Mugitzen ari diren objektuen argazkia

- Saiatu objektuari ez segitzen. Bilatu toki bat, zeinaren paretik nahitaez pasatu behar duen objektuak.
- Esposizioa aldatu dezakezu obturazio-abiadura handiagoa jarrita, edo ISO sentsibilitatea altuagoa hautatu, mugimendua izozteko.

Objektu bati segitzea

- 1 Kamera nagusia erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Funtzioa gaitzeko, sakatu **Rastreo de objetos** etengailua.
- 3 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 4 Bisorean ukituta, hautatu segitu nahi duzun objektua.
- 5 Sakatu obturadorearen botoia argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.




Bideo egonkor bat grabatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, irristatu hatza pantailan  (grabazioaren ikonoa) hautatzeko.
- 2 Sakatu  (ezarpen ikonoa).
- 3 Funtzioa gaitzeko, sakatu **SteadyShot™** etengailua.
- 4 Itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da.
- 5 Sakatu obturadorearen botoia bideo bat grabatzeko.

Bokeh efektua

Zure gailuko kamera dualarekin, Bokeh efektudun argazkiak atera ditzakezu. Bokeh efektuak argazkien atzeko aldea desfokuratzen du, lehen mailan dauden objektuak nabarmentzeko eta efektu artistikoa lortzeko.

Bokeh efektudun argazkia ateratzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modo > Bokeh**.
- 2 Atzealdearen lausotze-maila doitzeko, sakatu  (kamera dualaren efektuaren ikonoa) >  (Bokeh efektuaren ikonoa). Arrastatu kontrol irristagarria, balioa doitzeko.
- 3 Distira doitzeko, sakatu  (distiraren ikonoa). Arrastatu kontrol irristagarria, balioa doitzeko.
- 4 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Irakokizuna

Bokeh efektua erabiltzen ari zarela objektu batengandik gertuegi edo urrunegi jartzen bazara, ohartarazpen-mezu bat bistaratuko da. Kasu horretan, egokitu kameraren eta objektuaren arteko distantzia Bokeh efektuarekin argazkia ateratzeko.

Argazkiak ateratzeko modu bat baino gehiago erabiltzea

Erabili argazkiak eta bideoak ateratzeko modu desberdinak, sormenezko argazkiak eta bideoak egiteko eta lagunekin partekatzeko. Eszena birtualak, argazki panoramikoak eta askoz gehiago sor ditzakezu. Argazkiak ateratzeko Googlek emandako moduak ere erabil ditzakezu.

AR efektua

AR efektuak esan nahi du errealitate areagotua aplikatzea, eta aukera ematen du zure argazki eta bideoei mundu fantastikoa aplikatzeko, eta avatarrak eta itsasgarriak sortzeko.



Argazkiak ateratzea edo bideoak grabatzea errealitate areagotuko efektuarekin

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modo**.
- 2 Sakatu 🌟 (Errealitate areagotuaren efektuaren ikonoa) eta hautatu eszena bat.
- 3 Sakatu obturadorearen botoia argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.

Bokeh

Zure gailuaren kamera dualarekin, Bokeh efektudun argazkiak atera ditzakezu. Bokeh efektuak argazkien atzeko aldea desfokuratzen du, lehen mailan dauden objektuak nabarmentzeko eta efektu artistikoa lortzeko.

Bokeh efektudun argazkia ateratzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modo > Bokeh**.
- 2 Atzealdearen lausotze-maila doitzeko, sakatu ☰ (kamera dualaren efektuaren ikonoa) > 🌟 (Bokeh efektuaren ikonoa). Arrastatu kontrol lerragarria, balioa doitzeko.
- 3 Distira doitzeko, sakatu ✱ (distiraren ikonoa). Arrastatu kontrol lerragarria, balioa doitzeko.
- 4 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Irakokizuna

Bokeh efektua erabiltzen ari zarela objektu batengandik gertuegi edo urrunegi jartzen bazara, ohartarazpen-mezu bat bistaratuko da. Kasu horretan, egokitu kameraren eta objektuaren arteko distantzia Bokeh efektudun argazkia ateratzeko.

Sormen-efektua

Sormen-efektuaren aplikazioarekin, efektuak eta kolore-iragazkiak hauta ditzakezu argazkiak atera edo bideoak grabatu aurretik.

Argazkiak ateratzea edo bideoak grabatzea sormen-efektuarekin


- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modo**.
- 2 Sakatu 🎨 (Sormen-efektuaren ikonoa).
- 3 Pasatu hatza, iragazkiak ikusteko, edo sakatu iragazki bat, efektuaren aurrebista ikusteko.
- 4 Sakatu 📄 (Sormen-efektua aplikatzearen ikonoa) iragazkia aplikatzeko eta kameraren pantailara itzultzeko.
- 5 Sakatu obturadorearen botoia argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko.
- 6 Sakatu ▼ (iragazkia aldatzeko ikonoa) iragazkia aldatzeko.

Panorama

Erabili Panorama aplikazioa argazki panoramikoak eta angelu zabalekoak ateratzeko.

Argazki panoramikoak ateratzea






- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modo**.

- 2 Sakatu  (Panoramikoaren ikonoa).
- 3 Sakatu obturadorearen botoia.
- 4 Mugitu kamera mantso eta egonkor, pantailan adierazitako noranzkoan.


Erretratu-autoargazkiak

Erretratu-autoargazkien bidez, kalitate handiko argazkiak atera ditzakezu.


Erretratu-autoargazkien deskribapen orokorra

-  **Bokeh**
Pertsonaren inguruan efektu lausoa aplikatzen du.
-  **Azal leuna**
Azaren tonuak leuntzen ditu.
-  **Azalaren distira**
Azaren tonuei distira ematen die.
-  **Begien tamaina handitzea**
Begien tamaina handitzen du.
-  **Aurpegi fina**
Aurpegia argalago agertzen du.

Erretratu-autoargazkien bidez autoargazkiak ateratzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modua** >  (Erretratu-autoargazkien ikonoa).
- 2 Sakatu aplikatu nahi duzun efektuari dagokion ikonoa, eta arrastatu kontrol lerragarria efektua doitzeko. Nahi izanez gero, doitu gainerako efektuak modu berean.
- 3 Sakatu obturadorearen botoia argazkia ateratzeko.

Irakokizuna

Zure erretratua aurrebistaren toki berean gorde dezakezu  (ispiluaren ikonoa) > **Encendido** sakatuta.




Bideoa grabatzea kamera geldoan

Erantsi efektu zoragarriak zure bideoei, kamera geldoaren modua hautatuta. Bideo bat abiadura arruntean grabatu ondoren aplikatzen da kamera geldoaren modua.

Oharra

Bideoak kamera geldoan grabatzeko, funtsezkoa da argiztapen egokia izatea.

Bideo bat grabatu ondoren kamera geldoaren efektua aplikatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu **Modo**.
- 2 Sakatu  (Kamera geldoaren ikonoa).
- 3 Sakatu obturadorearen botoia bideo bat grabatzeko.
- 4 Sakatu  (Eteteko botoia) grabazioa eteteko.
- 5 Irristatu zirkulu urdinak kamera geldoaren efektua agertzea nahi duzun tokiraino.
- 6 Sakatu  (Bideoak kamera geldoan gordetzeko ikonoa) bideoak gordetzeko.

Bereizmena eta memoria


Gorde dezakezun argazki- eta bideo-kopurua honen arabera da: erabilitako bereizmena edo MP balioa (megapixelak) eta bideoen iraupena.

Bereizmen handiko argazki eta bideoek toki gehiago hartzen dute; beraz, kontuan hartu bereizmen txikiagoa erabiltzea nahikoa izan daitekeela eguneroko erabilerarako.

Tarteka, begiratu nola dagoen memoria. Memoria beteta dagoenean, argazkiak eta bideoak beste biltegiatze-gailu batera pasatu ditzakezu, mugikorrean tokia egiteko. Jo *Segurtasun-kopia eta Google kontu batekin sinkronizatzea* atalera (45. orrialdea).

Hautatu argazkiak eta bideoak non gorde nahi dituzun, gailuaren barne-biltegiari edo SIM txartelean, kameraren doikuntzen menuko **Almacenamiento de datos** aukera erabilita.

Bereizmena aldatzea.

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Sakatu **Tamaño de imagen fija** edo **Tamaño del vídeo**.
- 3 Hautatu bereizmena, eta itxi doikuntzen menua. Doikuntza gorde egiten da argazkiak ateratzeko hautatutako modu horretarako.


Irakokizuna

Kaptura modu bakoitzaren bereizmena hauta dezakezu, banaka.

Kameraren diagnostikoa

Kamera ondo ez badabil, diagnostiko bat egin dezakezu, kamera nagusian, aurrealdeko kameran edo flashean arazorik dagoen ikus dezakezu.

Kameraren diagnostikoa exekutatzea


- 1 Ziurtatu Internetera konektatuta zaudela. Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Sakatu **Ayuda**.
- 3 Aukeratu kategoria bat, eta, ondoren, segi pantailan agertzen diren jarraibideei.

Kameraren doikuntza osagarriak



Geoetiketatzea

Argazkiak eta bideoak atera zenituen tokia gordeta, alegia geoetiketatuta, gorde ditzakezu. Zure argazkiak eta bideoak geoetiketatzeko, haririk gabeko sare bat behar duzu, eta GPS funtzioa gaituta edukitzea.

Geoetiketatzeko aukera aktibatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Funtzioa gaitzeko, sakatu **Guardar ubicación** etengailua. Doikuntza gorde egiten da.


Geoetiketatzearen egoera-ikonoak

-  Kokapen geografikoa gorde da.
-  Ez du kokapen geografikorik.

Lauki-sareen lerroak

Lauki-sareen lerroekin, "herenen araua" aplikatu dezakezu, eta objektu garrantzitsuak lauki-sareen lerroetan edo haien elkarguneetan jarri. Kasu batzuetan, zentroan ez beste toki batean jar dezakezu objektua. Horrek aparteko ukitua emango die zure argazki eta bideoei.


Lauki-sareen lerroak aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Líneas de cuadrícula** etengailua. Doikuntza gorde egiten da.

Argazkiaren aurrebistaren doikuntzak

Hautatu dezakezu argazkiaren aurrebista agertzea argazkia ateratakoan.

Aurrebista aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Sakatu **Vista previa de foto autom.** eta hautatu aukera bat. Doikuntza gorde egiten da.


Aurrebistaren doikuntzak

Aktibatuta	Argazki bat ateratzerakoan, aurrebista pantailaren eskuineko beheko izkinan agertuko da, argazkia gorde baino hiru segundo lehenago.
Aurreko kamera bakarrik	Aurreko kamerarekin argazki bat ateratzerakoan, pantailaren eskuineko beheko izkinan agertuko da aurrebista, argazkia gorde baino hiru segundo lehenago.
Desaktibatuta	Ez da inongo aurrebistarik erakusten. Argazkia automatikoki gordetzen da.

Bolumen-tekla erabiltzeko zenbait modu

Bolumen-tekla erabiltzeko modua alda dezakezu.

Bolumen-tekla erabiltzeko modua aldatzea

- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Sakatu **Use la tecla Volumen como** eta hautatu aukera bat. Doikuntza gorde egiten da.


Bolumen-teklaren doikuntzak

Zooma	Erabili bolumen-tekla zooma handitu edo txikitzeko.
Bolumena	Bolumen-tekla desaktibatu egingo da kamerarako.
Obturadorea	Bolumen-tekla erabil dezakezu argazkiak eta bideoak ateratzeko obturadore gisa.

Soinua

Soinua aktibatuta dagoenean, kamerak soinu bat ateratzen du argazkia ateratzean edo bideo bat grabatzen hastean edo etetean. Gainera, tenporizadorea erabiltzen duzunean, atzerako kontaketa txistu-hots batzuek markatzen dute.

Soinua aktibatzea edo desaktibatzea


- 1 Kamera erabiltzen ari zarela, sakatu  (doikuntzen ikonoa).
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **Sonido** etengailua. Doikuntza gorde egiten da.

Argazkiak eta bideoak bilduman

Argazkiak eta bideoak ikustea

Erabili bilduma kamerarekin ateratako argazkiak ikusteko eta bideoak erreproduzitzeko, edo gailuan gorde dituzun antzeko edukiak bistaratzeko. Ateratako argazkiak eta bideoak laukitan kronologikoki ordenatuta bistaritzen dira.


Bildumaren deskribapen orokorra



- 1 Bildumaren pantaila nagusiaren menua irekitzeko
- 2 Menuko aukerak ikusteko.
- 3 Zure argazki eta bideoen diapositiba-aurkezpen bat ikusteko.
- 4 Pasatu hatza eskuinera, Bildumaren pantaila nagusiko menua irekitzeko.
- 5 Taldeko elementuen data ikusteko.
- 6 Ukitu argazki edo bideo bat, hura ikusteko.
- 7 Edukia bistaratzeko gora edo behera mugitzeko.

Bildumaren pantaila nagusiaren menua

Bildumaren pantaila nagusiaren menutik zure argazki-bildumak ikus ditzakezu, bai eta efektu bereziak erabilia ateratako argazki eta bideoak ere. Bilduma aplikaziotik, editatzeko oinarriko zereginak egin ditzakezu, eta edukia partekatu bluetooth, posta elektronikoa edo antzeko modu baten bidez.



- 1 Aplikazioaren pantaila nagusira itzultzeko. Eduki guztia ikusteko bilduma.
- 2 Gailuko kamerarekin ateratako bideo eta argazki guztiak ikusteko.
- 3 Gailuko karpetetan gordetako bideo eta argazki guztiak ikusteko.
- 4 Gailuan gordetako bideo guztiak ikusteko.
- 5 Gogoko argazki eta bideoak bistaratzeko.
- 6 Ezkutuko argazkiak eta bideoak ikusteko.
- 7 Movie Creator irekitzeko, zure argazkiekin osatutako film laburrak ikusteko.
- 8 Bildumaren doikuntzen menua irekitzeko.
- 9 Onlineko laguntza irekitzeko.

Konektagarritasuna

Gailuko pantaila telebistan bistaratzea, haririk erabili gabe

Pantaila bikoizteko aukera erabil dezakezu gailuko pantaila telebistan edo beste pantaila handi batean ikusteko, kableekin konektatu beharrik gabe. Wi-Fi Direct® teknologiak haririk gabeko konexio bat sortzen du, eta horrek aukera ematen dio erabiltzaileari gogoko argazkiak sofatik ikusteko, eroso-eroso. Aukera hori erabil dezakezu, halaber, gailuan gordetako musika telebistaren bozgorailuetatik entzuteko.

Oharra

Pantaila bikoizteko aukera erabiltzean, gerta liteke argazkiaren kalitatea eskasagoa izatea, beste wifi-sare batzuen interferentzien eraginez.


Gailuaren pantaila telebista-pantaila batean bistaratzea

- 1 **Telebista:** Bete itzazu zure telebistaren erabiltzaileentzako eskuliburuko argibideak, telefonoa bikoizteko funtzioa aktibatzeko.
- 2 **Zure gailua:** Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Preferencias de conexión > Duplicación de pantalla.**
- 3 Sakatu **INICIAR.**
- 4 Sakatu **Aceptar** eta hautatu gailu bat.

Oharra

Telebistak bateragarria izan behar du Wi-Fi CERTIFIED Miracast™ teknologiaren bidez pantaila bikoiztearekin, funtzio hau erabili ahal izateko. Zure telebista ez bada bateragarria pantaila bikoizteko aukerarekin, litekeena da pantailarako haririk gabeko egokigailu bat eskuratu behar izatea aurretik. Pantaila bikoizteko aukera erabiltzen duzunean, ez estali gailuaren wifiaren antena.

Iradokizuna

Sakatu  (menuaren ikonoa) aukera gehiago edukitzeko.

Pantaila bikoizteko aukera etetea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Preferencias de conexión > Duplicación de pantalla.**
- 2 Sakatu **Desconectar** eta, ondoren, **Aceptar.**

Iradokizuna

Gailuaren egoera-barran jakinarazpena ukituta ere geldiarazi dezakezu pantaila bikoizteko aukera. Arrastatu egoera-barra beherantz, sakatu **Desconectar** eta, ondoren, **Aceptar.**


Telefonoa USB gailu batera konektatzea

Host USB Type-C egokigailu bat erabil dezakezu zure gailua USB-osagarrietara konektatzeko (hala nola, biltegitratze masiboko USB gailuak, entzungailu analogikoak, jokoetako aginteak, USB teklatuak eta USB saguak). USB gailuak USB Type-C motako konektorea badu, ez da beharrezkoa izango USB Type-C ataka-egokigailu bat.

USB Type-C ataka-egokigailuak bereizita saltzen dira. Sonyk ez du bermatzen USB osagarri guztiak zure gailuarekin bateragarriak direnik.

Oharra

Gailu honek taparik gabeko USB Type-C ataka bat du. Gailuak ura ukitu badu, itxaron ataka erabat lehortu arte USB Type-C kable bat konektatu aurretik.



USBen lehentasunak

Nork kontrolatzen duen USBa

Hauta dezakezu zer gailuk kontrolatuko duen bestea, bai zure gailua, bai USB bidez konektatuta dagoen gailua.

Erabili USBa honetarako

USB konexioaren helburua zein den hauta dezakezu.

Fitxategiak transferitzea

Gailuko fitxategiak administratu ditzakezu, edo softwarea eguneratu. Aukera hori Microsoft® Windows® ordenagailuetan erabiltzen da. Lehenespenez, karga gaituta dago.

Konexioa partekatzea USB bidez

Internet partekatzeko erabil dezakezu zure gailua.

MIDI

Musika-tresnen aplikazioetarako MIDI sarrera gisa erabil dezakezu zure gailua.

Datu-transferentziarik gabe

Soil-soilik gailua kargatu **USB controlado por aukeran Este dispositivo** jarrita dagoenean. **USB controlado por aukeran Dispositivo conectado** jarrita badago, elikatze-iturri gisa erabil dezakezu gailua, eta konektatuta dagoen beste gailua kargatu.

USBaren lehentasunak aldatzea

- 1 Konektatu USB Type-C konektore bat gailura.


- 2 Irristatu beherantz egoera-barra, eta, ondoren, sakatu **Sistema Android** (USB ikonoa) irudiaren ondoan.
- 3 Sakatu **Toca para ver más opciones**, eta, ondoren, hautatu aukera bat.

NFC (Near Field Communication)

Erabili NFC beste gailu batzuekin datuak partekatzeko, hala nola bideoak, argazkia, webguneen estekak, musika-fitxategiak eta kontaktuak. Horrez gain, NFC erabil dezakezu etiketak eskaneatu eta produktu edo zerbitzuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko edo gailuaren funtzio jakin batzuk aktibatzen.

NFC zentimetro bateko irismena duen haririk gabeko teknologia bat da; beraz, datuak partekatuko dituzten gailuek elkarrengandik gertu egin behar dute. Ziurtatu bi gailuek aktibatuta dutela NFC funtzioa eta bi pantailak daudela aktibatuta eta desblokeatuta.

NFC aukeraren detektatze-eremua gailuaren atzeko aldean dago. Elkartu zure gailuaren eta bestearen NFCaren edo NFC-irakurgailu baten detektatze-eremuak.



Oharra

Litekeena da NFCa erabilgarri ez egotea herrialde edo eskualde guztietan. Aplikazio jakin batzuk erabiltzean, gailua itzalita egonda ere gaitu daitezke NFC funtzio batzuk. Kontuan hartu gailu guztiak ez direla bateragarriak funtzio honekin.

NFC funtzioa aktibatzea edo desaktibatzea



- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Preferencias de conexión**.
- 2 Funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko, sakatu **NFC** etengailua.

Kontaktu bat beste gailu batekin partekatzea NFC bidez

- 1 Kontaktuak ikusteko, bilatu eta sakatu (kontaktuaren ikonoa).
- 2 Sakatu partekatu nahi duzun kontaktoa.
- 3 Hurbildu zure gailua eta gailu hartzailea, bi gailuetako NFCaren detektatze-eremuek elkar ukitu arte. Gailuak konektatutakoan, kontaktuaren miniatura bat bistaratuko da.

- 4 Sakatu miniatura transferitzen hasteko.
- 5 Transferentzia amaitutakoan, kontaktuaren informazioa gailu hartzailean gordeko da eta haren pantailan agertuko da.


Musika-fitxategiak beste gailu batekin partekatzea NFC bidez

- 1 Musika aplikazioa irekitzeko, bilatu eta sakatu  (musikaren ikonoa).
- 2 Hautatu musika-kategoria bat, eta aurkitu partekatu nahi duzun abestia.
- 3 Sakatu abestia erreproduzitzen hasteko. Nahi baduzu, ukitu  (etenaldiaren ikonoa) abesti bat eteteko. Transferentziak berdin funtzionatzen du, abestia erreproduzitzen ari dela edo etenda dagoela.
- 4 Ziurtatu abestia pantaila osoan bistaritzen dela.
- 5 Hurbildu zure gailua eta hartzailea, bi gailuetako NFCaren detektatze-eremuek elkar ukitzeko moduan. Gailuak konektatutakoan, abestiaren miniatura bat bistaratuko da.
- 6 Sakatu miniatura transferitzen hasteko.
- 7 Transferentzia amaitutakoan, musika-fitxategia gailu hartzailean gordeko da.
- 8 Musika-fitxategia bistaratzeko, arrastatu beheara egoera-barra, jakinarazpenen panela irekitzeko, eta, ondoren, sakatu **Transferencia completada**.

Argazkiak eta bideoak beste gailu batekin partekatzea NFC bidez

- 1 Zure gailuko argazkiak eta bideoak ikusteko, bilatu eta sakatu **Álbum**.
- 2 Sakatu partekatu nahi duzun argazkia edo bideoa.
- 3 Hurbildu zure gailua eta hartzailea, bi gailuetako NFCaren detektatze-eremuek elkar ukitzen dutela. Gailuak konektatutakoan, argazkiaren edo bideoaren miniatura bat bistaratuko da.
- 4 Sakatu miniatura transferitzen hasteko.
- 5 Transferentzia amaitutakoan, argazkia edo bideoa gailu hartzailean gordeko da.
- 6 Argazkia edo bideoa bistaratzeko, arrastatu beheara egoera-barra, jakinarazpenen panela irekitzeko, eta, ondoren, sakatu **Transferencia completada**.

Webgune baten esteka beste gailu batekin partekatzea NFC bidez

- 1 Interneteko nabigatzailea irekitzeko, bilatu eta sakatu  (Chromen ikonoa).
- 2 Kargatu partekatu nahi duzun webgunea.
- 3 Hurbildu zure gailua eta gailu hartzailea, bi gailuetako NFCaren detektatze-eremuak kontaktuan egon arte. Gailuak konektatutakoan, webgunearen miniatura bat bistaratuko da.
- 4 Sakatu miniatura transferitzen hasteko.
- 5 Transferentzia amaitutakoan, hartzailearen gailuko pantailan bistaratuko da webgunea.

NFC etiketak eskaneatzea

Zure gailuak NFC etiketak eskaneatu ditzake, informazio osagarria jasotzeko (hala nola webgune baten helbide bat). Adibidez, karteletan, kartelerako iragarki batean edo dendetako produktuetan dauden etiketak eskaneatu ditzakezu.

NFC etiketak eskaneatzea

- 1 Ziurtatu gailuak aktibatuta duela NFC funtzioa, eta pantaila aktibatuta eta desblokeatuta dagoela.
- 2 Jarri gailua etiketaren gainean, NFCaren detektatze-eremuak hura ukitzeko moduan. Gailuak etiketa eskaneatuko du, eta jasotako edukia bistaratuko ditu. Sakatu etiketaren edukia, irekitzeko.

Gailua NFCrekin bateragarria den beste gailu batera konektatzea

NFC bidez, Sonyk fabrikatutako beste gailu bateragarri batzuetara konekta dezakezu zure gailua (hala nola bozgorailuak edo entzungailuak). Konexio-mota hori ezartzeko, ikusi beste gailuaren erabiltzailearen eskuliburua, informazio gehiago jasotzeko.

Oharra

Litekeena da wifa edo bluetootha aktibatuta eduki behar izatea bi gailuetan konexioak funtziona dezan.

Haririk gabeko bluetooth teknologia

Erabili bluetooth funtzioa teknologia honekin bateragarriak diren beste gailu batzuetara fitxategiak bidaltzeko edo esku libreko osagarrietara konektatzeko. Bluetooth konexioek hobeto funtzionatzen dute 10 metroko (33 oin) erradio batean, tartean objektu solidorik ez dagoela. Kasu batzuetan eskuz lotu beharko duzu zure gailua beste bluetooth gailuarekin.

Oharra

Bluetooth gailuen arteko elkarreraginkortasuna eta bateragarritasuna ez da beti berdina.

Irakokizuna

Gailu bat erabiltzaile askorekin erabiltzen ari bazara, erabiltzaile bakoitzak aldatu egin ditzake bluetootharen doikuntzak, eta aldaketek erabiltzaile guztiei eragingo diete.

Bluetooth funtzioa aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Preferencias de conexión**.
- 2 Sakatu **Bluetooth**.

Irakokizuna

Lasterbideen panelean ere aktibatu edo desaktibatu dezakezu bluetootha.

Zure gailuaren izena

Zure gailuari izen bat jar diezaiokezu. Izen hori bistaratuko da beste gailuetan bluetooth funtzioa aktibatu eta zure gailua besteentzako ikusgai jarri ondoren.

Zure gailuari izen bat jartzea

- 1 Ziurtatu bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Asociar dispositivo**.
- 3 Sakatu **Nombre del dispositivo**.
- 4 Idatzi zure gailuaren izena.
- 5 Sakatu **CAMBIAR NOMBRE**.

Beste bluetooth gailu batekin lotzea

Zure gailua beste gailu batekin lotu dezakezu (adibidez, bluetooth entzungailu batzuk edo autorako bluetooth kita), eta beste gailu horiek erabili musika partekatzeko.

Inoiz beste bluetooth gailu batzuekin lotu baduzu, zure gailuak gordeta edukiko du lotura hori.

Oharra

Bluetooth gailu batzuek (hala nola bluetooth entzungailu gehienek) beste gailura lotzeko eta konektatzeko eska dezakete.

Iradokizuna

Zure gailua zenbait bluetooth gailurekin lotu dezakezu, baina aldi bakoitzean bluetooth profil bakarrera konekta zaitezke.


Zure gailua beste bluetooth gailu batzuekin lotzea

- 1 Ziurtatu konektatu nahi duzun gailuak aktibatua duela bluetooth funtzioa, eta ikusgai dagoela beste bluetooth gailuentzat.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Asociar dispositivo**. Erabilgarri dauden bluetooth gailu guztien zerrenda bistaratuko da.
- 3 Sakatu lotu nahi duzun bluetooth gailua.

Zure gailua beste bluetooth gailu batzuetara konektatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Dispositivos conectados previamente**.
- 2 Sakatu konektatu nahi duzun bluetooth gailua.

Bluetooth gailu baten lotura etetea


- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Dispositivos conectados previamente**.
- 2 Sakatu  (doikuntzen ikonoa), lotura eten nahi duzun gailuaren izenaren ondoan.
- 3 Sakatu **Olvidar > Olvidar dispositivo**.

Elementuak bluetooth bidez bidaltzea eta jasotzea

Bluetooth teknologia erabili dezakezu elementuak beste gailu bateragarri batzuekin –telefonoekin edo ordenagailuekin– partekatzeko. Elementu-mota hauek ere bidali ditzakezu:

- Argazkiak eta bideoak
- Musika eta beste audio-fitxategi batzuk
- Webguneak

Elementuak bluetooth bidez bidaltzea

- 1 Ziurtatu bluetootha aktibatuta dagoela gailu hartzailean, eta beste gailuek ikusteko moduan jarrita dagoela.
- 2 Ireki aplikazioa bidali nahi duzun elementua gordeta dagoen gailu bidaltzailean. Joan elementuraino.
- 3 Bidali nahi duzun aplikazioaren eta elementuaren arabera, baliteke elementua sakatuta eduki behar izatea edo ireki behar izatea, eta, ondoren, sakatu  (Partekatzeko ikonoa).
- 4 Hautatu **Bluetooth**.
- 5 Aktibatu bluetootha, hala egiteko esaten bazaizu.
- 6 Sakatu gailu hartzailearen izena.
- 7 Gailu hartzailean, onartu konexioa, hala eskatzen bazaizu.
- 8 Gailu bidaltzailean, berretsi gailu hartzaileako transferentzia, hala eskatzen badizu.
- 9 Onartu jasotzen ari zaren elementua gailu hartzailean.

Elementuak bluetooth bidez jasotzea

- 1 Ziurtatu bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela, eta ikusgai dagoela beste bluetooth gailu batzuentzat.
- 2 Zure gailura datuak bidaltzen hasiko da gailu bidaltzailea.
- 3 Zure gailura fitxategi bat iritsi dela jakinarazten dizunean, arrastatu beheko egoera-barra, eta sakatu jakinarazpena, fitxategiak transferitzea onartzeko.
- 4 Sakatu **Aceptar** fitxategien transferentzia onartzeko.
- 5 Transferentziaren aurrerapena ikusteko, arrastatu beheko egoera-barra.

- 6 Jasotako elementua irekitzeko, arrastatu behera egoera-barra, eta sakatu dagokion jakinarazpena.

Bluetooth bidez jasotako fitxategiak ikustea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Conexión de dispositivos > Preferencias de conexión.**
- 2 Sakatu **Archivos recibidos.**

Denbora aurrezten laguntzen duten aplikazio eta ezaugarri adimendunak

Gailua diru-zorro gisa erabiltzea

Zure gailua ordainketak egiteko erabil dezakezu, bai eta ordainketa-zerbitzu guztiak gune bakar batetik kudeatzeko ere. Ordainketa egitean, NFC funtzioa aktibatuta eduki behar duzu gailua txartel-irakurgailura gerturatu aurretik. NFCri buruzko informazio gehiagorako, jo *NFC (Near Field Communication)* atalera (102. orrialdea).

Oharra

Litekeena da mugikor bidez ordaintzeko zerbitzuak ez egotea erabilgarri zure eskualdean. Bi SIMeko gailuetan, NFC bidezko ordainketak onartzen dira soilik SIM 1 txartelaren zirikitan NFC funtzioa onartzen duen SIM txartel bat sartuta baldin badago.

Ordainketa-zerbitzuak kudeatzea.


- 1 Egiatzatu zure gailuak gaituta duela NFC funtzioa.
- 2 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Aplicaciones y notificaciones > Aplicaciones predeter. > Toca y paga**. Ordezte-zerbitzuen zerrenda bat bistaratuko da.
- 3 Kudeatu nahi dituzun ordainketa-zerbitzuak. Adibidez, zure ordainketa-zerbitzu lehenetsia alda dezakezu.

Erlojua eta egutegia


Egutegia

Egutegia erabil dezakezu zure zereginak antolatzeko.

Zure gailuan saio bat hasi baduzu, eta egutegia duten onlineko kontu batekin edo zenbaitekin sinkronizatu baduzu (adibidez, Google), telefonoko egutegian ere bistaratuko dira kontu horietako egutegietako zereginak. Zein egutegi ikusi nahi dituzun hauta dezakezu egutegiaren ikuspegi konbinatuan.

Hitzorduaren ordua hurbildu ahala, gailuak jakinarazpen-soinu bat egingo du gogorarazteko. Gainera, egoera-barran  (Egutegiko jakinarazpen-ikonoa) bistaratuko da.

Egutegiaren deskribapen orokorra




- 1 Doikuntzetara sartzeko eta ikuspegi-mota eta bistaratu nahi dituzun egutegiak hautatzeko.
- 2 Uneko hilabetearen ikuspegi orokorra ikusteko.
- 3 Uneko egunera itzultzeko.
- 4 Menuko aukerak ikusteko.
- 5 Egutegia ikusteko gora edo behera mugitzeko.
- 6 Egutegian sarrera bat gehitzea.

Erlojua

Zenbait alarma jar ditzakezu, eta gailuan gordetako soinu-fitxategiak erabili alarma-seinale gisa. Alarmak ez du joko gailua itzalita badago.

Alarma bistaratzeko erabiltzen den orduaren formatua orduaren doikuntza orokorretako berbera da (adibidez, 12koa edo 24koa).

Erlojuaren deskribapen orokorra



- 1 Alarmaren fitxan sartzeko.
- 2 Erlojuaren fitxan sartzeko.
- 3 Tenporizadorearen fitxan sartzeko.
- 4 Kronometroaren fitxan sartzeko.
- 5 Uneko fitxan menuko aukerak ikusteko.
- 6 Munduko erloju bat eranstekeo.

Alarma berria konfiguratzeko

- 1 Bilatu eta sakatu **Reloj > Alarma**.
- 2 Sakatu ● (Elementuak gehitzeko ikonoa).
- 3 Hautatu nahi duzun balioa.
- 4 Sakatu **Aceptar**.

Irakokizuna

Sakatu ● (Aukera gehiagoren ikonoa) alarma editatzeko.

Alarmak jotzen duenean atzeratzea

- Alarmak jotzen duenean, sakatu **APLAZAR**.

Alarmak jotzen duenean itzaltzea

- Alarmak jotzen duenean, sakatu **DESCARTAR**.

Irakokizuna

Atzeratutako alarma desaktibatzekeo, arrastatu behera egoera-barra, jakinarazpenen panela irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **DESCARTAR**.

Alarmaren ordua editatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Reloj > Alarma** eta, ondoren, sakatu ▼ (aukera gehiagoren ikonoa) editatu nahi duzun alarman.
- 2 Sakatu ordua, eta hautatu nahi dituzun balioak. Ondoren, sakatu **Aceptar**.

Alarma bat aktibatzea edo desaktibatzea

- Bilatu eta sakatu **Reloj** > **Alarma**, eta sakatu etengailua.

Alarmak ezabatzea

- Bilatu eta sakatu **Reloj** > **Alarma**, ondoren sakatu ▼ (aukera gehiagoren ikonoa) ezabatu nahi duzun alarman, eta, ondoren, sakatu **Eliminar**.

Alarmak editatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Reloj** > **Alarma**.
- 2 Sakatu ⓘ (menuaren ikonoa), eta, ondoren, **Ajustes**. Hautatu eta doitu nahi duzun aukera.

Alarma baten soinua ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Reloj** > **Alarma** eta, ondoren, sakatu ▼ (aukera gehiagoren ikonoa) editatu nahi duzun alarman.
- 2 Sakatu 🎵 (Alarmaren soinuen ikonoa) eta hautatu aukera bat, edo sakatu **Añadir nuevo** eta hautatu musika-fitxategi bat.
- 3 Sakatu ◀ (atzera egiteko botoia). Doikuntza gorde egingo da.

Aldizkako alarmak konfiguratzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Reloj** > **Alarma** eta, ondoren, sakatu ▼ (aukera gehiagoren ikonoa) editatu nahi duzun alarman.
- 2 Sakatu **Repetir** kontrol-laukia.
- 3 Markatu nahi dituzun egunak.

Alarmak bibratu dezan ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Reloj** > **Alarma** eta, ondoren, sakatu ▼ (aukera gehiagoren ikonoa) editatu nahi duzun alarman.
- 2 Sakatu **Vibración** kontrol-laukia.

Alarmaren etiketa ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Reloj** > **Alarma** eta, ondoren, sakatu ▼ (aukera gehiagoren ikonoa) editatu nahi duzun alarman.
- 2 Sakatu **Etiqueta** eta idatzi etiketaren izena.
- 3 Sakatu **Aceptar**.

Erabilerraztasuna



Pantaila handitzea

Aukera honen bidez, pantailaren eremu batzuk handitu ditzakezu, ukipen-pantailaren eremu horien gainean hiru aldiz segidan sakatuta.

Handitzeko aukera gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Accesibilidad > Ampliar**.
- 2 Hautatu aukera bat, eta sakatu etengailua funtzioa gaitzeko.

Eremu bat handitzea eta pantailan panoramikoak egitea

- 1 Egiaztatu **Handitzea** aukera gaituta dagoela.
- 2 Handitzeko hautatutako moduaren arabera, eremu bat aldi batez handitzeko, sakatu pantaila hiru aldiz edo sakatu  (handitzearen ikonoa) lehenengo, eta, ondoren, sakatu pantaila.
- 3 Mugitu eremua, bi hatzekin edo gehiagorekin arrastatuta.
- 4 Zoomaren modutik ateratzeko, sakatu eremua hiru aldiz, edo sakatu  (handitzearen ikonoa) berriro.

Irakokizuna

Aplikazio batzuetan, atximur eginda ere handitu edo txikitu ditzakezu eremuak.

Letra-tamaina

Letra-tamainaren aukera gaitu dezakezu gailuan bistaratutako testuen tamaina handitzeko.

Letra-tamaina ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Accesibilidad**.
- 2 Sakatu **Tamaño de fuente** eta, ondoren, ezarri nahi duzun letra-tamaina, eskala ukituta.

Bistaratzeko tamaina

Pantailako edukiaren tamaina doituta, testua handitu edo txikitu dezakezu, bai eta elementu guztiak ere.

Pantailaren tamaina ezartzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Accesibilidad**.
- 2 Sakatu **Tamaño del contenido de la pantalla** eta, ondoren, ezarri nahi duzun pantaila-tamaina, eskala ukituta.

Kolorea zuzentzea

Kolorea zuzentzeko aukerarekin, pantailaren koloreak hauta ditzakezu, erabiltzaile daltonikoentzat edo koloreak bereizteko arazoak dituztenentzat.

Kolorea zuzentzeko aukera aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Accesibilidad > Corrección de color**.
- 2 Sakatu **Utilizar la corrección de color** etengailua, funtzioa gaitzeko edo desgaitzeko.
- 3 Sakatu **Modo de corrección** eta hautatu nahi duzun tonua.

Oharra

Kolorea zuzentzeko aukera ezaugarri esperimental bat da, eta gailuaren errendimenduari eragin diezaioke.

TalkBack

Pantaila irakurtzeko zerbitzu bat da TalkBack, ikusmen-arazoak dituzten erabiltzaileentzat. TalkBack-ek ahots bidezko informazioa erabiltzen du zure Android gailuan gertatzen diren ekintzak deskribatzeko. TalkBack-ek erabiltzailearen interfazea deskribatzen du, eta ozen irakurtzen ditu softwarearen erroreak, jakinarazpenak eta mezuak.

TalkBack gaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Accesibilidad > TalkBack**.
- 2 Sakatu etengailua, eta, ondoren, sakatu **Aceptar**.

Oharra

Ukipen-lehentasunak, ahotsarena eta TalkBacken iruzkinetako lehentasunak aldatzeko, sakatu **Ajustes** eta, ondoren, sakatu pantaila bi aldiz.

Iradokizuna

TalkBackek tutorial bat abiaraziko du, funtzio hori gaitzen duzunean. Tutorialetik irteteko, sakatu < (atzera egiteko botoia), eta, ondoren, sakatu pantaila bi aldiz.

TalkBack desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes** eta, ondoren, sakatu pantailako edozein eremu bi aldiz.
- 2 Bilatu eta sakatu **Accesibilidad** zerrendan mugituta, eta, ondoren, sakatu bi aldiz pantailaren edozein eremu.
- 3 Bilatu eta sakatu **TalkBack** zerrendan mugituta, eta, ondoren, sakatu bi aldiz pantailaren edozein eremu.
- 4 Sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, eta, ondoren, sakatu pantailako edozein eremu bi aldiz.
- 5 Sakatu **Aceptar** eta, ondoren, sakatu pantailako edozein eremu bi aldiz.

Audio monoa

Audioaren ezarpenetan mono hautatuta, audioa aldi berean erreproduzitzen da ezkerreko eta eskuineko kanaletan. Erreproduzitzeko estereo modua erabili beharrean mono modua erabiltzea erabilgarria da, batez ere, entzumen-arazoren bat dutenentzat edo egoera batzuetan segurtasuna bermatzeko (adibidez, inguruko soinuak entzun behar dituzunean).

Audioan mono modua aktibatzea edo desaktibatzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Accesibilidad**.
- 2 Sakatu **Audio en mono** etengailua funtzio hori gaitzeko edo desgaitzeko.

Etengailu bidezko sarbidea

Etengailu bidezko sarbidearen bidez, etengailu bat edo gehiago erabilia komunika zaitezke gailuarekin. Etengailu bat da zure Android gailura pultsazio bidezko seinaleak bidaltzeko erabiltzen den gailu bat. Erabilgarria izan daiteke mugikortasun-arazoak dituzten erabiltzaileentzat. Etengailu bidezko sarbideari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi **Ajustes > Accesibilidad > Acceso mediante interruptor > Ajustes > Ayuda y sugerencias**.

Etengailu bidezko sarbidea gaitzea edo desgaitzea

- 1 Bilatu eta sakatu **Ajustes > Accesibilidad > Acceso mediante interruptor**.

- 2 Sakatu etengailua gaitzeko, edo sakatu **Acceptar**.
- 3 Segi funtzioa desgaitzeko agertzen diren jarraibideei, eta, ondoren, sakatu pantaila, eta, ondoren, sakatu **FINALIZAR**.

Laguntza-aplikazioa

Laguntza-aplikazioari buruz

Erabili laguntza-aplikazioa gailuari eta softwareari buruzko informazioa bilatzeko. Laguntza-gaiei buruz irakur dezakezu, arazoak ebatzi edo aplikazio erabilgarriak erabili (adibidez, gailuaren proba). Sartu gure laguntza-webgunean, zuzenean aplikaziotik. Han irakurri ahal izango dituzu erabiltzailearen eskuliburua, artikulua edo laguntza-foroko informazioa.

Oharra

Kontaktuen menuan agertuko zaizu laguntzako kontaktua, bai eta sare-konexiorik ez duzunean ere.

Laguntza-aplikaziora sartzea

- Bilatu eta sakatu **Ajustes** >  (Laguntzaren ikonoa).

Iradokizuna

Laguntzarik onena jasotzeko, konektatu Internetera laguntza-aplikazioa erabiltzen duzunean.

Lege-informazioa

Orokorra

Erabiltzailearen eskuliburu hau Sony Mobile Communications Inc.-ek edo haren tokiko enpresa afiliatuak argitaratu du, inolako bermerik gabe. Sony Mobile Communications Inc.-k edozein momentutan eta aldeztu aurretik jakinarazi gabe egin ditzake egin beharrek aldaketak Erabiltzailearen eskuliburu honetan, akats tipografikoak zuzentzeko, oraingo informazioaren zehaztasun falta osatzeko edo programa edo ekipoetan hobekuntzak egin direlako. Baina aipatutako aldaketa horiek Erabiltzailearen eskuliburu honen hurrengo edizioetan erantsiko dira. Irudi guztiak erreferentziakoak dira, eta ez dira gailuaren deskribapen zehatzak.

Dokumentu honetan aipatzen diren produktu- eta enpresa-izen guztiak beren jabeen marka komertzialak eta marka erregistratuak dira. Gainerako marka komertzial guztiak zein bere erabiltzailearenak dira. Dokumentu honetan berariaz aipatu gabeko eskubideak erreserbatuta daude. Informazio gehiago lortzeko, bisitatu www.sonymobile.com/us/legal/.

Erabiltzaile-gida honek hirugarrenek hornitutako zerbitzu edo aplikazioei egin diezaieke erreferentzia. Programa edo zerbitzu horiek erabiltzeko, baliteke kanpo-hornitzaile batekin erregistro bereizi bat egin behar izatea, tarifak ordaindu behar izatea edo kreditu-txarteletan buruzko informazioa bidali behar izatea, eta, halaber, erabilera-baldintza gehigarriak, aldaketak edo etenaldiak egin daitezke edozein unetan. Hirugarrenen webgune baten bidez sartutako aplikazioen kasuan, aurrez horien baldintzak eta pribatutasun-politikak aztertzea gomendatzen dizugu. Sonyk ez ditu bermatzen aplikazioen, webguneen edo hirugarrenek eskainitako zerbitzuen erabilgarritasuna eta funtzionamendu egokia.

Zure gailuak eduki osagarriak (adibidez, dei-tonuak) deskargatzeko, gordetzeko eta birbidaltzeko gaitasuna du. Eduki horren erabilera mugatuta edo debekatuta egin daiteke hirugarren alderdien eskubideen ondorioz, indarrean dauden egile-eskubideen legeek ezarritako mugak barne (baina horietara mugatu gabe). Gailuan deskargatu dezakezun edo bertatik birbidal dezakezun eduki gehigarriaren erantzule bakarra zu zara, eta ez Sony. Edozein eduki gehigarri erabili baino lehen, nahi duzun erabilerarako baimen egokia duzula egiaztatzea gomendatzen dizugu. Sonyk ez du bermatzen eduki gehigarrien edo hirugarrenek eskainitako edukien zehaztasuna, osotasuna eta kalitatea. Sonyk ez du inolaz ere eduki gehigarrien edo hirugarrenen edukien bidegabeko erabileraren erantzukizunik izango.

Ikusizko MPEG-4 eta AVC lizentziak eskuratu ditu produktu honek, bezero baten erabilera pertsonal eta ez-komertzialerako (i) MPEG-4 («video MPEG-4») ikusizko estandarren arabera edo AVC estandarren («video AVC») arabera bideoa kodetzeko edo (ii) jarduera pertsonal eta ez-komertzial batean kontsumitzaile batek kodetu duen edo MPEG-4 edo MPEG Lak MPEG-4 eta/edo AVC bideoa banatzeko lizentzia duen bideo-hornitzaile baten baimenarekin lortu den AVC bideoa deskodetzeko. Ez da beste erabileraren baterako baimenik ematen, eta ez da inplizituzat hartzen. MPEG LA, L.L.C.-ren eskutik jasoko duzu informazio gehigarria (sustapen-erabilerarekin, barne-erabilerarekin, erabilera komertzialekin eta baimenekin lotutakoa barne). Ikusi www.mpegla.com. Audioa deskodetzeko MPEG Layer-3 teknologia, Fraunhofer US eta Thomsonen lizentziarekin.

Oharra: Sony Mobilek informazioaren eta datu pertsonalen segurtasun-kopia bat egitea gomendatzen die erabiltzaileei.

SONY MOBILE-K EZ DU HARTZEN BERE GAIN ZURE GAILUAN BILTEGIRATUTAKO ARTXIBO EDO DATU PERTSONALAK GALDU, DEUSEZTATU EDO GAINDAZTEAREN GAINIKO ERANTZUKIZUNIK (BESTEAK BESTE, KONTAKTUAK, ABESTIAK ETA IRUDIAK), ERABILTZAILEAREN ESKULIBURU EDO DOKUMENTAZIO HONETAN DESKRIBATUTAKO METODOETAKO BATEN BIDEZ GAILUA EGUNERATZEAN GERTATZEN BADIRA. SONY MOBILE-K EDO HAREN HORNITZAILEEK KALTE, GALERA ETA PROZEDURA JUDIZIALAK DIRELA-ETA (KONTRATUZKO EDO KONTRATUZ KANPOKO ERANTZUKIZUNA, BESTEAK BESTE, ZUHURTZIAGABEKERIA BARNE) ZUREKIKO DUEN ERANTZUKIZUNA INOLAZ ERE EZ DA IZANGO ZURE GAILUAGATIK ORDAINDU DUZUN KOPURUA BAINO HANDIAGOA.

©2019 Sony Mobile Communications Inc.

Eskubide guztiak erreserbatuta.

Bermea, SAR eta erabilera-jarraibideak

Bermeari, SARI (xurgatze-tasa espezifikoa) eta segurtasun-jarraibideei buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu gailuan duzun informazio garrantzitsua, hemen: **Ajustes > Sistema > Información del teléfono > Información legal**